Unibertsitate zaharrean, esan den urte horretan —mila bederatzehun eta hamazortzigarrenean, alegia— Euskal Estudioen Bilera ospetsu bat egin zen, eta hartan burutu zen Euskaltzaindiaren sagaratztea. Jaun errege Alfonso XIII.ak, bilera hari hasiera ematerakoan, hitz gogoangarri hauek esan zituen:

Herriaren aitzinamendu eta aurrerapenari lagun diezaioketen orori lot zakizkiote, lant ezazue zeuen hizkuntza, euskara beneragarri eta zahar-zahar hori, gizadiaren gordailuko bitxi preziatua den hori, zuek zeuen gurasoetarik hartu duzuen eta zeuon seme-alabei osorik eman behar diezuen.

Ordutik Euskaltzaindia etengabe lanean ari da, sorreran egotzi zitzaizkion xedeok bete nahiz, erresumako kultura eta altxorren zati handi bat den eta espainiar askok erabiltzen duen hizkuntza honen batasuna bultzatuaz. Hargatik, euskararen begiratzete eta ikertze lanerako, Euskaltzaindiaren zeregina Estatuak aitortzea baino gauza hobetik ez da. Hala egin nahi du, bere aitona argiaren hitz gogoangarriekin ados, Juan Carlos I.a errege jaunak.

Beraz, Hezkuntza eta Zientziako ministroak proposaturik, eta mila bederatzehun eta hirurogeita hamaseigarren urteko otsailaren hogeiko bileran Ministroen Kontseiluak gauza aztertu ondoan,

XEDATZEN DUT:

Lehen artikulua. Euskaltzaindiaren onartzea egiten da, beronen lan-eremua Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko probintziak direlarik.

Bigarren artikulua. Akademia honen izena hemendik aurrera honela izanen da: «Euskaltzaindia», Euskararen Errege Akademia.

Hirugarren artikulua. Euskaltzaindiaren arautegia onesten da. Beronen testua hemen dator, dekretu honen eranskin bezala.

Hala xedatzen dut dekretu honen bidez. Madrilen emana, mila bederatzehun hirurogeita hamaseigarren urteko otsailaren hogeita eta seian.

JUAN CARLOS

Hezkuntza eta Zientziako ministroak,
CARLOS ROBLES PIQUER

ERANSKINA

Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca-ren arautegia

Xedeak eta izaera

Lehen artikulua. Euskaltzaindia instituzio bat da, 1918. urtean, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko lau aldundien babespean sortua. Honako xede hauek ditu helburutzat:

- a) Euskararen gramatika legeak ikertu eta mamitzea.
- b) Hizkuntza honen idazlangintzarako argibideak eta arauak ematea.
- c) Hiztegia biltzea.
- d) Bai hiztegian eta bai gramatika eta grafian ere, literatura-hizkera batura heltzeko lan egitea.

- e) Euskararen enplegua aitzinatzea.
- f) Hizkuntzaren eskubideak zaintzea.
- g) Hizkuntza, gizarte maila guztietan gai bihurtzeko, lan egitea.
- h) Literatura- eta ikas lehiaketak eragitea.
- i) Filologia eta linguistikako estudioak sustatzea, euskara eta euskal literaturaren katedrak bultzatuz²².
- j) Euskarari dagozkionetan instituzio aholku-emaile ofiziala denez, ziurtagiriak eman eta txosten eta irizpenak luzatzea²³.

Bigarren artikulua. Egiteko hauen arauaz, bi sail ditu Euskaltzaindiak: Iker Saila eta Jagon Saila.

Egitura

Hirugarren artikulua. Hogeita lau euskaltzain osoz, euskaltzain emerituz, euskaltzain urgazlez eta euskaltzain ohorezkoz osatua da Euskaltzaindia. Euskaltzain urgazle eta ohorezkoentzat ez da muga jakinik²⁴.

Laugarren artikulua. Euskaltzain osoek, sortzez edo jatorriz, Euskal Herri guztikoak izan behar dute. Era horretara euskalki guztiek Euskaltzaindian beren ordezkaria izan dezaten.

Laugarren bis artikulua. Euskaltzain emeritu mailara, adinagatik edo ezintasunagatik euskaltzain oso direnak pasatuko dira. Emerituek euskaltzain osoaren kideko maila gordeko dute. Barne Erregeletan garatuko dira euskaltzain emerituekiko xehetasunak²⁵.

Bosgarren artikulua. Euskaltzaindiak zuzendaritza bat izango du, honako kide hauek osatua: euskaltzainburuak, buruordeak, idazkariak, diruzainak, Iker sailburuak eta Jagon sailburuak.

Guztiek euskaltzain oso izan beharko dute. Iker sailburua nahiz Jagon sailburua euskaltzain buruorde ere izan daitezke aldi berean²⁶.

Seigarren artikulua. Idazkariorde eta kudeatzaile bat izenda daitezke, alogeraz ordainduak. Hauek ez dira euskaltzain osoak izango²⁷.

Zazpigarren artikulua. Euskaltzain oso nahiz urgazleatarik liburuzain bat izendatuko da.

²² Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

²³ Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

²⁴ Ekainaren 16ko 750/2006 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

²⁵ Ekainaren 16ko 750/2006 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

²⁶ Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

²⁷ Ekainaren 16ko 750/2006 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

Zortzigarren artikulua. Zuzendaritzari dagokio lan batzordeetan parte hartuko duten pertsonen izenak proposatzea, eta Euskaltzaindiaren bilkuretan aztertutako gaiei buruzko informazio-oharrak idaztea.

Bederatzigarren artikulua. Euskaltzainburuaren ahal eta eginbeharrak hauexek dira:

- a) Instituzioaren bileretan buru izatea.
- b) Euskaltzaindiaren arautegi, erregelamendu eta erabakiak bete ditezten begiratzea.
- c) Instituzioaren ordezkaritza, pertsona eta erakunde publiko zein pribatuen mota guztien aurrean eramatea.
- d) Instituzioaren erregelamendu eta erabakiek eman diezazkioketen beste ahalmenak egikaritzea.

Hamargarren artikulua. Euskaltzainburu-ordezkoari dagokio: euskaltzainburua falta denean, haren lanak egitea.

Hamaikagarren artikulua. Idazkariaren zereginak dira:

- a) Bilkura bakoitzaren akta egitea. Eta euskaltzainburuaren oniritziak sinatzea, onetsi ondoan.
- b) Hartutako eskutitzen erantzutea eta berorien berri bilkuretan ematea.
- c) Urteroko oroitidazkia prestatzea eta Euskaltzaindiari, hartako bilkuran, aurkeztea.
- d) Ordezkaritzetako jarduerak koordinatzea.
- e) Erregelamenduek eta bilkuren eta Zuzendaritzaren erabakiek ematen dizkioten gainerako zereginak betetzea.

Hamabigarren artikulua. Diruzainari dagokio:

- a) Edozein arrazoiengatik instituzioak hartu behar dituen diruak jasotzea.
- b) Pagakizunak egitea.
- c) Euskaltzaindiari hiru hilabetez behin kontu errendatzea; euskaltzainburu nahiz Zuzendaritzari, eskatzen zaion bakoitzean, egingo dionaz gainera.

Hamahirugarren artikulua. Idazkariordeari dagokio:

- a) Idazkaria falta denean, haren lanak egitea.
- b) Bulego arazoak aitzinatzea, euskaltzainburu edota idazkariaren oniritziak, gaiak nola diren.
- c) Euskaltzainburuaren aginduz aurreko bilkuraren akta eta hurrengo bilkuraren deialdia, erabiliko diren gaien zerrendaz, kide guztiei bidaltzea.

- d) Ordezkaritzetako eta lantaldeen lanak koordinatzen idazkariari laguntzea²⁸.

Hamahirugarren bis artikulua. Kudeatzaileari dagokio:

- a) Diruzaina falta denean, haren lanak egitea.
- b) Bulego arazoak aitzinatzea, euskaltzainburu edota diruzainaren oniritziaz, gaiak nola diren.
- c) Euskaltzaindiaren etxeetan zeregin arrunten arta izatea eta langileen ardura kudeatzea.
- d) Ordezkaritzetako eta lantaldeetako langileen ardura laborala kudeatzea²⁹.

Hamalauugarren artikulua. Liburuzainari dagokio:

- a) Instituzioaren liburu, eskuizkribu eta agiriak zaindu eta ordenatzea.
- b) Liburu, eskuizkribu eta agiri horiek uztea, jarritako erregelamendu berezi batean ezartzen diren arauen arabera.
- c) Etxera diren liburu nahiz gutunen berri ematea.

Egoitza eta ordezkaritzak

Hamabosgarren artikulua. Euskaltzaindiak Bilbon du bere egoitza. Haren egungo egoitza Plaza Barria, 15 da³⁰.

Hamaseigarren artikulua. Ordezkaritzak sor daitezke probintzietako hiriburuetan.

Instituzioaren batzarrak

Hamazazpigarren artikulua. Instituzioaren batzarrak ohikoak eta ezohikoak izango dira, publikoak zein barrukoak. Hilabete oro, ahal dela, bilera horietako bat egingo da, euskaltzain oso guztiak joatera behartuak daude, eta, joaterik ez baldin badute, ezin etorria agertu behar dute. Euskaltzain emerituak ez daude batzarretara joatera behartuak. Artikulu honen arautegi-xedapenak Barne Erregeletan arautuko dira³¹.

Hemezortzigarren artikulua. Ohiko bilkura pribatuetan barne-gaiak eta akademia-gaiak erabiliko dira. Akademia-gaiak aztertzen direnean ohorezkoek eta urgazleek ere joateko eskubidea eta hitza izango dute, baina botorik gabe³².

²⁸ Ekainaren 16ko 750/2006 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

²⁹ Ekainaren 16ko 750/2006 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

³⁰ Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

³¹ Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuak berridatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

Gerogarrenean, ekainaren 16ko 750/2006 Errege Dekretuak aldarazi du, errege-dekretu horrek eraldatu baititu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

³² Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

Hemeretzigarren artikulua. Bilkura publikoak, euskaltzain oso berrien sarreretan, gorazarre, oroitzapen eta zuzendaritzaren iritziz halako ospe bereziaz inguraturik egotea komeni den paradetan eginen dira³³.

Hogeigarren artikulua. Ezohiko bilkurak Zuzendaritzaren aginduz ez beste bilduko dira. Bilkura horiek biltzera beharturik dago Zuzendaritza, bost euskaltzain osok idatziz hala eskatzen dutenean³⁴.

Hogeita batgarren artikulua. Erabakiak gehiengoz hartuko dira, eta, behar denean, arautegi honetan berariaz agintzen den «quorum» delakoaz.

Aski da euskaltzain oso batek hori eskatzea ezkutuko bozketa egin dadin.

Hogeita bigarren artikulua. Bilkurara ez etortzeko arrazoi taxuzkoa duten euskaltzain osoek beren botoa idatziz edo beste euskaltzain oso baten bidez (hartarako ahala honi emanaz) igor dezakete. Euskaltzain emerituek ezin dezakete ahalmen hori erabil. Iritziak berdin agertzen badira, euskaltzainburuak izanen du kalitateko botoa³⁵.

Hogeita hirugarren artikulua. Euskaltzainburua eta buruordea bilkurara etor ez badaitez Euskaltzaindian zaharrena den euskaltzain osoa izanen da buru.

Hogeita laugarren artikulua. Idazkaria falta denean, azkenekoz izendatua izan den euskaltzain osoak egingo du haren lana.

Hogeita bosgarren artikulua. Euskaltzainburuak aldeztatik axola handikotzat jo dituen arazoak erabaki behar direnean, erabakiak indarra izan dezan, proposamenak, lehen deialdian, euskaltzain osoen botoen gehiengo osoa erdietsi behar du; bigarren deialdian, berriz, aski da gehiengo soila³⁶.

Hogeita seigarren artikulua. Axola handikotzat jo gabeko arazoetan, aski izanen da euskaltzain oso batek hori eskatzea, arazo hura hurreneko bilkura arte mahai gainean utz dadin.

Instituzioaren funtsak

Hogeita zazpigarren artikulua. Hona instituzioaren funtsak:

- a) Estatu, autonomia-erkidego, foru nahiz udaletako aginteen, edota instituzio, elkarte eta gizabanakoen diru-laguntza eta emariak.
- b) Euskaltzaindiaren argitalpen eta lanen etekinak.
- c) Euskaltzaindiak bere ondarearen ustiapenetik eskura dezakeen beste edozein diru-sarrera³⁷.

Karguen hautatzea

³³ Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

³⁴ Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

³⁵ Ekainaren 16ko 750/2006 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

³⁶ Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

³⁷ Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

Hogeita zortzigarren artikulua. Zuzendaritzako karguak lau urterako izanen dira. Izendatuak berriro hautatuak izan daitezke³⁸.

Hogeita bederatzigarren artikulua. Hautatzea, ezkutuko bozketaz eginen da, hartarakotzat soilki bilduko ben ezohiko bilkura pribatu batean.

Hogeita hamargarren artikulua. Kargu berritzea eginen den bilkurarako deia hamabost egun aurretik gutxienez bidali behar da, eta egitarauan karguen hautatzea aipatuko da.

Hogeita hamaikagarren artikulua. Hautatzea baliioduna izan dadin, gaiak gehiengo osoa erdietsi beharko du. Quorum hori izango ez balitz, bozketa berria eginen litzateke, eta orduan aski izango litzateke gehiengo soila.

Hogeita hamabigarren artikulua. Zuzendaritzako kideen hautatzea eta kargu hartzea urtearen azken laurdenean egingo dira.

Euskaltzain berrien izendapenak

Hogeita hamahirugarren artikulua. Euskaltzain oso baten heriotzagatik, edota adinagatik ala ezintasunagatik emeritu mailara pasatu delako, euskaltzain osoen hutsuneak gertatzen direnean ohiko bilkuran jakinaraziko dira, eta hutsuneok hornitzeko proposamenak horren hurrengo bi bilkuretan aurkeztu ahal izango dira³⁹.

Hogeita hamalaugarren artikulua. Euskaltzain osoa izateko proposamena hiru euskaltzain osok sinatu behar dute. Proposamenarekin batera, zerrenda bat egin behar da, izangai bakoitzak dituen merezimenduak xeheki aipatuz.

Hogeita hamabosgarren artikulua. Euskaltzain oso hautatua izateko, euskaltzain osoen botoen gehiengoa erdietsi behar da.

Hogeita hamaseigarren artikulua. Euskaltzain oso berrien sarrera bilkura publikoan eginen da. Euskaltzain hautatu berriak sarrera hitzaldia eginen du, eta euskaltzain oso batek erantzungo⁴⁰.

Hogeita hamazazpigarren artikulua. Bi urtez behin ikusiko du Euskaltzaindiak ea euskaltzain urgazle berririk izendatu behar ote den.

Hogeita hemezortzigarren artikulua. Inor euskaltzain urgazle izenda dadin, proposamena bi euskaltzain osok idatziz egin behar dute, eta idazki horretan izangaiaren merezimenduak aipatuko dira. Hautatua izateko, euskaltzain osoen botoen gehiengoa behar da, gainera.

Hogeita hemeretzigarren artikulua. Ohorezko euskaltzainen mailan sartuko dira Euskaltzaindiaren ustetan euskarari mesede bikainak egindako pertsonak.

Izendatuak izateko, proposamen idatzia behar da, nahiz Zuzendaritzak nahiz bi euskaltzain osok egin, eta Osokoan, akademia-bilkuran, onartzea.

Argitalpenak

³⁸ Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

³⁹ Ekainaren 16ko 750/2006 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

⁴⁰ Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

Berrogeigarren artikulua. Euskaltzaindiak aldizkako agerkaria argitaratuko du, eta han hizkuntza- eta literatura-lanekin batean, erakundearen akta eta erabakiak etorriko dira. Horrez gain, instituzioaren xedeei dagozkien argitalpenak kaleratuko ditu⁴¹.

Xedapen gehigarria

Berrogeita batgarren artikulua. Arautegi honetako xedapenak behar diren Barne Erregeletan eta erregelamendu berezien bidez, garatzeko ahalmen osoa du Euskaltzaindiak⁴².

Euskera, XXI, 1976, 2, 15-23.

⁴¹ Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

⁴² Otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuaren arabera idatzia; errege-dekretu horrek aldarazi ditu Euskaltzaindiaren estatutuak, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

2

BAI EUSKARARI KANPAINAREN ALDEKO JAIALDIA

Bilbon, Santimamiñeko futbol zelaian euskaltzainburuaren hitzak:

Jaun-andreak, agur t'ardi eta gau on!

Jaialdi honi hasiera ematerakoan bihotzez agurtu nahi zaituztet guztiok. Bai zelai eder honetan zaudetenok, eta bai bertora etortzerik izan ez duzenok ere.

Nere hitzak eskerrak ematekoak izan bitez aurrenik. Eskerrak, *Bai Euskarari* kanpainan parte hartu duten guztiei, eskerrak, baita ere, gaurko jaialdian euskararen eta Euskaltzaindiaren alde jokatu nahi izan duten dantzari, kantari eta bestelako taldeei.

Benetan harriturik eta txunditurik nago eta pozez gainezka, kanpaina honek izan duen erantzun bikain-bikaina ikusirik. Horrek esan nahi du Euskal Herria bizi dela oraino, eta gure herri honetan badela gogo eta borondate euskara onik ateratzeko, dagoen egoera kaskarretik beste egoera hobe batera aldatzeko.

Euskararen aldeko kezka eta sua piztu nahi izan du kanpaina honek. Izan ere, euskara da gure herriak duen bereizgarriarik agiriarena, gure asabengandik datorkigun ondasun paregabea. Baina ondasun hau gordetzeko, bizirik eta osorik ateratzeko guztion lana, lehia eta ahalegina behar ditugu. Eta *Bai Euskarari* kanpainak zerbait erakutsi baldin badu, horixe erakutsi du, alegia: gogo hori badela, eta, beraz, itxaropenez begira diezaiokegula etorkizunari.

Euskaltzaindia euskararen alde lan egiteko eta euskal arazoetan gidari izateko jarri eta izendatu zuen gure herriak bere ordezkarien bidez. Eta gaur, kanpaina honek herriarengandik izan duen erantzun ezin hobea ikusi ondoren, nik Euskaltzaindiaren beraren izenean hauxe esan nahi dizuet: hemendik aurrera, zuen laguntza eta atxikimenduari eskerrak, gure elkarte hau oldar berriz eta gogotikago lotuko dela bere zeregin handi horiek betetzera.

Bai Euskarari kanpaina honen ondorio eta fruitu bezala, Euskaltzaindiak lehenbailehen plangintza orokor bat antolatuko du, era askotako egintzak bultzaturik euskararen eta euskal kulturaren alde.

Eskerrak, bada, berriz ere, Euskaltzaindiaren izenean, kanpaina honetan lan egin duen orori eta bere ahalen neurrian bere emaitzaz lagundu digun bakoitzari.

* * *

Señoras, señores:

En la apertura de este solemne festival, que viene a ser la culminación de la campaña *Bai Euskarari*, parece obligado e inexcusable que en nombre de Euskaltzaindia diga unas palabras. Palabras que quieren ir dirigidas no tan solo a los que en estos momentos llenan este magnífico campo de San Mamés, sino también a todos los que no han podido venir, pero que están interesados de alguna manera por los fines de esta campaña.

Mis palabras por fuerza han de ser breves y sencillas, pero, eso sí, quisiera que fueran portadoras de verdad y de amor. Palabras de reconocimiento, de gratitud y de esperanza.

Palabras de reconocimiento, en primer lugar, a todos cuantos han trabajado y tomado parte en esta campaña, a los cantantes, a los grupos artísticos, etc., que han querido participar en este acto. Gracias, en especial, a la directiva del Athletic porque nos ha prestado este magnífico estadio.

No puedo ocultar que en estos momentos me embarga el gozo, la emoción y la esperanza a la vista de la unidad y unanimidad con que el pueblo vasco todo, sin distinción de credos ni de ideologías, ha respondido a esta llamada de Euskaltzaindia. Así debía ser y así ha sido. Y ello demuestra que el pueblo vasco está vivo. Esto es un gran motivo de esperanza y de confianza de cara al porvenir. Porque el euskera es un bien de todos, patrimonio común del pueblo vasco y entre todos lo hemos de salvar.

La respuesta que todo el país unánimemente ha dado a la llamada de Euskaltzaindia ha sido algo maravilloso, algo que ha rebasado los cálculos más optimistas. Y repito que esto es un gran motivo de esperanza de cara al futuro.

Permitidme que insista sobre la significación y el sentido profundo de la campaña *Bai Euskarari*.

Antes de ayer me decía un fraile de Arantzazu: habéis dado en el clavo. Porque, efectivamente, si el euskera se pierde, todo se ha perdido, y si se salva todo se ha salvado.

He aquí por qué y para qué ha sido esta campaña. Ha querido ser, y ha sido, una campanada, una llamada y un toque de atención, un pulsar y tantear la reacción de nuestro pueblo con relación a este problema. Ha querido, antes que nada, llamar la atención sobre lo que define al pueblo vasco, sobre lo que lo configura, sobre lo que conforma su identidad como pueblo.

Por otra parte, la situación del euskera como lengua viva, real y popular es ciertamente preocupante. Consciente de ello la Academia ha querido hacer fijar la atención de todos sobre el caso, pues bien sabe que esta obra de salvamento del euskera precisa del concurso y de la colaboración de todos.

Sin duda conocéis o habéis oído hablar del poema *Euskaldunak* de Orixe. Este poema tiene un canto que constituye como el vértice o cima del mismo. En él se describe la rogativa del pueblo a San Miguel de Aralar. Y hay un momento en que el poeta, abandonando su función ordinaria de mero narrador, se destapa por así decir, abandona su actitud objetiva y fría, y se pone a hablar por su cuenta.

Quiere decir a su pueblo dos verdades amargas —así se expresa él—. En esta sección del poema ha vertido Orixe sus más íntimas preocupaciones, ha expresado lo que él quiere y desea para su pueblo, lo que teme y lo que no quiere para él, etcétera.

Pues bien, en el curso de una plegaria ardiente a Dios, Orixe profiere estas palabras:

*Jabetasuna galdu dulako
dago erri su damutan.
Lurra galdurik, erritasuna
egizu galdu ez dezan.*

Que él mismo traduce como sigue: «Este pueblo tiene el sentimiento de haber perdido su propio dominio. Aunque haya perdido su territorio, haz que no pierda su cualidad de pueblo».

Cualidad de pueblo. *Herritasuna*. ¿Qué es esto, sino la vasquía? ¿Y cuál es su constitutivo o ingrediente, si no único, sí uno de los principales? El euskera, sin duda.

El euskera es el que nos ha dado nombre de pueblo, ser de pueblo y conciencia de pueblo. *Euskal Herria* es el país del euskara. *Euskaldun* es el que posee, sabe y habla el euskara.

Por eso urgía llamar la atención general hacia este valor substantivo, porque ciertamente se halla amenazado. Y en este momento en que la actividad política polariza la atención del pueblo hacia múltiples tareas y problemas, importantes sin duda y legítimos, Euskaltzaindia, que fue creada para velar por la lengua, ha creído que debía hacer algo para que la preocupación por la lengua prenda y cale hondo en todos. Este ha sido el objetivo primordial de la campaña *Bai Euskarari*.

Y la respuesta dada por el pueblo no ha podido ser mejor.

A mí solo me resta dar las gracias a cuantos de forma tan conmovedora y desinteresada han trabajado en la organización y desarrollo de esta campaña, y a cuantos de manera tan generosa y magnífica han respondido a ella con su óbolo.

Pero digo mal. Me resta todavía una cosa, y con esto termino. Me resta decir que la Academia, ante la evidencia del apoyo, del calor y de la ayuda recibida, promete consagrarse de hoy en adelante con mucho más ahínco y dedicación, con ánimo redoblado a su tarea en pro del euskera. Promete planear toda una acción con iniciativas múltiples en orden a revitalizar el euskera y la cultura euskérica. Ha recibido el espaldarazo del pueblo, sin el cual poco o nada podía hacer, y ahora puede mirar con optimismo y confianza el porvenir. Cuenta también, gracias a vosotros, con unos medios con que antes no contaba.

Eskerrik asko.

Gora euskera!

Gora Euskal Herria!

1978ko ekainaren 17an.

Euskera, XXIII, 1978, 1, 365-368.

3

HEZKUNTZA MINISTERIOARI EGINDAKO ESKEA

Hezkuntza eta Zientziako ministro jaun agurgarriari
Madril

Euskaltzaindi honek, maisu-maistren unibertsitate-eskoletan euskara sartzeari buruz bere Bergarako VIII. Biltzarrean hartutako erabakiak aurrean eraman nahirik, biltzar hartan hartu zen 6. erabakia zehaztu eta konkretatu nahi izan du. Erabaki hark hau dio:

«Gure irakaskuntzaren behar gorriaz jabeturik, *Ministerio de Educación y Ciencia* eta *Ministère de l'Éducation* direlakoei eskaria zuzenduko die: irakasle prestakuntza-eskoletan biderik zabalenak eman ditzaten, beharrezko baita:

- a) Edozein sailetan, eta maila guztietan ikasten ari dena euskaraz irakasteko gai bihur dadin eta,
- b) Euskal Herriko eskola horietan, guztietan, sor dadin Filologia, Euskal saila».

Euskaltzaindi honek egoki iruditu zaizkion gestioak egin ditu, arazo hau zehatz sakontzeko, Euskal Herriko Unibertsitateko euskarako koordinatzaileen eta konkretukiago maisu-maistren unibertsitate-eskoletako euskarako irakasleen eta, Euskaltzaindi honek, beronek, antolatua duen Elebitasuneko batzordearen iritzia jasoz. Datu guztiak bildu ondoren, proposamen hauetara heldu da:

1. Heziketa Orokorreko bigarren mailako ikasleei ofizialki eta ganoraz irakatsi ahal izateko, beharrezkotzat jotzen da maisu-maistren unibertsitate-eskoletan Euskal Filologia Saila jartzea. Horretarako:
 - a) Euskal hizkuntza eta literaturako katedrak sortu beharko dira, Euskal Herriko eskola guztietan, zein Araban, zein Bizkaian, zein Gipuzkoan, zein Nafarroan, aurrera egiteko beharrezkoak diren irakasleak eta diru-laguntzak ezarriz.
 - b) Maisu-maistren unibertsitate-eskola horietako euskarako irakasleek, Euskal Herriko Unibertsitateko «Filosofía y Letras» delako Fakultateko Filologia Euskal Saileko arduradunen laguntzaz, Filologiako sail horretarako plangintza orokor bat egingo dute Euskal Herri osorako.
2. Heziketa Orokorreko bi mailetan euskal irakasleak nahitaezkoak direnez, behar diren pausoak emanen dira eskola hauetatik ataratzen diren irakasle berriak elebidunak izan daitezen. Horretarako beharrezkotzat jotzen da:
 - a) Unibertsitate-eskola hauetan euskara nahitaezko ikasgai orokortzat hartzea eta espezialitate desberdinetako ikasle guztiek eta karrerako urte guztietan ikastea.

b) Irakasle berriek, biharko egunetan euren zeregina ongi bete dezaten, beharrezko ikusten da unibertsitate-eskola hauetan euskal irakasleak jartzea eta departamentu bakoitzean irakasle elebidunak izatea honela bakarrik ikasi ahal izango dute euskara eta espezialitate bakoitzeko hiztegi teknikoak.

— Hau dela eta, Unibertsitate-eskola hauetako hizkuntza-egoera konpontzen ez den artean, izan beharko dute bertarako egin daitezkeen oposizioak. Hau, denau, jakina, bertako irakasleek eskuraturik dituzten orain arteko eskubideak ukatu gabe.

3. Une honetan, bestalde, maisu-maistren unibertsitate-eskola hauetako plangintzak berriztatzen ari dira. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da:

a) Euskal Herriko unibertsitate-eskola hauetako plangintzak, Euskal Herriko egoera konkretua eta bertako beharrianak kontuan harturik egitea, nahiz eta karrerak berez bereak dituen ikasgaiak eta alorrak baztertu gabe egin.

b) Plangintza berri hau egiterakoan, gure irakaskuntzaren geroan zerikusia duten erakunde guztiek parte dutela, egin beharko da. Hau da:

— Maisu-maistren unibertsitate-eskoletako irakasle-ikasleen iritziak kontuan harturik.

— Eusko Kontseilu Nagusiaren Hezkuntza Kontseilaritzak esku duela.

— Nafarroako Irakaskuntzako Kontseilu Nagusiak parte duela.

— Euskaltzaindiaren ikuspegiak eta iritziak aurrez jasoz.

— Euskal Herriko Unibertsitateko ICEren laguntza hartuz.

Euskaltzaindi honek, premia-premiazkotzat jotzen du, euskara egoki eta seriozki maisu-maistren unibertsitate-eskola hauetan jartzea, eskola hauetatik irteten diren maisu-maistra berriak elebidun atera daitezzen. Hori dela eta, plangintza berri hau datorren ikasturtean hasirik aurrera eramatea eskatzen da.

Euskaltzaindi honek, bestalde, irakasle elebidunen premia hain gorria izanez, irakasle elebidun horiek prestatzen diren bitartean, berehalako pauso batzuk eman ditzala eskatzen dio *Ministerio de Educación y Ciencia* delakoari. Ministerio horrek Eusko Kontseilu Nagusiaren Hezkuntza Kontseilaritzarekin batera, halako udako ikastaro batzuk eskaini behar dizkie orain, borondate hutsez, unibertsitate-eskola askotan euskara ikasten ari diren ikasle ugariei.

Honela, gerora begira, irakasle elebidunak ateratzeko plangintza egokia egiten den artean, gaur egun hauetako unibertsitate-eskoletan euskara ikasten ari diren ikasleei laguntza-egonkortze eskaintza, hiru urtetako epe laburrean mila bat irakasle elebidun egiteko aukera sortzen da.

Hau guztiau azaldu eta eskatu nahia du erakunde honek, ni beronen lehendakari izanik, bilkura orokor bateko erabakiaren arabera, Bizkaiko Jaurerriko Aldundiaren Etxean.

Bilbon, 1978ko abenduaren 29an.

Fr. Luis Villasante,
euskaltzainburua

* * *

Excmo. Sr. ministro de Educación y Ciencia
Madrid

Esta Real Academia de la Lengua ha juzgado conveniente realizar las gestiones pertinentes ante este Ministerio de Educación para concretizar el acuerdo tomado por esta corporación en su IX Congreso, celebrado en la villa de Bergara, referente a la implantación del euskara en las escuelas universitarias de formación de profesores de EGB del País Vasco. Dicho acuerdo dice así en su párrafo 6:

«Haciéndose eco de la crítica situación del euskara en la enseñanza, se presentará la siguiente petición tanto al Ministerio de Educación y Ciencia como al *Ministère de l'Education*, para que den las máximas facilidades en los Centros de formación de profesorado, a fin de que:

- a) En cualquier especialidad y a todos los niveles se formen profesores capacitados para la impartición de las materias en forma bilingüe en todos los niveles.
- b) Se establezcan en todas las escuelas de formación de profesorado la Sección de Filología Vasca».

Para ello, consultados los coordinadores de clases de euskara de la Universidad del País Vasco, el actual profesorado de euskara de diversas escuelas universitarias de formación de profesorado de EGB y la Comisión de bilingüismo de esta Real Academia, se ha llegado a las conclusiones siguientes:

1. Es indispensable que se establezca la Sección de Filología Vasca en las escuelas de formación de profesorado de EGB a fin de que se forme el profesorado específico de lengua vasca que imparta el euskara en la 2.^a etapa de EGB Para ello, se juzga urgente:
 - a) La creación de las correspondientes cátedras de lengua y literatura vasca, en todas las escuelas universitarias de formación de profesorado de EGB de Álava, Gipuzkoa, Navarra y Bizkaia con las oportunas designaciones de profesorado y correspondientes dotaciones.
 - b) El profesorado de euskara de dichos centros de formación de profesorado de EGB elaborará, en estrecha vinculación con la especialidad de filología vasca de la Facultad de Filosofía y Letras, un plan común de dicha sección de filología vasca para todo el País Vasco.
2. Para ello se darán los pasos necesarios para que todo el alumnado de las escuelas universitarias de formación de profesorado del País Vasco termine sus estudios siendo bilingüe. Para ello se ve necesario que:
 - a) El euskara sea introducido en estas escuelas universitarias de formación profesional como asignatura común a cursar por los alumnos de todas las especialidades y a lo largo de todos los años de la carrera.

b) Es necesario dotar a estas escuelas universitarias de formación de profesorado de profesores de euskara y a los diversos departamentos de las mismas de profesores bilingües, para que el alumnado pueda adquirir, juntamente con el euskara y su didáctica, el conocimiento de la terminología científica específica de la especialidad que cursan tanto en castellano como en euskara y así prepararse para su futura labor bilingüe.

— Por ello, en tanto no se resuelva satisfactoriamente la normalización lingüística de estas escuelas universitarias, se congelarán las oposiciones dentro del País Vasco, todo ello sin perjuicio de derechos adquiridos.

3. Dado que se están elaborando los nuevos planes de estudio de las escuelas universitarias de formación profesional de EGB, se considera necesario que:

a) En las escuelas universitarias de formación de profesorado de Bilbao, Pamplona, San Sebastián y Vitoria, se elaboren dichos planes de estudio, teniendo en cuenta las necesidades lingüístico-culturales del mismo, sin menoscabo de las materias comunes a cursar a nivel estatal.

b) En la elaboración de dichos planes de estudio se tenga en cuenta la voz representativa de los diversos estamentos implicados:

— El profesorado y alumnado de las diversas escuelas universitarias de formación de profesorado de EGB, tanto estatales como privadas.

— La Consejería de Educación y Ciencia del Consejo General Vasco.

— Junta Superior de Educación de Navarra.

— Real Academia de la Lengua Vasca.

— ICE de la Universidad del País Vasco.

Esta corporación académica considera de máxima urgencia la adecuada implantación de la enseñanza del euskera en las Escuelas de Formación de Profesorado de EGB para la conveniente preparación bilingüe del profesorado de EGB. Por ello considera que esta planificación debe implantarse a partir del próximo curso escolar.

Mientras se forman esas promociones bilingües, este Ministerio de Educación y Ciencia, en estrecha colaboración con la Consejería de Educación del Consejo General Vasco y la Junta Superior de Educación de Navarra, debe proveer, en plan de urgencia, a la formación del profesorado bilingüe necesario, ofreciendo para ello al alumnado que actualmente cursa clases de euskara en dichas escuelas universitarias de formación de profesorado de EGB, la oportunidad de completar el aprendizaje del euskara mediante cursos intensivos de verano.

De este modo, al mismo tiempo que se planifica la formación bilingüe del profesorado para el futuro, cabría completar la formación lingüística vasca que un gran número de alumnos está recibiendo en la actualidad en muchas de estas escuelas universitarias, pudiéndose conseguir en el reducido espacio de tiempo de tres años cerca de un millar de profesores bilingües.

Es todo lo que tiene el honor de exponer y solicitar a V. E., esta corporación académica de mi presidencia por acuerdo adoptado en sesión plenaria, celebrada el día de la fecha en el Palacio de la Diputación Foral del Señorío de Bizkaia.

Bilbao, 29 de diciembre de 1978.

*Fray Luis Villasante,
presidente*

Euskera, XXIV, 1979, 1, 93-99.

4.a

EUSKAL HERRIA HITZA EZ BAZTERTZEAZ

Eusko Kontseilu Nagusiko lehendakari jauna,
Bilbo

Mila bederatziehun eta hirurogeita hemezortziko martxoaren seian Eusko Kontseilu Nagusiak egin zuen batzarrean, Hezkuntza eta Kulturako kontseilarien proposamenari jarraituz, Euskaltzaindia Euskal Herri mailan organo ofizialtzat hartzea erabaki zuen, euskara landu, zehaztu eta batzeko arazoetan.

Bidenabar, Kontseiluak bere laguntza eskatzen zion Euskaltzaindiari haren zereginak ahal den hobekienik betetzeko.

Euskaltzaindiak ohore handiko eginkizun hau behar bezala bete nahian, Baionako Eusko Erakustokian urtarrilaren hogeita seiko batzarrean, Eusko Kontseilu Nagusiari begiramendu guztiarekin agerpen hau egitea, aho batez erabaki zuen:

Aspaldikoa den *Euskal Herria* izena, ezin dela inola ere baztertu erdarazko País Vasco delakoaren ordain bezala, nahiz Euskadi hitza ere erabili.

Horrela jakinarazten dizut Batzarraren aginduz.

Jainkoak urte askotarako gorde zaitzala.

Jose M.^a Satrustegi,
idazkaria

Baionan, 1979ko urtarrilaren 26an.

Euskera, XXIV, 1979, 1, 115.

4.b
QUE NO SEA RELEGADA LA PALABRA
EUSKAL HERRIA

Sr. presidente del Consejo General del País Vasco
Bilbao

En sesión del Consejo General del País Vasco celebrada el día seis de marzo de mil novecientos setenta y ocho, a propuesta de los consejeros de Educación y Cultura, se acordó adoptar a la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia como órgano oficial del País Vasco, para la conservación, cultivo, fijación y unificación de la lengua vasca.

Acordó, al mismo tiempo, solicitar de la Academia toda colaboración necesaria a efectos de la acción del Consejo.

Euskaltzaindia, tratando de cumplir debidamente el honroso deber que se le ha encomendado, en sesión académica celebrada en el Museo Vasco de Bayona el día veintiséis de enero de mil novecientos setenta y nueve, acordó por unanimidad comunicar al Consejo General Vasco, la conveniencia de que no sea relegada la palabra tradicional *Euskal Herria* como equivalente onomástico del término País Vasco, aunque igualmente pueda usarse también el vocablo Euskadi.

Lo que traslado a V. E. para su conocimiento y efectos.

Dios guarde a V. E. muchos años.

José M.^a Satrustegui,
secretario

Bayona, 26 de enero de 1979.

Euskera, XXIV, 1979, 1, 117.

5.a

EUSKARAREN EGOERA NAFARROAN

Euskaltzaindiaren zuzendaritzak, gaur Iruñean egindako bileran, beste gai batzuen artean erabaki hau hartu du:

Euskaltzaindiak, Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiko foru-aldundiek eta Nafarroako Foru Diputazioak emandako eta errege dekretuak berretsitako eginkizuna beteaz, hots, euskararen alde jokatzeari, Nafarroa elebitasun dekreturik gabe gelditu delako, zeharo kezkaturik dagoela adierazten du.

Euskara Nafarroan lege baliakizunik gabe dagoela ohartzen da, Nafarroak dituen eskubideekin elebitasun dekretu bat aurrera atera behar duela uste du, *Junta Superior de Educación* delakoak, behar den bezala eraberritua, noski, ondoren zehatz dezan.

Parlamentu eta aldundi foralei eskatzen die hainbat lasterren beren jarrera ager dezatela eta euskararen, hots, nafarren hizkuntzaren alde beharrezko diren neurriak har ditzatela.

Iruñean, 1979ko maiatzaren 25ean.

Euskera, XXIV, 1979, 2, 699.

5.b

SITUACIÓN DEL EUSKARA EN NAVARRA

La Junta de Gobierno de la Real Academia de la Lengua Vasca, en reunión celebrada en Pamplona el día de la fecha, ha adoptado entre otros el siguiente acuerdo:

«Euskaltzaindia», que vela por los intereses de la lengua vasca, misión encomendada por las diputaciones forales de Álava, Gipuzkoa, Navarra y Bizkaia, y refrendada por real decreto, se siente hondamente preocupada por la exclusión de Navarra en el decreto de bilingüismo.

Es consciente de que el euskara se encuentra en Navarra en una indefensión de instrumentos legales. Considera que Navarra en uso de atribuciones que posee debe gestionar un decreto de bilingüismo y desarrollarlo posteriormente a través de la Junta Superior de Educación, debidamente reestructurada.

Insta al Parlamento y diputación forales a que se pronuncien urgentemente en este sentido y arbitren las medidas pertinentes para su inmediata aplicación en favor del euskara, la lengua de los navarros.

En Pamplona, a 25 de mayo de 1979.

Euskera, XXIV, 1979, 2, 701.

6

ESPAINIAKO ERREGE-ETORTZEA

Euskaltzainburuaren hitzak:

Errege: Euskal Herrira zatozen orduan ongi etorririk amultsuena opa dizut. Bai zuri, eta bai erreginari. Ongi etorria Euskaltzaindiaren izenean eta neure izenean. Euskaltzaindiak ez du sekula ahaztuko zer eta zenbat zor dizun. Zuri esker lortu zuen bere egitekoa egiteko hain beharrezko zuen legezko nortasuna. Zuk, erregetzan sartu bezain laster, eman zenigun onartze dekretua. Eskerrik asko, jauna. Gure nahia zen, zu buru zarelarik, batzar ospetsu bat egitea, agian Oñatiko Unibertsitatean, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntzarekin batean, sortu zen lekuan, zure aitona euskararen aldeko hitzaldi gogoangarri hura egindako toki berean; baina, besterik ezean, lañoki eta ahal dudan zintzotasunik jatorrenaz, gure esker ona agertu nahi dizut.

Gure nahia zen, era berean, Euskal Herrira etortzean, bakezko, zorionezko eta anaitasunezko giroa zuk hemen aurkitzea.

Zoritxarrez, ez da hala.

Lortuko ahal da lehenbailehen!

Hala izan dadin, geure otoitzak eta ahaleginak eskaintzen dizkizugu! Eskerrak, jauna, eta ongi etorria berriz ere!

Eta etorrera hau herri honen onerako izan dadila!

* * *

Majestad: ¡bienvenido seáis al País Vasco, lo mismo que la reina! Quiero dirigiros un afectuoso y cordial saludo en nombre de la Real Academia de la Lengua Vasca y en el mío. Euskaltzaindia no podrá echar nunca en olvido lo que os debe. Gracias a vos consiguió el reconocimiento legal que tan necesario le era para cumplir con su misión. Nada más inaugurar vuestro reinado, tuvisteis a bien otorgar el decreto de reconocimiento de la Academia. Gracias, señor. Nuestro deseo hubiera sido celebrar bajo vuestra presidencia una sesión solemne, tal vez en el marco de la Universidad de Oñate, donde nació esta Academia, como también la Sociedad de Estudios Vascos, con ocasión de un histórico congreso inaugurado por vuestro augusto abuelo con un discurso en el que, por cierto, animaba a los vascos a que trabajasen por la conservación y el cultivo del viejo euskara; y aunque no haya sido posible tal acto, con toda sencillez, pero eso sí, de corazón, queremos expresarles nuestro reconocimiento.

Nuestro deseo hubiera sido, asimismo, que al venir a Euskal Herria, hallaseis aquí un ambiente entrañable de paz, cordialidad y bienandanza. Desgraciadamente no es este el caso. ¡Ojalá cuanto antes se logre este anhelo! Para que así sea le prometemos nuestras oraciones y empeños. Gracias, señor, y que vuestra estancia en el país os sirva para mejor comprender la situación y arbitrar los oportunos remedios.

*Fr. Luis Villasante,
euskaltzainburua*

Azkoitian, 1981eko otsailaren 4an.

Euskera, XXVI, 1981, 2, 915-916.

7.a

EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA

Euskaltzaindiak hurrengo adierazpen hau egin nahi du «Proyecto de Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra» dela eta.

Aurretiaz azaldu nahi du, erakunde politikoa ez denez, ezin dela hasi proiektuari inolako gogoramen orokorrik egiten, Konstituzioari egin ez zion modura, salbu 3. artikuluari, berau Espainiako hizkuntzez ari baita. Aldi berean gogoratu nahi du, 1979ko maiatzaren 25ean, Iruñean ospaturiko batzarrean onartu zuen akordioa. Geroago aipatu akordioa, Nafarroan euskararen estatus delakoa berretsi egin zuen bilkura publikoan eta orduko Foru Aldundi Goreneko burua zen Jaime Ignacio del Burgo jauna bertan zelarik eta baita Malon eta Garcia de Dios jaun diputatuak ere.

Hau dela eta, 573/1976 E. D. delakoaren 1. artikulua eta erantsitako estatutuen 1. f) artikulua babespean zera *kontuan hartzen* du alegia, lege proiektuaren 9. artikulua euskarari diskriminaziozko tratamendua ematen diola, zeren bertan, bakarrik, egun Erresuma Zaharrean euskaraz hitz egiten den tokietan ofizialtasuna aitortzen dio, euskararen atzerakuntzarako oraintsu eta iragan mendean emandako arrazoi historikoak kontuan izan gabe; euskarak bizirik dirau erdal eremuetan hiztegi, esaldi eta, batez ere, toponimia-eremuan; eta oro har, Nafarroako herriaren kontzientzia eta oroipen kolektiboan dirau, eta azken batez ondare orokorra euskaraz hitz egiten den eremua, mugatu ezin dena.

Kexa bizi-bizia azaldu nahi du hizkuntza biziari emandako tratamendurengatik, hau da, Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 6. artikulua eta Valentziako Autonomia Erkidegoaren Estatutuko 7. artikulua eskaintzen zaiena baino ahulagoa baita. Aipaturiko erkidego biok Nafarroak daukan egoera berbera daukate linguistika eremuaren desberdintzapenez, bai historia alorrean eta bai egungo egoeraz. Baina hizkuntza bie dagokien ofizialtasuna ez da aurretiazko jiteaz murrizten.

Honengatik guztionengatik eta uzaileko bilkura arruntean, Nafarroako euskal idazle baten bigarren mendeurrena dela eta, berau mintzairaz Nafarroa Garaikoa eta idazlearen sorterrian ospaturik. Hau dela eta, ezin du isilarazi daukan kezka bizia, datorren foru legeak 9. artikulua garatuko duen itxaropenaz, beronek arazo hau behar den eran bideratuko duelakotan gure instituzioaren iritzia jasorik eta baita Nafarroa mailan eragina daukaten beste erakundeena ere. Euskaltzaindia aholkatze tekniko eta zientifikoa eskaintzeko prest legoke beronekin legegileei laguntza emanez.

Azkenez, Euskaltzaindiak zera nabarmendu nahi du, hots, bai lege proiektu hau eta bai eman ahal diren beste zenbaitzuk hala Gorte Nagusietan nola erkidego politikoei dagokienetan, euskara negatiboki jotzen duenean —berau Mendebal Europako hizkuntza zaharrena delarik— adi izango dela eta ahaleginak eginen dituela jagoten bizirik iraun dezan, birkortzen eta garapen eskubideetan galtzaile ez irteteko.

Oiartzunen, 1982ko uztailaren 17an.

Euskera, XXVIII, 1983, 1, 137-138.

7.b

DECLARACIÓN DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA

La RALV/Euskaltzaindia, desea hacer la siguiente declaración en relación, sobre todo, con el artículo 9.º del «Proyecto de Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra».

Previamente ha de subrayar que, no siendo una institución de carácter político, no puede entrar en ninguna otra consideración de tipo general al proyecto, como no lo hizo a la Constitución, excepto el artículo 3.º, que trata de las lenguas españolas. Asimismo, ha de recordar el acuerdo adoptado en sesión académica celebrada en Pamplona, el 25 de mayo de 1979, ratificada momentos más tarde en la sesión/acto público, en presencia del entonces presidente de la Excma. Diputación Foral D. Jaime Ignacio del Burgo y los diputados forales Sr. Malón y García de Dios, sobre el estatus del euskara en Navarra.

Por lo tanto, y al amparo del artículo 1.º del R. D. 573/1976 y artículo 1.º f) de sus estatutos anexos, considera que el artículo 9 del proyecto de ley mencionado da un tratamiento discriminatorio al vascuence o euskara, ya que restringe su oficialidad a zonas-reserva de territorios hoy vascoparlantes del antiguo Reino, sin tener en cuenta las causas históricas y de otro tipo de su retroceso reciente y del pasado siglo; de que la lengua pervive en zonas castellanizadas en vocabulario, modismos y no digamos en toponimia; que está presente en la conciencia y memoria colectivas del pueblo navarro en todo su conjunto, y que, en definitiva, en su consideración de un patrimonio general, no restringible a su ámbito vascófono presente.

Lamenta vivamente que el tratamiento dado al uso de las dos lenguas, sea inferior al que se le da en el artículo 6.º del Estatuto de Autonomía del País Vasco y el artículo 7.º del Estatuto de Autonomía de la Comunidad Valenciana, comunidades políticas ambas que tienen idéntica situación a Navarra, en lo que respecta a diferenciación de zonas lingüísticas, tanto históricas como actuales, pero donde la oficialidad de las dos lenguas respectivas, no se restringe con carácter previo.

Por todo ello, y en su sesión ordinaria de julio, con motivo del bicentenario de un escritor en euskara navarro, celebrada en su localidad natal de habla alto navarro, no puede por menos de mostrar su grave preocupación, esperando en todo caso que la futura ley foral que desarrolle el artículo 9.º reconduzca debidamente el tema, oyendo a esta corporación académica, como a otras instituciones con ámbito de actuación en Navarra, ofreciéndose para un asesoramiento técnico y científico, que ayude a los legisladores en esta materia.

Finalmente, esta Real Academia de la Lengua/Euskaltzaindia, hace patente que tanto en este proyecto de ley, como en otros que puedan darse, tanto en las Cortes Generales, como en las comunidades políticas correspondientes, y que afecten negativamente al euskara, la lengua más antigua de Europa Occidental, estará atenta y tratará de velar por sus derechos de mantenerse viva, en recuperación y desarrollo.

Oiartzun, 17 de julio de 1982.

Euskera, XXVIII, 1983, 1, 139-140.

8
EUSKALTZAINDIAK FELIPE GONZÁLEZ MÁRQUEZ,
ESPAINIAKO GOBERNU BURUARI *EUSKARAREN*
NORMALIZAZIO LEGEAZ

Sr. D. Felipe González Márquez,
Presidente del Gobierno
Madrid

Excelentísimo señor:

La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia —institución encargada de velar por esta lengua—, reunida en el día de hoy en sesión ordinaria en el palacio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, ha acordado dirigirse a V. E. con el mayor respeto para manifestarle su grave preocupación por las consecuencias que pudiera traer una posible derogación de la «Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera», aprobada por el Parlamento del País Vasco el 24 de noviembre de 1982.

No es nuestro propósito, ni de nuestra incumbencia, el entrar en disquisiciones técnico-jurídicas ni en dimes y diretes sobre derechos, agravios y competencias. Bien conocemos el antiguo adagio *summum jus summa injuria*. Tampoco es propio de esta institución organizar manifestaciones de protesta ni tomar parte en ellas. Bien sobrado anda de todo esto nuestro asenderado país.

Únicamente queremos manifestarle nuestra honda preocupación ante el temor de que la cuestión del vascuence se convierta en arma arrojadiza en manos de unos partidos o grupos en contra de otros, lo que no serviría en definitiva más que para acentuar aún más la división y para convertir algo que es de todos en monopolio de parte. Ello no beneficiaría en modo alguno a la lengua vasca ni a la convivencia ciudadana.

4. Euskaltzaindia, como institución consultiva oficial en materia de euskera, reconocida por la Ley del Vascuence citada, reitera su disposición a colaborar con el Gobierno de Navarra desde la perspectiva de una relación entre ambas instituciones, que permita el cultivo y desarrollo del euskera con el rango que le corresponde como lengua propia de la Comunidad Foral de Navarra.

5. Con arreglo a las consideraciones anteriores, Euskaltzaindia formula esta explicación de su voto negativo al decreto foral propuesto y solicita se incorpore este escrito al acta de esta reunión.

Jean Haritschelhar Duhalde

Andres Iñigo Ariztegi

Pamplona, 30 de octubre de 2002.

Euskera, XLVIII, 2003, 1, 346-348.

32.a

EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA EGUNKARIAREN IXTEAREN GAINEAN

Euskaltzaindiak, Hernanin bildurik, *Euskaldunon Egunkariaren* ixtea aztertu du, besteak beste, eta honako adierazpen hau aho batez onartu:

Euskaldunok euskaraz dugun egunkari bakarra epaile-aginduz itxi izanak eta horren inguruan atxiloturiko pertsonak aspaldidanik euskara eta euskal kulturaren alde lan handia egindakoak izateak, horietako bat, Joan Mari Torrealdai euskaltzain urgazlea izanik, harriduraz bete du Euskaltzaindia, eta gertakari hauengatik bere kezka larria adierazi nahi du. Orobat, Martin Ugalde jaun euskaltzain ohorezkoaren egoeragatik.

Euskaltzaindiak, beti egin duen bezala, oraingoan ere argi utzi nahi du euskara eta euskal kultura gure gizarte osoaren ondareak direla, inolako ideologia bereizketarik gabe. Horren ondorioz, instituzio honek, Zuzenbideko Estatuaren egoera aintzat hartuta, ezin onartuzkotzat jotzen du, gertakari hauen aitzakiaz, zenbaitzuek gure hizkuntza eta kultura terrorismoarekin elkartzeko darabilten bidegabeko interesa.

Adierazpen honen ale bana helaraziko zaie berehala agintariei, bai eta komunikabide guztiei ere, jendarteaz ezaguna izan dadin.

Hernanin, 2003ko otsailaren 28an.

Euskera, XLVIII, 2003, 1, 257.

32.b
**DECLARACIÓN DE EUSKALTZAINDIA/REAL ACADEMIA
DE LA LENGUA VASCA ACERCA DEL CIERRE DE
EGUNKARIA**

Euskaltzaindia, en su sesión plenaria celebrada en la casa consistorial de Hernani, ha debatido, entre otros, el tema del cierre del diario *Euskaldunon Egunkaria*, habiendo acordado, por unanimidad, la siguiente declaración:

El cierre por orden judicial del único diario existente en lengua vasca con que cuenta la comunidad vascohablante, así como la detención de personas que llevan realizando una labor relevante en favor de nuestra lengua y cultura, entre las que se encuentra el miembro correspondiente de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, don Joan Mari Torrealdai, ha producido una honda preocupación en el seno de Euskaltzaindia, juntamente con la situación de uno de sus académicos honorarios, don Martín Ugalde.

La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, como siempre lo ha hecho, desea expresar nuevamente su convicción de que tanto el euskara como la cultura vasca son patrimonio de toda nuestra sociedad, sin distinción de ideología alguna. De igual forma, esta institución, desde su perspectiva de respeto por el Estado de Derecho, considera inaceptable la manipulación de estos hechos por parte de algunas personas interesadas en presentar nuestra lengua y nuestra cultura en relación con actividades terroristas, que le son absolutamente ajenas.

Esta declaración será enviada de inmediato a los poderes públicos, así como a los medios de comunicación, para su general conocimiento.

Hernani, 28 de febrero de 2003.

Euskera, 48, XLVIII, 1, 258.

ADIERAZPENA EUSKALKIEN ERABILERAZ, IRAKASKUNTZAN, KOMUNIKABIDEETAN ETA ADMINISTRAZIOAN

Aurrekariak

“Euskalkiak baino lehen, hor da euskara”. Adierazpen hori Euskaltzaindiak egina da, 1979an, “Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak” izeneko agirian (ikus *Euskera*, XXIV. liburukia 1979-1, 103-106. or.). Agiri horretantxe datoz ondorengo xehetasunok ere:

“Euskaltzaindiak uste du, eta hori ez da uste hutsa, zehazki froga daitekeen iritzia baizik, badela oraindik, lehen ere izan den bezalaxe, euskara bakar bat euskalkien ñabardurak estaltzen eta itxuraldatzen ez duena. Euskalkien eta tokian tokiko hizkeren arteko bereizkuntzak, egungo egunean ere, axaleko itxuraldatzeak dira batik bat, hizkuntzaren muin sakona bere iraunkor hartan uzten dutenak. Hizkuntzaren oinarri batu hori, eta oinarri horren egitura (euskalki guztien egitura komuna) dira beti gogoan eduki behar ditugunak, gure ahaleginak euskararen batera-biderako, eta ez berezirik daudenen sakabanatzeko, izan daitezten”.

Horretarako, “euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du Euskaltzaindiak, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz”.

Bergarako Biltzarreko adierazpenean ere horixe bera aldarrikatu zuen Euskaltzaindiak, eta salatu egin zituen, gainera, auzi honetan kaltegarri gertatzen diren bi jokaerak: batetik, euskarazko hizkuntza-agerpen guztiak baztertzea, besterik gabe, agerpen horietan euskalkiak erabiltzen direlako; bestetik, euskalkia erabiltzeko aitzakiarekin, badaezpadako euskara erabiltzea, Euskaltzaindiak zehazten dituen arau eta gomendioetatik guztiz aldentuta.

Bigarren jokaera kaltegarri hori saihesteko, euskalkiak erabiltzerakoan nahitaez bete beharreko baldintza bi ezarri zituen Euskaltzaindiak 1979an (ikus “Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak”):

- a) Idatzian, ortografia bakarra onartuko da batuan nahiz euskalkietan; izan ere, euskara hizkuntza bakarra baita, ez hizkuntza asko. Horregatik, Euskaltzaindiak ortografiaren batasunerako eskaini dituen erabaki eta proposamen guzti-guztiak bete behar dira euskalkietan idaztean ere.
- b) Idatziz nahiz ahoz, hizkuntzaren azpiegituraren arabera (euskararen oinarri bakarraren arabera) jardun behar da beti. Euskararen muin horri dagozkio deklinabide mugagabea, “-a” organikoak bukatutako hitzak, euskalki guztietan legezko den aditz-jokoa, euskal hitzurrena eta abar.

Harrezkero, garatu egin zen euskararen estatusa, hizkuntza ofiziala izateraino (gaztelaniarekin batera) Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean, eta

hamaika esparrutara zabaldu zen euskara: hala nola administrazio publikora, hezkuntzara eta komunikabideetara. Egoera berri haren aurrean, Euskaltzaindiak, euskalkien erabilera eguneratu eta sistematizatu beharrez, beste adierazpen bat egin zuen 1994an, “Euskalkien erabilera Administrazioako 1. eta 2. hizkuntza-eskakizunetan” izeneko agirian (ikus *Eusker*a, 1995, 2-3, 40. liburukia, 1019-1024. or.). Bertan, “Eranskina” delako atalean ageri denez, honako irizpide orokor hauek finkatu eta proposatu zituen Euskaltzaindiak, euskalkian idazten denerako:

1. Ahozkoan eta lagunarteko hizketan ohikoak diren laburtzapenak gaitzetsi egin zituen.
2. Tokian tokiko fonetismo bereziak gaitzetsi egin zituen.
3. Euskalkian forma bi edo gehiago erabiltzen direnean, batuarekin bat datorrena hobetsi zuen.
4. Batasunerako erabaki den deklinabidea nahitaezkozat jo zuen, baina bizkaierazko zenbait forma berezi ere ontzat emanez.
5. Batasunerako erabaki den aditz-jokoa nahitaezkozat jo zuen, baina euskalkiko forma batutzat har daitezkeenak ere ontzat emanez.
6. Euskara batuko eta euskalkietako sintaxi-zuzentasuna bat bera dela aitortu zuen.
7. Morfologian, hitzen forma dialektal tradiziodunak ere (*bakotxa, barri, burruka, edur, elixa, parkatu...*) ontzat eman zituen.

Agiri horretan, gainera, Euskaltzaindia kezkaturik azaldu zen Administrazioako 1. hizkuntza-eskakizuneko azterketetan garrantzi eta pisu handiegia ematen zitzaiolako idatzizko probari, ahozko trebetasunaren kaltean.

Zioen azalpena

Euskaltzaindiak jakin badaki bere proposamenak ez direla inola ere debeku moduan hartu behar, ezta hurrik eman ere. Hala ere, hiztun batzuek, noizean behin eta okerretara, baztertuta ikusten dute euren burua, bizi duten euskalkia euskara batutik urrun dagoelako; baina ez dute bazterturik sentitu behar. Euskaltzaindiak, behintzat, ez du horrelako bazterkeriarik nahi; baizik eta nahi du euskaldun bakoitzak bere euskararekin bat egitea eta, era berean, euskara batuarekin bat egitea, batua harturik goi-mailako erregistrotzat gainerako euskaldun guztiekin harremanak izateko.

Euskalkia eta batua elkarrekin uztartu beharrak sortzen dituen arazoen konponbideak era askotakoak izan daitezke, eta konponbideok kasuan-kasuan egokitu behar zaizkio aldiaren aldiko komunikazio-egoerari; betiere batasunari eutsiz eta euskal hiztunen bazterketa gutxietsiz. Egoerak ere desberdinak dira, lurraldearen arabera eta euskalkien arabera. Horregatik, tentuz jokatu behar da gomendio orokorrak ezartzeko orduan, kasuan kasuko egoera bereziak alde batera utzita.

Azken aldiaren, euskalkien erabilera lehengoaz gain eguneratu eta sistematizatu beharrez, Euskalkien lantaldea eratu zuen Euskaltzaindiak Jagon Sailaren baitan, bertara bilduz lurralde nahiz euskalki anitzetako ordezkariak. Lantalde horrek bi galdeketa egin zituen 2001ean: bata, Bizkaiko administrazioan bizkaierak duen erabilera; bigarrena, Nafarroan (irakaskuntzan, administrazioan, herri-aldizkarietan...) euskalkiek duten lekuaz. Datu horiek eta beste bildu eta aztertu ondoren, eta bereziki Euskaltzaindiaren XV. Biltzarrean, Bilboko Euskalduna jauregian, egin zuen mahai-inguru jendetsuan hala agindurik, gaiari buruzko proposamen-zirriborro bateratua moldatu zuen Euskalkien lantaldeak; baita proposamen-zirriborro hori Jagon sailkideei eta Euskaltzainditik kanpoko ordezkariari eta adituei aurkeztu eta berorien oharrez osatu ere, gai

korapilatsu honetan ahalik eta adostasunik handiena lortuz euskaltzain osoei aurkeztu aurretik. Hala gertatu da, eta euskaltzain osoek, testua eztabaidatu ondoren, adierazpen hau onetsi dute:

1. *Adierazpena*

Adierazpen honen xedea da euskara baturako eta euskalkietarako esparru eta joko-arau zehatzagoak ezartzea edo berrezartzea; horien bitartez euskaldun guztiok eroso eta eraz ari gaitezen egunero euskara erabiltzen dugunean. Horretarako, oinarritzko lau abiaburu hauek proposatzen dira:

1.1. Begirunea izatea

Euskaraz mintzo diren hiztunen egoera desberdinei begirunea zor zaie, hiztun horiek euskalkiak erabili nahiz euskara batua erabili. Hortaz, hiztunen artean ez da bereizkeriarik egin behar euren jatorrizko hizkuntzaren ondorioz, euskalkiaren ondorioz edota zuzenean euskara batua ikasi izanaren ondorioz.

1.2. Elkarren osagarri izatea

Euskara batuko eta euskalkietako adierazpideek, idatzizkoek nahiz hitzezkoek, elkarren aberasgarri izan behar dute: zehatzago esanda, euskalkietako formek berezko bide izan behar dute euskara batuko formetara heltzeko. Besteak beste, hiztegian, sintaxian eta esapideen arloan, euskara batua eta euskalkiak ukipenean daude, bi errealitate horiek bizi-bizikiak direla.

1.3. Forma egokiak erabiltzea

Euskalkia erabiltzean, egoera eta eremua kontuan hartuta aukeratu behar dira formarik egokienak: eremu zabalerako, euskara batutik hurbil dauden formak, eta eremu mugatuagoetan, bertakoak ere bai.

1.4. Arauak eta gomendioak betetzea

Euskalkien erabilerari buruzko Euskaltzaindiaren arauak eta gomendioak bete beharrekoak dira; eta bereziki, lehenago aipatutako 1979ko bi baldintzak eta 1994ko zazpi proposamenak.

Bestalde, euskalkien alorrez alorreko erabileran, oso kontuan hartzekoak dira ondorengo irizpideok:

2. **Administrazioan**

Hedaduraren arabera, hiru administrazio publiko mota dauzkagu Euskal Herrian: orokorra, lurraldekakoa eta tokian tokikoa; eta bakoitzaren jardun-esparruak bere hizkuntza-eremu bereziak ditu. Horiek horrela, eta Administrazioaren eginkizunik behinena herritarrei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzea izanik:

2.1. Euskara idatziari dagokionez, administrazio orokorrean euskara batua erabiliko da.

2.2. Lurralde mailan diharduten administrazioek aintzat hartuko dituzte bertako euskalkiak; betiere administrazioko lexikoaren eta terminologiaren batasuna begiratuaz, erabilera orokorreko hitzen ordeak asmatzen ibili gabe.

2.3. Bidezkoa da tokian tokiko administrazioek bertako euskalkia erabiltzea herritarrekiko harremanetan, batik bat ahozkoetan.

2.4. Herritarrekin ahozko harreman zuzena duten administrazioetako langileek tokian tokiko euskalkiaren oinarrizko ezagutza behar dute.

3. Komunikabideetan

Hedaduraren arabera, bi komunikabide mota dauzkagu nagusiki Euskal Herrian: orokorrak eta eskualde edota herri mailakoak; eta, horietako bakoitzaren jardun-esparruak bere hizkuntza-eremu bereziak ditu. Hedabidearen arabera, berriz, baditugu ahozkoak, idatzizkoak eta ikus-entzunezkoak. Horiek horrela, eta komunikabideen eginkizunik behinena herritarrekin ahalik eta komunikaziorik egokiena lortzea izanik:

3.1 Hedadura orokorrezko komunikabideek euskara batua erabiliko dute.

3.2. Eskualde edota herri mailako komunikabideek euskara batua eta euskalkia erabil ditzakete: biak batera; baina ez elkarrekin nahasiz, baizik atalez atal bereiziz. Hedaduraren eta hedabidearen arabera erabakiko dute kazetariak-eta zein ataletan, non eta noiz erabili euskara batua eta zeinetan, non eta noiz euskalkia.

3.3. Euskalkia erabiliz jardun behar duten kazetariak-eta aski landua behar dute izan hartarako gaitasuna, ahozkoa nahiz idatzizkoa, euskalkiaren duintasunaren hobe beharrez. Lanean, bereziki gogoan izan bezate Euskaltzaindiak gaitzetsi egiten dituela ahozkoan eta lagunarteko hizketan ohikoak diren laburtzapenak eta tokian tokiko fonetismo bereziak.

3.4. Hizkuntza-erregistroa hautatzerakoan, kazetariak-eta erabakiko dute zein ataletan, non eta noiz erabili euskara landua (batua nahiz euskalkia) eta zeinetan, non eta noiz lagunartekoa.

4. Irakaskuntzan

Hezkuntzan, gutxienez, erregistro biren erabilerak behar du lekua: lagunartekoak eta landuak (eskolari zuzen-zuzenean dagokionak), betiere gogoan izanik ahozkoaren eta idatziaren arteko bereizketa. Izan ere, hezkuntzaren zereginik behinenetariko bat ikasleei hizkuntzaren erabileran ahalik eta trebetasunik handiena ematea da: hizkuntza aberatsa eta egoeraren araberrakoa. Horiek horrela, ondorengo urrats hauek izan beharko lirateke kontuan:

4.1. Euskalkiek euren nortasuna dute, eta hezkuntzan jagon egin behar dira euren osagai esanguratsuak nahiz hizkuntzan betetzen duten funtzioa, betiere idatzizkoaren eta ahozkoaren arteko desberdintasuna kontuan hartuz eta batasunerako arauak betez.

4.2. Lagunarteko hizkera —gehientsuenean behinik behin—, euskalkian edo azpieuskalkian oinarritzen dela gogoratu behar da; eta landua, ostera, euskara batuan edo euskalkiaren erabilera landuan. Horrenbestez, hezkuntza-komunitateak, egoeraren arabera, beharko du bideratu hezkuntza-prozesu bakoitzari dagokion erregistroa, batez ere lexikoan eta esapideetan.

4.3. Irakasleak hezkuntza-jardunean aritzeko gomendagarria da hizkera landuaren eta lagunartekoaren jakitun egotea. Horrela, lagundu ahal izango dio ikasleari hizkuntzaren erregistroen erabilera-esparruetan. Horretarako ere, ezinbestekoa da irakasleen berariazko trebakuntza.

4.4. Umeei dagokienez, Euskal Herriko haurren jatorrizko hizkuntza aintzat hartuta —betiere helburua euskaldun osoak sortzea izanik—, metodoaren aldetik, hots, ikasgela eta ikasmultzo berean jardunik, guztiz mesedegarria da haurren hizkuntza-gaitasunaren araberrako jardunbideak lantzea.

4.5. Helduei dagokienez, euskalduntzea eta alfabetatzea bereizi beharko lirateke; lehen kasuan, euskalduntzean, zerotik abiatzen delako ikasprozesua eta, bigarren kasuan, alfabetatzean, ikasleak dakienetik ez dakienera delako ikasprozesua.

5. *Adierazpen* hau garatzeko, Euskaltzaindiak alorrez alorreko gomendioak eta irizpenak emango ditu.

Lezamako Udaletxean, 2004ko martxoaren 26an, berretsia.

Euskera, 49, 2004, 1, 426-429.

34.a

“EUSKAL HERRIA IZENA” 139. ARAUAREN GAINEAN

Euskaltzaindiak 2004ko uztailaren 23an “*Euskal Herria izena*” titulua duen 139. araua onartu zuen eta, ondoren, argitara eman (*Euskera*, XLIX, 2004, 1, 466-470 or.). Arau honek, gainerako guztiek bezala, azalpen testu bat darama aurretik.

2004. urteaz geroztik egindako zenbait ikerketa eta lanek aukera eman dute informazio gehigarria lortzeko, bai eta daturen bat zehatzago adierazteko ere. Horren ondorioz, Euskaltzaindiari bidezko iruditu zitzaion orduko azalpen testu hura egokitzea, ez araua bera. Hori dela eta, 2016ko urtarrilaren 29an Donostian egindako Osoko bilkuran onartu zuen 139. arauari dagokion azalpen testu eguneratua eta, horrekin batera, arauaren testu osoa argitara eman zuen, ohi bezala, euskaraz.

Aldi berean, hainbat herritar, elkarte zein erakunderen eskaerak kontuan hartuz, Euskaltzaindiak erabaki zuen bere webgunean gaztelaniaz eta frantsesez ere argitaratzea.

Izan duen oihartzuna ikusita, Euskaltzaindiari egoki iruditu zaio araua eta bere azalpen testu eguneratuaren euskarazko idatzaldia *Euskera* agerkarian argitaratzea eta, aldi berean, adieraztea arau horren gaztelaniazko eta frantsesezko itzulpenak Akademiaren webgunean kontsultagai daudela.

Euskera, 49, 2004, 1, 466-470.

Euskera, 61, 2016, 1, 200-209.

(Euskaltzaindiaren webgunean)

*Euskal Herria izena*⁴⁴

Aspaldiko mendeetatik hedatua izan da *Euskal Herria* izena, kultura ezaugarri aski jakinak dituen herrialdea adierazteko, politika eta administrazio mugen nahiz ezberdintasun historikoen gainetik erabilia.

Izen hori *euskara + herri* hitzetatik sortua da, hots, ‘euskararen herria’. *Euskal* forma hori ohikoa da hitz elkartuetan, cf. *aizkora*, baina *aizkolapustu*; *gari*, baina *galburu*, etab.

Letra xehez ageri da maiz testuetan, adibideetan ikusiko denez, bai eta pluralean ere. Bi kasuetan garbi erakusten da jatorrizko esanahia: *euskal herria(k)*, hots, ‘euskararen lurraldea(k)’.

Euskal Herriaren erabilera orokor honen lehen lekukotasun argitaratua Joanes Leizarragaren lanak jasotzen du. Lapurdiko apaiz higanot honek, 1571n plazaratu *Testamentu Berriaren* eta beste zenbait testuren itzultzaileak, honela zioen, irakurle guztiak aise ulertzeko moduko hizkera aurkitzeko zailtasunaz:

“... bat bederac daqui heuscal herrian quasi etche batetic bercera-ere minçatzeco manerán cer differentiá eta diuersitatea den”.⁴⁵

Eta izena, marra batekin, beste bi aldiz darabil Leizarragak *ABC edo christinoen instructionea*... liburuxkan, urte berekoan. Hitzaurrearen titulua honako hau da:

“Heuscal-herrian gatzetassunaren iracasteco carguã dutenér eta goitico guciér, I. Leizarraga Berascoizcoac laincoaren gratia desiratzen”.

Testu barrenean, berriz, hau irakurtzen dugu:

“Eta minçatzeco maneraz den beçembatean, Heuscal-herrian religionearen exercitioa den lekuco gendetara consideratione guehiago vkan dut, ecen ez bercetara”.⁴⁶

Mende horretan edo hurrengoaren hasiera-hasieran bada beste lekukotasunik, Joan Perez de Lazarraga arabarrak idatzitako eskuizkribuetako batean, hain zuzen ere. Bertan hirutan aurkitzen da *eusquel erria*:

“beti çagie laudatu
çegaiti doçun eusquel erria
aynbat bentajaz dotadu”. (18. or.)

“çegayti eusquel errian dira
ederr guztioç dotadu”. (18. or. atz.)

“çeñetan ditut eçautu
euquel erriau oy nola eben
erregue batec pobladu”. (18. or. atz.)

⁴⁴ Arau honen azalpen testua, ez araua bera, eguneratu du Euskaltzaindiak Donostian, 2016ko urtarrilaren 29an, egindako Osoko bilkuran.

⁴⁵ Pasarte hau “Heuscalduney” izenaz irakurleentzako hitzaurrean ageri da, Joana Nafarroako erreginari bidali gutun elebidunaren ondoan (euskaraz eta frantsesez). Ez du orrialde-zenbakirik. Bai, ordea, Euskaltzaindiak egindako facsimile edizioan, Bilbo 1990, Hugo Schuchardtek eta Theodor Linschmannek 1900ean Estrasburgon argitaratu *I. Leizarragas baskische Bücher von 1571* liburutik abiatua; hor 254. orrialdean aurkitzen da.

⁴⁶ Ibidem, 1393. eta 1394. orrialdeetan, hurrenez hurren.

Pedro Axular idazle nafarrak ere darabil izen hori, 1643ko *Gero* aszetika liburuan. Irakurleari zuzenduriko hitzaurrean, Leizarragak aipatutako mintzatzeko manieraz ari delarik, honela dio:

“Badaquit halaber ecin heda naitequeyela euscarazco minçatce molde guztietara. Ceren anhitz moldez eta differentqui minçatcen baitira euscal herrian, Naffarroa garayan, Naffarroa beherean, Çuberoan, Lappurdin, Bizcayan, Guipuzcoan, Alaba-herrian eta bertce anhitz leccutan”.⁴⁷

Tartasek, orobat, erabiltzen du izena *Onsa hilceco bidia* (1666) liburuan. Hartaz ari dela, honako hau dio:

“ibilico da buria gora euscal herri orotan”.⁴⁸

Manuel Larramendi gipuzkoarrak 1745ean argitara emandako hiztegian honako hau dio:

“Al Bascongado generalmente llamamos, *Euscalduna*, y a todo los paises en que se habla el Bascuence, *Euscalerria*. Ni con estos nombres se expresa mas un Dialecto que otro, ni una Provincia mas que otra, sino generalmente nuestra Lengua, y los paises en que se habla”.⁴⁹

Letra xehez idatziak dira adibide horiek oro. Ohitura horren beste adibide asko eman daitezke. Jose Paulo Ulibarriren (1775-1847) *Gutunliburua* eskuizkribuan, gutxienez, 1823an datatutako bi gutunetan jasotzen du:

“... etorri cen euscal errira”.⁵⁰

Eta egileak pluralean darabil bizpahiru aldiz izena.

“... egun zariyetan sermoyac euskal erriyen eta uritan”.⁵¹

Bada beste lekukotasunik ere XIX. mende honetan. *Euskal Herria* izena (grafia batzuekin), zazpi herrialdeak izendatzeko, behin eta berriz edireten da, adibidez, Laphitzen *Bi saindu hescualdunen bizia* (1867) liburuan. San Ignazioz hau idatzi zuen:

“oinez abiatu zen Hescual herrirat”.⁵²

Ildo beretik Gratien Adema, “Zaldubi” (1828-1907) apaiz lapurtarraren “Gauden gu eskualdun” (1893) eta 1882an Donibane Lohizunen ospatutako euskal festetan aurrenekoz kantatu zen “Eskualdunak” bertsoetan tradiziozko zazpi probintziak azaltzen dira. Dakusagun, esaterako, bigarrenaren atal hau:

⁴⁷ *Guero*, Bordele 1643, 17. or. Ikus, halaber, Euskaltzaindiak 1988an Bilbon plazaraturiko facsimile edizioa.

⁴⁸ Juan de Tartas: *Onsa hilceco bidia*. Ortheze 1666. Facsimile edizioa, Julio Urquijoren ardurapean, *Revista Internacional de Estudios Vascos* 1, 1907, 27-30, 185-199. or.; 2, 1908, 569-581. or., eta 3, 1909, 561-636. or. Aipatu dugun adibidea hitzaurreari dagokio, “Gomendiosco lettra” deituari, aldizkari horretan, 1, 1907, 28. or.

⁴⁹ *Diccionario trilingue del castellano, bascuence y latin*. Donostia 1745. Facsimile argitalpena, Txertoa, Donostia 1984. Pasarte hori 1. liburukiaren xxxij orrialdean dago.

⁵⁰ *Gutunliburua*. Arabako Aldundia, Gasteiz 1975, 16. or.

⁵¹ *Ibid.*, 9. or. (gogora bedi *egun zari*, *eguzari* ‘jaia’ dela).

⁵² Francisco Laphitz: *Bi saindu hescualdunen bizia: san Iñazio Loiolacoarena eta san Francisco Zabierecoarena*. Baiona 1867. Adibidea 140. orrialdean aurkitzen da.

“Lapurdi, Nabarre ‘ta Zuberu,
Eskualherriak Frantzian;
Bizkai, Gipuzko, Alaba, Nabarro,
berdin dire Espainian”.⁵³

Are gehiago, denboraren joanean *Euskal Herria* izena gaztelaniara eta frantsesera hedatu zen. Estatu arteko mugaz alde bateko eta besteko erakunde eta agerkari batzuek izen hori izan dute, esaterako: *Sociedad Euskalerría* elkarteak, XIX. mendearen azken herenean Jaurreriko diputatu nagusi izandako Fidel de Sagarmingak Bilbon fundatuak, eta *Euskal-Erria* aldizkariak, Jose Manterolak 1880an Donostian sortuak. Orobat Ameriketara: Los Angelesko *Californiako Eskual Herria* astekariak, 1893-1898; *La Platako Eskual Herria* astekariak, Buenos Airesen 1898an argitaratuak, edo Baionako *Eskual Herria* astekariak, 1898an sortuak. Geroago ere ohitura hori ez da eten. Besteak beste, Philippe Veyrinek, *Les Basques* bere liburu ospetsuan⁵⁴, *Eskual-Herri* darabil behin baino gehiagotan.

Euskal kantutegiak, halaber, ezin konta ahaleko aipamenak dakartza *Euskal Herria*-z. Besteak beste, Done Mikel Aralarkoaren herri kanta tradizionala dugu, errepika hau duena:

“Miguel, Miguel, Miguel guria,
Zaizu, zaizu Euskal Herria”.

Juan de Bera kaputxino nafarrak Oiartzunen predikatu zuen 1834an. Sermoiaren lehen bi orrialdeak euskaraz idatzi zituen, eta gainerako testua gaztelaniaz, eta Frantzisko Xabierkoaz ari zelarik, honela zioen:

“Jayo cela gure Españían, vskal Errián, Nafarruan”.⁵⁵

Euskal Herria eskuarki erabili izan da, bestalde, ideologia eta pentsamolde alor guztietan. Hona hemen adibide batzuk, ediren litezkeen ugarien artetik jasoak:

Salvador Castilla Alzugaray (Iruñea 1819 — Donostia 1884), errepublikazaleak, 1878ko uztailaren 15ean hitzaldi bat egin zuen Iruñean, Asociación Euskara de Navarraren batzar batean, eta han bilduei *Euskal-Erria* maitatzen jarrai zezaten eskatu.⁵⁶

Vianako semea zen Francisco Navarro Villoslada eleberrigileak (1818-1895), tradizionalistak, “De lo prehistórico en las Provincias Vascongadas” idazlanean (1877) honela dio:

“... pero ellos no se dan a sí propios ese apelativo, ni el de vascongados, ni otro más que el de *escualdunas* bajo cuya denominación comprenden a todo el que habla la lengua euscara, sea español o francés, llamando asimismo *escualherria*, literalmente tierra de *escualdunas*, a todas las provincias que hablan la lengua euscara y pueblan ambas

⁵³ Neurtitz hauek guztiok *Revista Internacional de Estudios Vascos* 3, 1909, 396. eta 399. orrialdeetan irakur daitezke. Ediziorik eskuragarriena, ordea, Alex Bengoetxearena dateke: *Kantikak eta neurtitzak*, Ediciones Mensajero-Gero, Donostia, 1991. Hemen aipaturiko pasarteak, 166. eta 177. orrialdeetan daude edizio horretan.

⁵⁴ 1. argitaraldia, Baiona 1943. 2. argitaraldia, Paris 1975.

⁵⁵ Patxi Ondarra: “Polikarpo Aitak zituen euskal esku-idatzi zaharren aurkezpena”. *Euskera* 26, 1981:2, 640. or. Ikus orobat egile beraren “España, País Vasco, Navarra”. *Diario de Navarra*, 2003ko otsailaren 2koa, 21. or.

⁵⁶ Angel García-Sanz Marcotegui: “Los liberales navarros ante la irrupción del euskismo”, Roldán Jimeno Arangurenen zuzendaritzapean agertu liburuan: *El euskera en tiempo de los éuskaros*. Nafarroako Gobernua-Nafarroako Ateneoa, Iruñea 2000, 145-218. or.; Salvador Castilla Alzugarayren aipua 152-153. orrialdeetan dator.

vertientes de los Pirineos occidentales: navarros, guipuzcoanos, alaveses y vizcaínos, españoles; suletinos y laburdinos, franceses”.⁵⁷

Letra xehez Azkueren hiztegian bertan (1905-1906) ikus daiteke izena. Hiztegiaren sarrerak letra larriz ezarri zituen egileak, baina bigarren aldaera letra xehez aurkitzen dugu:

“*Eskualerri* (B-1), *eskualherri* (L), país vasco, *pays basque*”.⁵⁸

Gaztelaniazko eta frantsesezko ordainak ere letra xehez ageri dira adibide horretan; ohitura hori oso zabaldurik egon da.

Román Zubiaga buruzagi karlista bizkaitarrak, orduan kadete zen Santiago Palaciorekin Gernikako Batzar Etxerako bisitan zihoala, honetara esan zion:

“... las tribus más celosas de su independencia refugiáronse en las montañas de aquende y allende el Pirineo, constituyendo la Euskalerría, es decir, el país de euscaldunac, de los que hablan el idioma éuskaro...”.⁵⁹

Iruñeko alaba zen Dolores Baleztena (1895-1989) idazle karlista nafarrak *Euskalerría* izena maiz erabiltzen du, adibidez, euskal zibilizazioari buruz ari denean:

“... la figura del bersolari, ese admirable bardo de la Euskalerría genuinamente popular, que con asombrosa agilidad de imaginación y habilidad en versificar, riñe torneos de ingenio discurriendo por los temas más dispares [...] Dignos discípulos del inmortal Iparraguirre, también voluntario de Carlos V, que con su voz arrebatadora, subyugaba auditorios de naciones extranjeras, cantando a la amacho maitia, al blanco querube de Euskalerría, a España, “lur oberikan ez da Europa Guziyan”, la tierra mejor cual no hay otra en Europa ...”.⁶⁰

Jesús Etayok 1921eko maiatzaren 17an *El Pensamiento Navarron* “Ante el cuarto centenario de la herida de Iñigo de Loyola” artikulua idatzi zuen. Besteak beste, honako hau irakur daiteke:

“... como vascos, porque, a pesar de la gran desviación histórica padecida por nuestra raza, Ignacio era vasco y todos los vascos somos participantes de las glorias de Euskalerría ...”.⁶¹

Honen kontura egoki datorke *Oriamendi* ere aipatzea, karlisten himnoa, honela baitio:

⁵⁷ Carlos Mata Induráin: “Amaya da asiera: la actitud de Navarro Villoslada ante el vascuence”, aurreko oharrean aipatu liburuan, 113-144. or. Pasarte hori 120. orrialdean dago.

⁵⁸ *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbo 1905-1906. Facsimile argitalpena, Euskaltzaindia, Bilbo 1984.

⁵⁹ José Javier López Antón: *Escritores carlistas en la cultura vasca*, Pamiela, Iruñea 2000, 134. or. Santiago M. Palaciok Zubiagaren ahotik entzundakoa *El batallón de Guernica* bere liburuan bildu zuen, Editorial Tradicionalista,artzelona 1917, 80. or.

⁶⁰ Dolores Baleztena Azcárate: *Saski naski de Leiza*. Nafarroako Foru Diputazioa, Iruñea 1976, 28. or. (“Temas de Cultura Popular” sailean 272. zenbakia du liburuxkak).

⁶¹ José Javier López Antónek aipatua: *Escritores carlistas en la cultura vasca*, 191. or.

“Gora Espainia eta Euskal Herria!

Ta bidezko errege.

Maite degu Euskal Herria,

Maite bere fuero zaharrak”.

Erabilera guztiz ohiko horren ispilua José María Iribarrenen *Vocabulario navarro* (1952) deritzon horretan ere ediren daiteke. Honela dio:

“*Euskalerría*: “Nombre que dan al País Vasco; es decir, a Vizcaya, Guipúzcoa, Alava y Navarra en España, y Laburdi, Benabarre y Zuberoa en el país vasco-francés”.⁶²

Ikusten ari garen kontzeptu hau gaztelaniaz eta frantsesez era batzuetara adierazi da: *Vasconia*, *País Vasco*, *País Vasco-Navarro*, *Vasconie*, *Pays Basque*. Azpimarratzekoa da *País Vasco* frantsesezko *Pays Basqueren* oihartzuna dela eta XIX. mendean zehar hedatu zela. Lehenago *Basque* forma hutsa erabiltzen zen frantsesez, substantibo gisa; esaterako, Jean Baptiste Nolin-en mapa famatuan (Paris 1704) *Mer de Basque* ikus daiteke, eta horren azpian *Tarbellicus sinus* latinezko ordaina.

Aipatuez gainera, bada liburu usaineko izen bat: *Euskaria*, eta hortik datoz *euskaro* eta *euskarien* adjektiboak. Hiru izenok, begi-bistakoa denez, hizkuntzaren izenetik datoz, hots, *euskaratik*. Gogora ditzagun, besteak beste, *Asociación Euskara de Navarra*, 1877an fundatua, eta beronek hurrengo urtean sortu zuen *Revista Euskara*.

XIX. mendea amaitu baino lehentxeago Sabino Arana Goirik (1865-1903) *Euskadi* izena sortu zuen, uste izanik *Euskal Herria* izenak ez zuela izaki politikorako balio. Horretarako, gorago aipatu dugun *Euskaria* eduki zuen gogoan, eta *-di* leku-atzizkia erantsi zion. Izen horrek —bere asmatzaileak aurrenik *s*-rekin idatzi (*Euskadi*) eta geroago *z*-rekin (*Euzkadi*) hobetsi zuenak— erabilera nabarmena izan du. Hala ere, haste-hastetik izen berri horrekin bat ez zetozen anitzen iritziak entzun ziren. Haien artetik Arturo Campión iruindar poligrafo eta historialaria nabarmendu zen. Gai horri buruz artikulua garratzak idatzi zituen, eta bereziki “Sobre el nuevo bautizo del País Basko” deritzona⁶³. Halako egitasmo politiko batengatik *Euskal Herria* ordezkatzeko saio horrek gorabehera sonatu batzuk ekarri zituen aldean, esaterako, 1918an, Eusko Ikaskuntzaren Oñatiko Lehen Biltzarraren hitzaldi batean, Resurrección M.^a Azkuek, hurrengo urtetik 1951n hil arte euskaltzainburua izango zenak, pairatu behar izan zuen zenbaiten protesta.

Urteak aurrera joan ahala, *Euskal Herria* izenak, bere adiera neutroarekin, iraun du, *Euskadiren* lehiakidetzan izan arren. Alferlana litzateke adibide gehiago hona ekartzea. Aski dateke Bonifacio Etxegarai jaunak, Auzitegi Goreneko idazkari eta euskaltzain osoak, Espasa entziklopediarako (1929) idatzi zuen *Vasconia* artikulua gogoratzea; Batzorde Eragileen (Aldundien) *Proyecto de Estatuto Vasco-Navarro* delakoa (1932), euskaraz *Euskalerría* erdarazko *País Vasco-Navarro*-ren baliokidea erabiltzen duena, edo TVEren *Euskal Herria* programaz oroitzea, zein demokraziarako bidea hasi bezain laster eman zena (1976-1977).

⁶² José María Iribarren: *Vocabulario navarro*. Nafarroako Foru Diputazioa, Iruñea 1952. Adibidea, s.u., 229. or. Ikus 2. argitaraldia, Ricardo Ollaquindiak paratu eta garatua. Hezkuntza eta Kultura Departamentua, Príncipe de Viana Erakundea, Iruñea 1984, s.u., 241. or.

⁶³ *Revista Internacional de Estudios Vascos* 1, 1907, 148-153. or.

Azpimarratzekoa da Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren (1979) 1. artikulua, honela baitio: “Euskal Herria [...] Espainiar Estatuaren barruan autonomia-erkidego gisa eratzen da. Beronen izena Euskadi zein Euskal Herria izango da [...]”.⁶⁴

Eusko Kontseilu Nagusiaren garaian, Euskaltzaindiak, Baionako ordezkariaren 1979ko urtarrilaren 26an egindako batzarrean, aho batez erabaki zuen lehendakariari gutun bat bidaltzea; erabaki hori “*Euskal Herria* hitza ez bazterteaz” tituluarekin argitaratu zen *Euskera* aldizkarian.⁶⁵

Horrez gainera, itzal handiko pentsalari batzuek, hala nola José Miguel de Azaola saiakeragileak, artikulu horren testuarekin ados ez zedela argi erakutsi zuten, bai eta *Euskal Herria* —agerian edo ezkutuan— saihesteko asmoaren aurka ere.

Euskaltzaindiak, politika alorretik landa eta sineste zein ideologia guztien gainetik, otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretuan finkaturiko xedeetako bati erantzunez, zeinean Euskaltzaindiari hizkuntza jagoteko helburua onartzen zaion, nahitaezkoa dakusa *Euskal Herria* izenaren egokitasuna eta zehaztasuna berrestea. Izen hori guztiena da, eta horregatik ezin daiteke alderdikieriaz erabil, zoritxarrez inoiz gertatu eta orain ere gertatzen bada ere. Hori, jakina, herrialde bakoitzaren deitura bereziari eta izen politiko-administratiboetako kalterik egin gabe.

Gorago adierazi guztiaren argitan, Euskaltzaindiak, zazpi probintzia edo herrialdeen osotasuna adierazteko, *Euskal Herria* izenaren egokitasuna, zuzentasuna eta zehaztasuna berresten du, eta izen hori ez dela izate politiko administratibo konkretu baten baliokide. Aldi berean, gogorarazi nahi du mendez mendeko tradizio luzeari begirunea zor zaiola, eta inork eta ezerk ez du tradizio hori hausteko edo bere gogara aldatzeko eskubiderik.

⁶⁴ Gaztelaniaz: “El Pueblo Vasco o Euskal-Herria [...] se constituye en Comunidad Autónoma dentro del Estado Español bajo la denominación de Euskadi o País Vasco. Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Boletín Oficial del Estado, 306. zk., 1979ko abenduaren 22koa.

⁶⁵ Ikus testu osoa *Euskera* aldizkarian, 24, 1979: 1, 115-117. or.

Araua

Gauzak horrela direlarik, eta 2003ko uztailaren 18an Euskaltzaindiak, Donostian onarturiko adierazpenean oinarriturik, honako araua plazaratzen du:

1. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Beherea eta Garaia) eta Zuberoa batera izendatzeko erabil bedi *Euskal Herria* izena.
2. Idazkerari dagokionez, bi hitzetan eta biak letra larriz.
3. Gogoratu behar da bukaerako *-a* hori artikulua dela. Hortaz, erabil bedi: *Euskal Herria*, *Euskal Herrian*, *Euskal Herriaren...*, baina *Euskal Herriko*, *Euskal Herritik*, *Euskal Herrira*. Beraz, gaizki daude **Euskal Herriako*, **Euskal Herriatik*, **Euskal Herrin* edo **Euskal Herriren* bezalakoak.

Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzailearen bat edo adjektibo bat daramanean. Adibidez: *Euskal Herri maitea*, *Euskal Herri osoan*, *gure Euskal Herri hau*, *zein Euskal Herri litzateke?*... Hortaz, ez daude ongi **Euskal Herria maitea*, **Euskal Herria osoan*, **gure Euskal Herria hau* eta **zein Euskal Herria litzateke?*

Euskaltzaindiak Abadiñon egin batzarrean erabakia, 2004ko uztailaren 23an.

Euskera, 61, 2016, 1, 201-209.

34.b LA DENOMINACIÓN *EUSKAL HERRIA*

Desde hace siglos existe un empleo generalizado de la denominación *Euskal Herria* para designar un territorio con rasgos culturales bien definidos, por encima de fronteras político-administrativas y por encima también de las diferencias históricas.

El nombre procede de las palabras vascas *euskara* + *herri*, literalmente ‘el país del euskera o del vascuence’, donde puede reconocerse la forma *euskal*, corriente en composición, cf. *aizkora* ‘hacha’, pero *aizkolapustu* ‘apuesta de hachas’, *gari* ‘trigo’, pero *galburu* ‘espiga’, etc.

En los textos, a menudo aparece en letra minúscula, tal como se verá en los ejemplos, y también en plural. Ambos casos expresan con claridad el significado originario ‘país(es) del euskera’, es decir, ‘territorio(s) del euskera’.

El primer testimonio editado del uso generalizado de la denominación *Euskal Herria* se halla en la obra de Joanes Leizarraga. Este sacerdote hugonote de Lapurdi, traductor del *Nuevo Testamento* publicado en el año 1571 y de otros textos, al tratar de las dificultades para encontrar una modalidad comprensible para todos los lectores, escribe:

“... bat bederac daqui heuscal herrian quasi etche batetic bercera-ere minçatzeco manerán cer differentia eta diuersitatea den”.

(“... cualquiera sabe qué diferencia y diversidad hay en la manera de hablar en Euskal Herria casi de una casa a otra”).

El propio Leizarraga utiliza dicha denominación, con un guion, otras dos veces en el librito *ABC o instrucción de los cristianos...*, editado el mismo año. El título del prólogo es como sigue:

“Heuscal-herrian gatzetassunaren iracasteco carguã dutenér eta goitico guciér, I. Leizarraga Berascoizcoac laincoaren gratia desiraten”.⁶⁶

(“A todos cuantos en Euskal Herria tienen la responsabilidad de enseñar a los jóvenes y a todos los superiores, J. Leizarraga de Berazkoitz les desea la gracia de Dios”).

En el interior del texto, a su vez, se lee lo siguiente:

“Eta minçatzeco maneraz den beçembatean, Heuscal-herrian religionearen exercitioa den lekuco gendetara consideratione guehiago vkan dut, ecen ez bercetara”.⁶⁷

⁶⁶ Este pasaje está en el prólogo a los vascos “Heuscalduney”, a continuación de la carta bilingüe (euskara/francés) que el autor dirige a la reina Juana de Navarra. Sin paginación. Sin embargo, en la edición facsimilar de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, Bilbao 1990, realizada partiendo de la edición de Hugo Schuchardt y Theodor Linschmann, *I. Leizarragas baskische Bücher von 1571*, Estrasburgo 1900, dicho pasaje se halla en la pág. 254.

⁶⁷ Ibidem, en las págs. 1393 y 1394 respectivamente.

(“En lo que respecta a la manera de hablar, en Euskal Herria he tenido más consideración con la gente de práctica religiosa que con los demás”).

Hay otro testimonio, que corresponde a ese mismo siglo o a los primeros años del siguiente, hallado en uno de los manuscritos del escritor alavés Juan Pérez de Lazarraga. En él menciona en tres ocasiones el nombre *eusquel erria*:

“beti çagie laudatu
çegaiti doçun eusquel erria
aynbat bentajaz dotadu”. (f. 18)

(“siempre se te ha alabado
porque has dotado a Euskal Herria
de tantas ventajas”).

“çegayti eusquel errian dira
ederr guztioç dotadu”. (f. 18v)

(“porque se encuentran en Euskal Herria
todas estas hermosuras”).

“çeñetan ditut eçautu
eusquel erriau oy nola eben
erregue batec pobladu”. (f. 18v)

(“en el cual he conocido
cómo ha poblado un rey
esta Euskal Herria”).

Por su parte, el escritor navarro Pedro de Axular también utiliza dicho nombre en el libro de ascética *Gero* (“Después”), de 1643. En el prólogo al lector toca el problema de las variantes del habla mencionadas por Leizarraga, expresándose así:

“Badaquit halaber ecin heda naitequeyela euscarazco minçatce molde guztietara. Ceren anhitz moldez eta differentqui minçatcen baitira euscal herrian, Naffarroa garayan, Naffarroa beherean, Çuberoan, Lappurdin, Bizcayan, Guipuzcoan, Alaba-herrian eta bertce anhitz leccutan”.⁶⁸

(“Sé, asimismo, que no puedo abarcar todos los modos de hablar del euskera. Pues se habla de muchas maneras y diferentemente en Euskal Herria, en la Alta Navarra, en la Baja Navarra, en Zuberoa, en Lapurdi, en Bizkaia, en Gipuzkoa, en la tierra de Álava y en otros muchos lugares”).

Tartas lo utiliza igualmente en su obra de 1666 *Onsa hilceco bidia* (“El camino para la buena muerte”). Refiriéndose al mismo dice así:

“ibilico da buria gora euscal herri orotan”.⁶⁹

(“llevará la cabeza alta en toda Euskal Herria”).

⁶⁸ Guero, Burdeos 1643, pág. 17. Ver, asimismo, la edición facsimilar de Euskaltzaindia, Bilbao 1988.

⁶⁹ Juan de Tartas: *Onsa hilceco bidia*. Orthez 1666. Edición facsimilar bajo la dirección de Julio Urquijo, *Revista Internacional de Estudios Vascos* 1, 1907, págs. 27-30, 185-199; 2, 1908, págs. 569-581, y 3, 1909, págs. 561-636. El ejemplo mencionado corresponde al prólogo denominado “Gomendiosco letra” (“Carta de recomendación”) en la mencionada revista 1, 1907, pág. 28.

El guipuzcoano Manuel Larramendi en su diccionario publicado en 1745 dice así:

“Al Bascongado generalmente llamamos, Euscalduna, y a todo los países en que se habla el Bascuence, Euscalerria. Ni con estos nombres se expresa mas un Dialecto que otro, ni una Provincia mas que otra, sino generalmente nuestra Lengua, y los países en que se habla”.⁷⁰

Las mencionadas referencias han sido escritas, en general, en letra minúscula, costumbre habitual de la que pueden aportarse muchos ejemplos. Al menos en dos cartas fechadas en 1823, en la obra *Gutunliburua* (“Libro de Cartas”) de Jose Paulo Ulibarri (1775-1847) consta así:

“... etorri cen euscal errira”.⁷¹
 (“... vino a Euskal Herria”).

Además, este autor, en dos o tres ocasiones, utiliza el nombre en plural:

“... egun zariyetan sermoyac euskal erriyen eta uritan”.⁷²
 (“... en los días de fiesta los sermones en los pueblos y ciudades vascas”).

Hay también otros testimonios en este siglo XIX. La aplicación expresa de *Euskal Herria* (con diferentes grafías) a los siete territorios sigue siendo profusa.

Por ejemplo, en el libro de 1867 *Bi saindu hescualdunen bizia* (“La vida de dos santos vascos”) de Laphitz, sobre San Ignacio dice:

“oinez abiatu zen Hescual errirat”.⁷³
 (“partió a pie hacia Euskal Herria”).

Del mismo modo, en las composiciones del sacerdote labortano Gratien Adéma “Zaldubi” (1828-1907) “Gauden gu eskualdun” (“Permanezcamos nosotros vascos”) de 1893 y “Eskualdunak” (“Los vascos”) cantados por primera vez en las fiestas vascas de 1882 en San Juan de Luz, se mencionan las tradicionales siete provincias vascas. Veamos, como ejemplo, los siguientes versos de la segunda composición:

“Lapurdi, Nabarre ‘ta Zubero,
Eskualherriak Frantzian;
Bizkai, Gipuzko, Alaba, Nabarro,
berdin dire Espainian”.⁷⁴

(“Lapurdi, Baja Navarra, Zuberoa,
los territorios vascos en Francia;
lo mismo Bizkaia, Gipuzkoa, Álava, Navarra
están en España”).

⁷⁰ *Diccionario trilingue del castellano, bascuence y latin*. San Sebastián 1745. Edición facsimilar, Txertoa, San Sebastián 1984. Este pasaje está en la pág. xxvij del tomo 1°.

⁷¹ *Gutunliburua*, Diputación de Álava. Gasteiz 1975, pág. 16.

⁷² *Ibid.*, pág. 9.

⁷³ Francisco Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia: san Iñazio Loiolacoarena eta san Francisco Zabierecoarena*. Baiona 1867. Pág. 140.

⁷⁴ Véanse ambas composiciones en la *Revista Internacional de Estudios Vascos* 3, 1909, págs. 396 y 399, respectivamente. La edición más accesible es quizá la de Alex Bengoetxea, *Kantikak eta neurtitzak*, Ediciones Mensajero-Gero, San Sebastián 1991. Los pasajes a que nos referimos se encuentran aquí en las págs. 166 y 171, respectivamente.

Más aún, el uso de *Euskal Herria* se extendió a lenguas como el castellano y el francés. Varias entidades y publicaciones a ambos lados de la frontera interestatal han llevado ese nombre, como la *Sociedad Euskalerrria*, fundada en Bilbao por quien fuera diputado general del Señorío, Fidel de Sagarmínaga, en el último tercio del siglo XIX; la revista *Euskal-Erria*, creada en San Sebastián por José Manterola en 1880; el semanario *Californiako Euskal Herria*, de Los Angeles (1893-1898); el semanario *La Platako Euskal Herria*, publicado en Buenos Aires, en 1898, o el semanario *Euskal Herria*, de Baiona, fundado en 1898. Dicha costumbre no se ha interrumpido posteriormente. Entre otros, Philippe Veyrin, en su famoso libro *Les basques*, utiliza *Euskal-erri* en más de una ocasión.⁷⁵

El cancionero vasco, a su vez, incluye innumerables menciones a *Euskal Herria*. Cabe señalar, entre otros, el tradicional canto del pueblo a San Miguel de Aralar, cuyo estribillo dice así:

“Miguel, Miguel, Miguel guria,
Zaizu, zaizu Euskal Herria”.

(“Miguel, Miguel, nuestro Miguel,
protege, protege a Euskal Herria”).

El capuchino navarro Juan de Bera, predicó en Oiartzun, Gipuzkoa, el año 1834. Las dos primeras páginas del sermón las escribió en euskera y el resto en castellano. En referencia a San Francisco Javier señala:

“Jayo ceta gure Españian, uskal Errian, Nafarruan”.⁷⁶

(“Que nació en nuestra España, en Euskal Herria, en Navarra”).

Además, *Euskal Herria* ha sido utilizado profusamente, independientemente de la procedencia ideológica. He aquí algunos ejemplos de entre los muchos que pueden extraerse:

Salvador Castilla Alzugaray (Pamplona 1819 — San Sebastián 1884), republicano, pronunció un discurso el 15 de julio de 1878 en Pamplona, en una reunión de la Asociación Euskara de Navarra, apelando a los asistentes a seguir amando a *Euskal-Erria*.⁷⁷

El novelista Francisco Navarro Villoslada (1818-1895), natural de Viana, tradicionalista, en su trabajo “De lo prehistórico en las Provincias Vascongadas” (1877), escribe:

“... pero ellos no se dan a sí propios ese apelativo, ni el de vascongados, ni otro más que el de *escualdunas* bajo cuya denominación comprenden a todo el que habla la lengua euscara, sea español o francés, llamando asimismo *escualherria*, literalmente tierra de *escualdunas*, a todas las provincias que hablan la lengua euscara y pueblan ambas vertientes de los Pirineos occidentales: navarros, guipuzcoanos, alaveses y vizcaínos, españoles; suletinos y laburdinos, franceses”.⁷⁸

⁷⁵ 1.ª edición, Baiona 1943. 2.ª edición, París 1975.

⁷⁶ Patxi Ondarra: “Polikarpo Aitak zituen euskal esku-idatzi zaharren aurkezpena”, *Euskera* 26, 1981: 2, pág. 640; ver, asimismo “España, País Vasco, Navarra” del mismo autor, en *Diario de Navarra*, 2-02-2003, pág. 21.

⁷⁷ Angel García-Sanz Marcotegui: “Los liberales navarros ante la irrupción del euskerismo”, en el libro coordinado por Roldán Jimeno Aranguren, *El euskera en tiempo de los éuskaros*, Gobierno de Navarra-Ateneo Navarro, Pamplona 2000, págs. 145-218; la mención de Salvador Castilla Alzugaray se encuentra en las págs. 152-153.

⁷⁸ Carlos Mata Induráin: “Amaya da asiera: La actitud de Navarro Villoslada ante el vascuence”, en la citada obra coordinada por Roldán Jimeno, págs. 113-144; el pasaje mencionado se encuentra en la pág. 120.

El propio Azkue hace uso de la letra minúscula en su diccionario (1905-1906). Aunque utiliza la mayúscula en la entrada del término, las variantes incluidas en la misma van en minúscula:

“*Eskualerri* (B-1), *eskualherri* (L), país vasco, *pays basque*”).⁷⁹

En este ejemplo, puede observarse que también utiliza la minúscula en los equivalentes en español y francés. Se trata de una costumbre muy arraigada.

El dirigente carlista vizcaíno Román Zubiaga, acompañando al entonces cadete Santiago Palacio en una visita a la Casa de Juntas de Gernika, le dice:

“... las tribus más celosas de su independencia refugiáronse en las montañas de aquende y allende el Pirineo, constituyendo la Euskalerría, es decir, el país de euscaldunac, de los que hablan el idioma éuskaro...”.⁸⁰

La escritora carlista navarra Dolores Baleztana (1895-1989), natural de Pamplona, utiliza con frecuencia la denominación *Euskalerría*, por ejemplo en unas notas sobre la civilización vasca:

“... la figura del bersolari, ese admirable bardo de la Euskalerría genuinamente popular, que con asombrosa agilidad de imaginación y habilidad en versificar riñe torneos de ingenio discurriendo por los temas más dispares [...] Dignos discípulos del inmortal Iparraguirre, también voluntario de Carlos V, que con su voz arrebatadora, subyugaba auditorios de naciones extranjeras, cantando a la amacho maitia, al blanco querube de Euskalerría, a España, “lur oberikan, ez da Europa Guziyan”, la tierra mejor cual no hay otra en Europa ...”.⁸¹

El 17 de mayo de 1921, Jesús Etayo escribe en *El Pensamiento Navarro* el artículo “Ante el cuarto centenario de la herida de Iñigo de Loyola”. Entre otras cosas, leemos:

“... como vascos, porque, a pesar de la gran desviación histórica padecida por nuestra raza, Ignacio era vasco y todos los vascos somos participantes de las glorias de Euskalerría...”.⁸²

No estará de más mencionar el *Oriamendi*, el himno de los carlistas que dice:

(“¡Viva España y Euskal Herria!
Y el legítimo rey.
Amamos a Euskal Herria
Amamos sus viejos fueros”).

La obra *Vocabulario navarro* de José María Iribarren es, asimismo, otro testimonio ilustrativo del uso totalmente habitual de dicho término. Lo define así:

⁷⁹ *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbao 1905-1906. Edición facsimilar. Euskaltzaindia, Bilbao 1984.

⁸⁰ José Javier López Antón: *Escritores carlistas en la cultura vasca*, Pamplona, Pamiela, 2000, pág. 134. Santiago M. Palacio recogió lo escuchado de labios de Zubiaga en su libro *El batallón de Guernica*, Editorial Tradicionalista, Barcelona, 1917, pág. 80.

⁸¹ Dolores Baleztana Azcárate: *Saski naski de Leiza*, Pamplona: Diputación Foral de Navarra, Dirección de Turismo, Bibliotecas y Cultura Popular, 1976, pág. 12.

⁸² Citado por José Javier López Antón: *Escritores carlistas en la cultura vasca*, pág. 191.

“Euskalerría: Nombre que dan al País Vasco; es decir, a Vizcaya, Guipúzcoa, Alava y Navarra en España, y Laburdi, Benabarre y Zuberoa en el país vasco-francés”.⁸³

Consideramos que los materiales lexicográficos y gramaticales interlingüísticos son un instrumento de gran utilidad que las academias, por su naturaleza y por su autoridad, deben asumir como responsabilidad propia, en la búsqueda y concreción de los espacios que unen a nuestras lenguas y nos hacen partícipes de un acervo cultural común.

Bilbao, sede de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia,
17 de julio de 2009.

Euskera, 54, 2009, 3, 1352-1353.

40

**SOLICITUD PARA LA TRAMITACIÓN EN EL
PARLAMENTO DE LA INICIATIVA LEGISLATIVA
POPULAR “TELEVISIÓN SIN FRONTERAS”**

Sr. D. Ramón Jáuregui,
Ministro de Presidencia
Gobierno de España
Madrid

**Asunto: Solicitud para la tramitación en el Parlamento de la iniciativa legislativa popular
“Televisión sin Fronteras”**

Excelentísimo señor:

Esta Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, que en su actuación siempre ha considerado la diversidad idiomática y cultural del país como una importante riqueza cultural, merecedora de protección y fomento, ha colaborado con la iniciativa legislativa popular “Televisión sin Fronteras” en la recogida de firmas para facilitar la libre circulación de lenguas e imágenes entre las diversas comunidades autónomas, según los principios vigentes en la Unión Europea.

Según nos consta, la iniciativa ha tenido un gran respaldo ciudadano, habiéndose recogido en su favor más de 650.000 adhesiones. Sin embargo, últimamente vemos con preocupación que están surgiendo dificultades de diversa índole que podrían impedir la tramitación del proyecto. No obstante, parece que esos obstáculos no son insalvables, y menos teniendo en cuenta las notables ventajas informativas y culturales que, gracias a dicho proyecto, se podrían obtener.

Desde nuestro punto de vista, la difusión de los distintos programas televisivos en todas las lenguas españolas a través de todo el ámbito estatal contribuiría decisivamente, no solo a su promoción, sino a un mayor conocimiento mutuo, a una comunicación más directa y a un mejor entendimiento entre todos los ciudadanos.

Por todas estas razones, en nombre de Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca, me dirijo a Vd. para solicitarle encarecidamente que haga llegar al Gobierno del Estado la petición de llevar al Parlamento la citada iniciativa legislativa popular para su trámite y aprobación.

Aprovecho la ocasión para transmitirle nuestros más sinceros saludos, así como los mejores deseos de paz y prosperidad para el año entrante.

Cordialmente,

Andres Urrutia,
presidente de Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca

Bilbao, a 22 de diciembre de 2010.

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

41.a

IRRATIEN DEIALDIAN EUSKARAREN PRESENTZIA AREAGOTZEARI BURUZKO ESKAERA

Juan Luis Sánchez de Muniáin jauna,
Kultura, Turismo eta Erakunde
Harremanetarako kontseilaria
Nafarroako Gobernua

Gaia: Irratien deialdian euskararen presentzia areagotzeari buruzko eskaera

Jaun agurgarria:

Nafarroako Aldizkari Ofizialean pasa den 2011-10-11n argitara emandako Nafarroako Foru Komunitatean Ikus-entzunezko Zerbitzuei buruzko Foru Dekretuaren proiektua ezagutu ondotik, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzari, berari dagozkion eskumenen eremutik ikusita, egoki iruditu zaio zuri azaltzea gai horren inguruko iradokizun hauek.

Euskaltzaindia lau foru-aldundien babespean —Nafarroakoa barne— 1918an sortu zen eta 573/1976 Dekretuak, otsailaren 26koak, Euskararen Errege Akademia onartu zuen. Dekretu horretan, besteak beste, honako eginbehar hauek egotzi zitzaizkion:

- Hizkuntzaren eskubideak zaintzea.
- Hizkuntzak gizarte maila guztietan adierazpen gaitasuna izan dezan lan egitea.
- Euskararen erabilera sustatzea.

Bestalde, 18/1986 Euskararen Foru Legeak, abenduaren 15ekoak, euskara nafar guztien ondare kulturala eta nortasunaren ezaugarria izateaz gainera, gizartearen elkarbidetasun eta komunikaziorako tresna ere badela dio. Bere 27. artikuluan espresuki agintzen du administrazio publikoek bultzatuko dutela euskararen mailaz mailako presentzia komunikabide sozial publiko eta pribatuetan, eta Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatuko dituela, komunikabideek euskara progresiboki eta ohiko moduan erabil dezaten.

Halaber, Europako Kontseiluaren Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak, Espainiako Erresumak berronetsi zuenak, hizkuntzaren erabileraren eta sustapenaren aldeko neurrien beharra aipatzen du. Hartara, 2008. urteko abenduan ezagutzera eman zuen gainbegiratze-txostenean aipamen berezia egiten du euskarazko irratia pribatuak bermatzearen beharraz.

Gai honetan, legez agintzen denaz gainera, kontuan hartzekoa da errealitateak erakusten diguna, alegia, aipatutako foru legea aldarrikatu zenetik pasatu diren hogeita bost urte hauetan Nafarroan izan den aldaketa soziolinguistikoa nabaria, orduan baino franko gehiago baitira gaur egun euskaraz aritzeko gai diren nafarrak. Nafarroako Gobernuak berak ikusgai dituen 2008ko emaitza soziolinguistikoen arabera, nafarren % 11,9k ongi hitz egiten du euskaraz,

% 6,2k pixka bat, % 14k ongi ulertzen du eta % 7,6k pixka bat. Nafarroako eremu mistoan dagoen Iruñerriko bilakaera aztertuta, oraingo egoera kuantitatiboa oraindik nabariagoa da: % 9,9k ongi hitz egiten du euskaraz, % 6,6k pixka bat, % 11,4k ongi ulertzen du eta % 8,7k pixka bat. Hala ere, pasa diren hogeita bost urte horietan zehar egindako deialdietan administrazio publikoek ez diote ekin euskararen mailaz mailako presentzia eta erabilera sustatzeari hedabideetan, batik bat irrati komertzialen deialdietan.

Horregatik guztiarengatik, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak uste du bai argitaratutako dekretuaren proiektua, bai eta zuk pasa den irailaren 16an Nafarroako Parlamentuan iragarri zenuen urte honen amaiera baino lehenago egingen den irratien deialdia ere, aukera ona direla Administrazioak euskararen presentzia areagotzeko eta babesteko lege aginduaz duen konpromisoari aterabide egokia emateko. Hortaz, zuzendaritza honek erabaki du iradokitzea hemendik aitzina egingen diren deialdietan sar dadila euskaraz komunikatzeko proposamena eta hau egokia izan dadila gaur egungo errealitate soziolinguistikoarekin, eta Iruñerrikoarekin bereziki, bai emanaldi orduetan, bai hizkuntza-kalitatean.

Nahiko genuke, eta hala espero dugu, iradokizun hauek lagungarri izatea, alegia, egiten ahal diren hedabideetako deialdietan euskaraz komunikatzeko proposamenak ahalik eta hobekien zehatzuz eta modu egokian erantzunez Nafarroako euskal hiztunei.

Aldez aurretik eskertzen dizugu zure arreta eta, aldi berean, gure laguntza osoa eskaintzen dizugu, hala nahiko bazenu.

Adeitasunez,

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

Iruñean, 2011ko azaroaren 10ean.

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

41.b
SOLICITUD DE LA ADECUADA Y PROGRESIVA
PRESENCIA DEL EUSKERA EN LA CONVOCATORIA DEL
CONCURSO DE RADIOS

Sr. D. Juan Luis Sánchez de Muniáin,
Consejero de Cultura, Turismo
y Relaciones Institucionales
Gobierno de Navarra

Asunto: Solicitud de la adecuada y progresiva presencia del euskera en la convocatoria del concurso de radios

Señor consejero:

Tras haber conocido el proyecto de Decreto Foral 32/2011 sobre Servicios de Comunicación Audiovisual en la Comunidad Foral de Navarra, publicado en el BON de 11-10-2011, la Junta de Gobierno de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, en ejercicio de las competencias que tiene encomendadas, ha considerado oportuno plantearle algunas consideraciones al respecto.

Euskaltzaindia fue creada como Academia de la Lengua Vasca en el año 1918 bajo los auspicios de las diputaciones forales, entre ellas la de Navarra, y reconocida como Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia por Real Decreto 573/1976, de 26 de febrero. Dicho decreto le asigna de forma expresa, entre otros cometidos, los siguientes:

- Velar por los derechos de la lengua.
- Trabajar en la capacitación de la lengua, a fin de que esta pueda ser medio de expresión de la comunidad a todos los niveles.
- Promover el uso de la lengua.

Por su parte, la Ley Foral del Vascuence 18/1986, de 15 de diciembre, define el euskera como elemento de identificación y patrimonio cultural de todos los navarros, así como elemento de convivencia y vehículo de comunicación en la vida social. En su artículo 27, establece expresamente que las administraciones públicas promoverán la progresiva presencia de la lengua vasca en los medios de comunicación social públicos y privados, correspondiendo al Gobierno de Navarra la elaboración de planes de apoyo económico y material para que los medios de comunicación empleen el vascuence de forma habitual y progresiva.

A su vez, la Carta Europea de Lenguas Regionales o Minoritarias, del Consejo de Europa, ratificada expresamente por el Reino de España, apunta claramente a las medidas de uso y fomento de la lengua que deben adoptarse. En su informe de supervisión dado a conocer en diciembre de 2008, hizo una mención especial para que se garantice la presencia de radios privadas cuyos programas se emitan en vascuence.

Por otra parte, y al margen de los mandatos estrictamente legales, la realidad ha venido a demostrar que a lo largo de los veinticinco años que han transcurrido desde la promulgación de la citada ley foral, se ha operado en la sociedad navarra un cambio sociolingüístico considerable, con un aumento general de ciudadanos navarros vascohablantes. Según los datos sociolingüísticos del Gobierno de Navarra de 2008, el 11,9 % de los navarros habla bien el vascuence, el 6,2 % habla algo, el 14 % lo entiende bien y el 7,6 % entiende algo. Debe tenerse en cuenta, además, que el mencionado cambio es comparativamente mayor en el área metropolitana de Pamplona o Iruñerria, perteneciente a la zona mixta, en el que el 9,9 % lo habla bien, el 6,6 % habla algo, el 11,4 % lo entiende y el 8,7 % entiende algo. Sin embargo, las convocatorias realizadas a lo largo de ese cuarto de siglo transcurrido desde la aprobación de la mencionada ley, las administraciones públicas no han procedido a promover dicha progresiva presencia de la lengua vasca en los medios de comunicación social, en concreto en lo referente a los concursos de radio comercial.

Por todo ello, la Junta de Gobierno de Euskaltzaindia considera que tanto del decreto anunciado como proyecto, como la consiguiente convocatoria del concurso de radios para antes del fin de año, anunciado por Ud. en comparecencia parlamentaria del pasado día 16 de septiembre, son una buena oportunidad para resolver de forma real y expresa el compromiso legal de la Administración de velar por la adecuada y progresiva presencia de la lengua vasca. En consecuencia, esta junta de gobierno ha acordado sugerirle que en en las convocatorias se incluya una propuesta comunicativa en la lengua vasca que responda en cantidad (número de horas de emisión) y calidad (competencia lingüística) a las necesidades de la realidad sociolingüística actual de la población vascohablante de Navarra y a las del área metropolitana de Pamplona en particular.

Deseamos y confiamos en que estas consideraciones puedan contribuir a definir lo más adecuadamente posible las propuestas comunicativas en lengua vasca a través de los citados medios de comunicación a los navarros vascohablantes.

Le agradecemos de antemano su interés, a la vez que le ofrecemos nuestra entera colaboración si la considera conveniente.

Reciba un cordial saludo,

*Andres Urrutia,
presidente*

Pamplona, 10 de noviembre de 2011.

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

42.a
SOBRE EL RECORTE EN LA ASIGNACIÓN A
EUSKALTZAINDIA EN LOS PRESUPUESTOS GENERALES
DEL AÑO 2012

Sra. Dña. Yolanda Barcina,
Presidenta del Gobierno de Navarra

Asunto: **Sobre el recorte en la asignación a Euskaltzaindia en los Presupuestos Generales del año 2012**

Señora presidenta:

Me dirijo a V. E. como presidenta de la Comunidad Foral de Navarra.

Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca ha conocido la cantidad que le ha sido asignada en la propuesta de los presupuestos de la Comunidad Foral de Navarra para sus actividades en la misma durante el año 2012.

Dada la difícil situación económica del momento, comprendemos la necesidad de un ajuste en las ayudas que percibimos. No obstante, nos inquieta la cuantía del recorte (41,3 %), que dada nuestra difícil situación económica, compromete gravemente nuestra actividad y proyectos en la Comunidad Foral de Navarra.

Por eso, les solicitamos a V. E. y al consejero de Educación de la Comunidad Foral de Navarra una reunión conjunta con la Junta de Gobierno de Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca, a fin de que nuestro tesorero y nuestro gerente puedan detallarles los motivos de nuestra preocupación.

En la confianza de que pronto podremos saludarnos personalmente, le saluda atentamente,

Andres Urrutia,
presidente

Bilbao, 15 de noviembre de 2011.

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

42.b
SOBRE EL RECORTE EN LA ASIGNACIÓN A
EUSKALTZAINDIA EN LOS PRESUPUESTOS GENERALES
DEL AÑO 2012

Sr. D. José Iribas Sánchez,
Consejero de Educación del
Gobierno de Navarra

Asunto: Sobre el recorte en la asignación a Euskaltzaindia en los Presupuestos Generales del año 2012

Señor consejero:

Me dirijo a usted como consejero de Educación de la Comunidad Foral de Navarra.

Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca ha conocido la cantidad que le ha sido asignada en la propuesta de los presupuestos de la Comunidad Foral de Navarra para sus actividades en la misma durante el año 2012.

Dada la difícil situación económica del momento, comprendemos la necesidad de un ajuste en las ayudas que percibimos. Lo que nos inquieta es la cuantía del recorte (41,3 %), que dada nuestra difícil situación económica, compromete gravemente nuestra actividad y proyectos en la Comunidad Foral de Navarra.

Por eso, les solicitamos a la Excm. presidenta del Gobierno Foral de Navarra y a Ud. como consejero de Educación una reunión conjunta con la Junta de Gobierno de Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca, a fin de que nuestro tesorero y nuestro gerente puedan detallarles los motivos de nuestra preocupación.

En la confianza de que pronto podremos saludarnos personalmente, le saluda atentamente,

Andres Urrutia,
presidente

Bilbao, 15 de noviembre de 2011.

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

43.a

EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA 2012KO MARTXOAREN 31KO BAIONAKO MANIFESTALDIAZ

Duela 18 urte Euskaltzaindiak Biarritzen frantses gobernuari eskatu zion euskarak Iparraldeko hiru probintzietan ofizialtasuna ukan zezan, hala nola baitzuen jadanik Hegoaldeko euskal herrialdeetan. Euskaltzaindiak garai hartan egin eskaerak ez zuen segidarik ukan, eta geroztik Frantzia ez da jarreraz aldatu: eskualdeetako hizkuntzei beti ukatzen dizkie zinezko ofizialtasuna eta legearen geriza.

Egia da 2008an Konstituzioari aldaketa batzuk egin zizkiolarik (2008-724 Konstituzio Legea), 75. artikuluari emendio bat egin zitzaioela, eskualde-hizkuntzak Frantziako ondarearen parte direla errateko. Pentsa zitekeen hizkuntza horiek Konstituzioan aipatzearekin zerbait ezagutza ere hartzen zutela, eta hizkuntza horien hiztunak, ondorioz, testu berri hartan bermatzen ahalko zirela beren hizkuntzaren defendatzeko. Zorigaitzez, egiazki ez da hala gertatu. Alabaina, duela zenbait denbora, Konstituzio Kontseiluak 75-1 artikulua hartaz eman duen erabaki batean (2011-130 erabakia, 2011/05/11koa), guztiz interpretazio hertsia egin du, argiki erranez “ez duela sortzen Konstituzioak segurtatu eskubiderik edo libertaterik”. Gisa horretan, delako artikulua osoki ondorio praktikorik gabekoa zela finkatu du Konstituzio Kontseiluak. Euskararen erabilerari dagozkionetan, euskal herritarrek, lehen bezala, legearen gerizarik gabe segitzen dute, eta haien mintzairaren ofizialtasunaren eskaera sekula bezain bidezkoa eta zuzena da.

Euskararen ofizialtasunaren eta lege baten eskaeraren entzunarazteko, Euskaltzaindiak bat egiten du Euskal Konfederazioa eta Kontseilua elkarrekin Baionan, 2012ko martxoaren 31n, antolatzen duten DEIADAR manifestaldiaren helburuekin.

Donostian, 2012ko martxoaren 30ean.

Euskera, 57, 2012, 1-2, 347-348.

43.b

L'ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE SOUTIENT LA MANIFESTATION DU 31 MARS À BAYONNE

Il y a 18 ans à Biarritz, l'Académie de la langue basque — Euskaltzaindia avait demandé au gouvernement français que la langue basque reçût un statut d'officialité dans les trois provinces du nord, à l'image des provinces basques du sud. Cette demande de l'Académie n'a jamais obtenu de réponse, et depuis lors la France a toujours la même attitude : elle refuse d'accorder aux langues dites « régionales » l'officialisation ainsi que leur protection par la loi.

Il est vrai qu'en 2008, lorsque la Constitution a été modifiée (loi constitutionnelle n° 2008-724), un ajout fut introduit dans l'article 75 de la Constitution afin de déclarer que « les langues régionales appartiennent au patrimoine de la France ». On aurait pu penser qu'avec cette mention dans la Constitution, les langues régionales recevaient une forme de reconnaissance et que, par conséquent, leurs locuteurs pourraient s'appuyer sur cette nouvelle disposition pour les défendre. Hélas, il n'en est pas advenu ainsi. En effet, il y a bientôt un an, le Conseil constitutionnel, dans une décision relative à l'interprétation du nouvel article 75-1 (décision n° 2011-130, du 11/05/2011), a privilégié une lecture très restrictive, indiquant explicitement que ledit article « n'institue pas un droit ou une liberté que la Constitution garantit ». Ainsi, la modification constitutionnelle se révèle être sans aucune portée pratique. Les citoyens de langue basque restent donc privés de garanties juridiques relativement à l'usage de leur langue, et plus que jamais la revendication de son officialisation s'avère légitime et justifiée.

Afin de faire entendre la demande d'officialisation de la langue basque et d'une loi en faveur des langues régionales, Euskaltzaindia tient à affirmer qu'elle adhère totalement aux objectifs qui seront défendus par les associations Euskal Konfederazioa et Kontseilua lors de la manifestation DEIADAR du 31 mars 2012 à Bayonne.

Euskera, 57, 2012, 1-2, 348.

ZATOZ EUSKALTEGIRA! KANPAINAREN ALDE

Gaia: **ZATOZ EUSKALTEGIRA! KANPAINAREN ALDE**

Horra hor, urtero-urtero, deiadar sendoa, iraila-urria aldi honetan gonbit gozoa egiten diguna euskara eta euskararen kulturaren partaide izateko. Deiadarra, gainera, Euskaltzaindiaren egoitzaatik doakizue, hain zuzen ere, euskararen egoitza honetatik, guztion egoitza den honetatik. Beste behin ere, HELDUEN ALFABETATZE ETA EUSKALDUNTZE lanetan buru-belarri dihardutenek, eta gizartearen eragileek, argi eta ozen aldarrikatzen dute euren zeregina, gizarte honetan funtsezkoa dena.

De nuevo aquí, para recordarle a la sociedad vasca, con un impulso renovado, la labor de enseñanza de los euskaltegis, esa red de centros que recorre Euskal Herria, invitándonos a hacernos partícipes del euskera y de la cultura vasca.

Krisi gorrian bizi gara. Nonahi ikusten ditugu eskasiak eta mentsak. Zerbait egiteko garaia da eta horretan berresten da gaur gure konpromisoa eta erronka, egunero gauzatzen dena gure ikasgeletan. Hortxe eskaintzen zaio gizarteari zerbitzua, gizartea bera kulturaren ikuspegitik aberastu nahian.

La crisis económica en la que estamos no nos debe hacer olvidar que el euskera y la cultura vasca no son algo superfluo sino algo necesario en nuestra sociedad, un elemento significativo de nuestra convivencia, en el que todos participamos.

Zer esanik ez dago, gu guztiontzat euskaltegien lana da oinarritzko eta ezinbesteko, euskararen aitzinamendua ziurtatzeko eta bermatzeko. Hitz batez esateko, euskara bera garatzeko gizarte honetan.

Seamos conscientes de la importancia de la labor de los euskaltegis para la difusión de la normativización y la normalización del euskera y en la tarea de su proyección social.

Horrexegatik, *Zatoz euskaltegira!* oihukatuko dugu berriro eta gure inguruan albistea zabalduko. Etorri euskaltegira, bertan aurkituko baitituzu, euskararekin batera, kultura oso baten adierazpenak. Hizkuntza baten inguruak ezagutzea horixe baita, hain zuzen ere, berak eramaten duen ikuskera horren jabea egitea. Irribarre zein negar, neke eta pozak, haserre eta adiskidantzak, alaitasuna eta tristura... labur esanda, giza seme-alaba orori dagozkion sentimenduak eta horiek ere zure hizkuntzan, zure inguruko hizkuntzan, hur-hurrekoz duzun horretan jasoko dituzu. Halakoak nork bere hizkuntzan adieraztea liluragarria eta xarmagarria ere bada. Ikasi eta erabili, erabiliz ikasi, erabiltzeko ikasi... Horretan ditugu bidegile eta bidaide euskaltegiak.

Beraz zatoz euskaltegira!

Aprender una lengua, alfabetizarse en ella, es abrir una nueva ventana al mundo. Llorar o reír, divertirse o sufrir, son sentimientos del ser humano que una lengua, una nueva lengua, el euskera de tu entorno, de tu cuadrilla, de tus amigos, de tu trabajo, de tu aprendizaje, te

van a proporcionar. Para ello, los euskaltegis son nuestros acompañantes en este camino personal y colectivo del euskera.

Esos vínculos, esta presencia y acompañamiento de y a los euskaltegis es lo que hoy queremos simbolizar aquí recordando a quienes en el quehacer diario del aula, en esa relación entre profesor-alumno, son los protagonistas del proceso de revitalización, de recuperación del euskera. Hoy muchos de ellos no están aquí con nosotros pero nuestro empeño está con ellos.

Buruz buruko zein baliabide berriak erabilita, hamaikatxo ikasle izango dira ikasturte honetan ere euskaltegietako ikasgeletan. Bihoakie eurei, mundu osoan zehar euskara irakasten eta ikasten edo euren burua alfabetatzen ari diren guztiei gure agurra, gure gogoia eta nahia.

Nuestro reconocimiento y agradecimiento. Nuestro ánimo a todos aquellos y aquellas que perseveren, a todos y todas que se acerquen a los euskaltegis, no solo para aprender, sino sobre todo para descubrir el mundo del euskera y de la cultura vasca. Un mundo apasionante. Una lengua actual y con futuro. Una lengua y una cultura que hacemos todos juntos, día a día.

Aurrera, bada, eta gogotsu jokatu dezagun euskararen alde. Hortaz, esan dezagun guztiok batera:

Zatoz euskaltegira!

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

Bilbon, 2013ko irailaren 26an.

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

45.a

EUSKALTZAINDIA D EREDUAREN ALDE NAFARROAN

Nafarroako irakaskuntzan iragarri da datorren 2014-15 ikasturtean izena emateko epea. Urtero bezala, gurasoek aukera izanen dute beren umeak D ereduan matrikulatzeko, bai irakaskuntza publikoan, bai ikastolen sarean. Izan ere, ikastetxe horiek aukera paregabea eskaintzen diote Nafarroako gizarteari, gurasoei bereziki, nafar guztiona den hizkuntza eta kulturatik abiatuz, beren seme-alabak mundu zabalera begira hezi ahal izateko.

Euskara babestea, gizartearen maila guztietara zabaltzea eta erabilera sustatzea Euskaltzaindiaren zeregin berariazkoak dira. Hori horrela, Akademiak Nafarroako haurren gurasoak xede horiekin bat egitera gonbidatzen ditu eta beren seme-alaben heziketarako D eredia (euskarazko irakaskuntza gaztelania irakasgaiarekin) hautatzera animatzen. Aldi berean, zorionak ematen dizkie eredu hori hautatzen duten gurasoei, bai eta eskerrak eta babes osoa ere, irakaskuntza publikoan zein ikastolen sarean urte luzez, zeregin horri osoki emanak eta emaitza bikainak lortuz lanean aritu diren eta ari diren irakasleei eta gainerako langileei.

Bilbon, 2014ko urtarrilaren 31n.

Euskera, 59, 2014, 1, 351.

45.b

EUSKALTZAINDIA A FAVOR DEL MODELO D EN NAVARRA

Se ha anunciado el plazo de inscripción para el próximo curso escolar 2014-15 en la enseñanza de Navarra. Al igual que en años anteriores, las familias tienen la opción de matricular a sus hijos e hijas en el modelo D (enseñanza en euskera con la asignatura de lengua castellana), tanto en la enseñanza pública como en la red de ikastolas. Los mencionados centros educativos vienen ofreciendo a la sociedad navarra en general y a los padres y madres en particular, una excelente opción para educar a sus hijos e hijas abiertos al mundo que les rodea a partir de la lengua y cultura propias de esta comunidad.

Entre los cometidos específicos asignados a la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia figuran la protección del euskera, su capacitación como medio de expresión a todos los niveles de la sociedad y la promoción de su uso. Es por ello, que en aras de dicha finalidad, Euskaltzaindia invita a tomar parte activa a las familias y les anima a optar por el modelo D para la educación de sus hijos e hijas. Al mismo tiempo, desea felicitar a los padres y madres que optan por dicho modelo, así como agradecer y ofrecer todo su apoyo al profesorado y demás personal que desde hace muchos años han trabajado y siguen trabajando con gran entrega y excelentes resultados en el mencionado modelo educativo, tanto en la red pública como en la red de las ikastolas.

Bilbao, 31 de enero de 2014.

Euskera, 59, 2014, 1, 351-352.

EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA IPARRALDEKO KOLEGIOEN ERREFORMAZ

Frantziako Hezkuntza Ministerioak ezarri nahi duen kolegioen erreformak kezka sortu du Ipar Euskal Herriko euskarazko irakasleen artean. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak, Baionan, 2015eko azaroaren 24an egindako bileran, kezka hori bere egin eta adierazpen bat onartu du. Honela dio:

Euskaltzaindia eta kolegioetako erreforma

Azken aste horietan, beren kezkak adieraziak dituzte Iparraldeko euskarazko irakasleek, heldu den urtean indarrean jarri behar den erreformak arrangurak sorrarazi baititu. Euskaltzaindiak arrangura hori bere egiten du.

Euskararen egoera zaintzea, euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak zaintzea du helburu Euskaltzaindiak. Horrengatik, Euskaltzaindia ez dagoke isilik erreforma horrek ekar litzakeen ondorio tzarren aitzinean, kolegioan euskarari erreformak eman nahi dion lekua mugatua izanen dela ohartzekoa baita.

Euskaltzaindiaren arabera, euskara ikasi nahi duten ikasleak (eta ikasleen gurasoak) segur izan behar dira hasitako euskarazko irakaskuntzak segida eta jarraipen osoa izanen duela 6.etik lizeoraino. Euskararen irakaskuntza maila batetik bestera ez dela desagertuko bermatu beharko du erreformak.

Aitzitik, mugatua izan gabe, euskararen irakaskuntzak engoitik indar berezi bat merezi du. Ikasleek euskara ikasteko, norberak bere euskara aberasteko, ahalbideak eman behar zaizkie Euskal Herriko ikasle guziei, euskara ikasi nahi dutenaz geroz. Ikasleak eskolatik elebidun oso eta euskara hauta baten jabe izatea da gure helburu.

Ondoko puntuei erreformak erantzun baikorra eman beharko die:

- Ikasleek Batxilergoraino eta zikloka erdietsi behar dituzten gaitasunak, jakitateak eta kultura-helburuak zehaztea.
- Helburu horietara heltzeko programak, sail orokorrean nola Lanbide-heziketan, finkatzea.
- Ziklo bakoitzaren bukaerako ebaluazio eta egiaztatze moldeak antolatzea.
- Helburuen eta edukien araberrako ikastresnak osatzea eta biderkatzea.
- Irakasleen oinarritzko formakuntza eta formakuntza jarraikia hedatzea.

Zeinahi irakasleren lana lagundu behar baldin bada, are gehiago euskarazko irakasleen lana laguntzekoa da, baldintza zailetan ari baitira urtetik urtera. Eta euskarazko

irakasleek egiten duten hats luzeko lana Euskaltzaindiak txalotzen du. Ordu da ateria ikus dezaten hemendik aitzina.

Baina han-hemenka, Hezkuntza Nazionalarengandik berrikitan emanak izan diren erantzunek gure dudak eta kezkak ez dituzte batere ohildu edo urrundu.

Beraz, orain arte euskararen alde egin diren urrats guziak ez daitezen suntsituak izan eta hemendik aitzina euskararen irakaskuntzak etorkizun argia izan dezan neurri erabakigarriak eskatzen ditu Euskaltzaindiak. Euskarak bere tokia eskolan ongi arautua izan behar duela segurtatu behar du erreformak.

Gizarte mailan eta eremu orotako adierazpide eta tresna izan behar den euskara prestatzen eta gaitzen ari da Euskaltzaindia. Euskararen ofizialtasuna eskatzen dugu bide hori erraza izan dadin. Anartean, erran gabe doa euskararen irakaskuntzari laguntza emateko prest dagoela osoki Euskaltzaindia.

Euskera, 60, 2015, 1, 279-281.

47.a.1
EUSKAL TELEBISTAK NAFARROAN EMITITZEARI
BURUZ INDUSTRIA MINISTERIOAK EMANDAKO
DEBEKUAZ

Mariano Rajoy jaun agurgarria
Espainiako presidentea
Complejo de La Moncloa
28071 Madril

Gaia: Euskal Telebistak Nafarroan emititzeari buruz Industria Ministerioak emandako debekuaz

Presidente jauna:

Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak, 2016ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, honako idazki hau zuri igortzea erabaki du:

Otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuan adierazten da Euskaltzaindia instituzio akademikoa dela eta bere jarduketa-esparruan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa daudela. Hartara, xede hauek agintzen zaizkio: euskararen ikerketa zientifikoa eta araugintza, hizkuntza-eskubideak erabiltzea eta zaintzea eta, orobat, euskararen gaikuntzan lan egitea, euskara maila orotan euskaldunen adierazpide izan dadin.

Ondorio horretarako, euskara komunikabideetan egotea ezinbestekoa da euskara erabili eta garatzeko eta, aldi berean, herritarren eskubide ukaezina da komunikabideen eskaintza berezko hizkuntzetan hartzen dela bermatzea; eskaintza hori herritarrek bizitokia duten autonomia-erkidegotik har dezakete edo hizkuntza hori bera berezko eta ofiziala duen beste erkidego batetik. Nafarroan bizi direnei dagokienez, eskubide hori bermaturik gelditzen da Euskal Autonomia Erkidegoko telebistak egiten dituen emanaldiekin.

Zuk zuzentzen duzun Gobernuako Industria Ministerioak berriki agindu bat eman du, Euskal Telebistak (ETB) Nafarroan emititzeari utz diezaion. Gertaera honek nafar herritarrei eskubide bat ukatzen die eta, horrenbestez, Estatuko hizkuntzetako batean eta Nafarroako berezko bi hizkuntza ofizialetako batean emititzen duen telebista hartzea, hala nahi duten nafarrei.

Uste dugu neurri hau ez datorrela bat Espainiako Konstituzioak, Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak eta Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak onartutako pluralismo linguistikoa bermatzeko xede garrantzitsuarekin. Hori dela eta, Euskaltzaindia arautzen duen errege dekretuaren arabera, eskatzen dizugu Industria Ministerioak emandako agindua bertan behera uztea, agindu horrek, hala nahi duten nafarrei, galarazten dielako telebista Foru Komunitateko berezko bi hizkuntza ofizialetako batean hartzeko eskubidea.

Adeitasunez,

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Bilbon, 2016ko maiatzaren 12an.

(La Biblioteca y Archivo Azkue de Euskaltzaindia)

47.a.2
SOBRE LA ORDEN DEL MINISTERIO DE JUSTICIA PARA
EL CESE DE EMISIONES DE EUSKAL TELEBISTA EN
NAVARRA

Sr. D. Mariano Rajoy,
Presidente del Gobierno de España
Complejo de La Moncloa
28071 Madrid

Asunto: Sobre la orden del Ministerio de Justicia para el cese de emisiones de Euskal Telebista en Navarra

Señor presidente:

La Junta de Gobierno de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, en reunión celebrada el día 11 de mayo de 2016, ha acordado dirigirle a Vd. el siguiente escrito:

La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia reconocida como institución académica, cuyo ámbito de actuación, por Real Decreto 573/1976, de 26 de febrero, se extiende a las provincias de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra, tiene encomendados como fines el estudio científico y la normativización del euskera, así como promover su uso, velar por los derechos lingüísticos y trabajar en la capacitación de la lengua, a fin de que esta pueda ser medio de expresión de los ciudadanos a todos los niveles.

A tal efecto, la presencia de la lengua vasca en los medios de comunicación es fundamental para su uso y desarrollo y, a su vez, los ciudadanos tienen el derecho irrenunciable de que se les garantice la oferta en sus respectivas lenguas, tanto si la oferta proviene de la comunidad autónoma en la que residen como de otra que tenga como propia y oficial esa misma lengua. En el caso de los residentes en Navarra ese derecho viene garantizado por las emisiones televisivas que se realizan por el ente televisivo de la Comunidad Autónoma Vasca.

La reciente orden del Ministerio de Industria del Gobierno que usted preside ha tenido como efecto el cese de las emisiones de Euskal Telebista (ETB) en Navarra. Este hecho priva a los ciudadanos navarros de un derecho y, en consecuencia, del ejercicio de la libertad para poder captar, si así lo desean, la televisión que emite en una de las lenguas del Estado y en una de las dos lenguas propias y oficiales de Navarra.

Entendemos que dicha medida va en contra de la importante misión de garantizar el pluralismo lingüístico reconocido por la Constitución española, la Ley Foral 18/1986 del Vasce y la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias. Por ello, de acuerdo con el citado real decreto que rige a esta Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, solicitamos a usted que se reconsidere la orden del Ministerio de Industria requiriendo a Euskal Telebista el cese inmediato de sus emisiones en Navarra, que priva a los navarros, que así lo desean, del derecho a captar la televisión en una de las lenguas propias y oficiales de su Comunidad Foral.

Atentamente,

*Andres Urrutia,
presidente*

Bilbao, 12 de mayo de 2016.

(La Bibliote)

47.b
EUSKAL TELEBISTAK NAFARROAN EMITITZEARI
BURUZ INDUSTRIA MINISTERIOAK EMANDAKO
DEBEKUAZ

Iñigo Urkullu jauna,
Euskadiko lehendakaria

Gaia: Euskal Telebistak Nafarroan emititzeari buruz Industria Ministerioak emandako debekuaz

Lehendakari hori:

Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak, 2016ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, honako idazki hau zuei igortzea erabaki du:

Euskaltzaindiak, euskararen akademia den aldetik, bere xede nagusitzat ditu euskara zaintzea, ikertzea eta arautzea, bai eta hizkuntza-eskubideak zaintzea ere, euskararen gaikuntzan lan eginez, gure hizkuntza maila orotan euskaldunen adierazpide izan dadin.

Jakina da helburu horretarako nahitaezkoa dela euskara hedabideetan egotea eta hala nahi duten herritarrei telebista eskaintza ere bermatzea.

Dakizuenez, Industria Ministerioak Euskal Telebistari agindu dio Nafarroan emititzeari utz diezaiola. Agindu horrek Foru Komunitatean telebista euskaraz hartu nahi duten herritarren hizkuntza-eskubideak urratzen ditu, Nafarroako biztanleei eskaintza hori ukatzearekin batera.

Agindu berri horren aplikazioak, ezbaierik gabe, ondorio txarrak ekarriko dizkie euskararen garapenari eta normalizazioari, eta egoera kaltegarri horren aitzinean Euskaltzaindiak kezka adierazi nahi du.

Horregatik, eta kontuan izanik indarrean dauden legeen arabera Euskaltzaindia dela, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai Nafarroako Foru Komunitatean, hizkuntza-instituzio aholku-emaile ofiziala, Zuzendaritzak bi erkidegoetako lehendakariei eskatzen dizue zuen esku dagoen guztia egin dezazuen Euskal Telebistaren emisioak lehenbailehen berreskura daitezen Nafarroan, hala nahi duten biztanleek bermaturik ikus dezaten telebista euskaraz —beren berezko hizkuntza ofizialean— hartzeko eskubidea. Halaber, espero izatekoa da bi erkidegoen artean sinatu berri den lankidetzaren protokoloa lagungarri izanen dela xede hori ahalbidetzeko.

Adeitasunez,

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Bilbon, 2016ko maiatzaren 12an.

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

47.c
EUSKAL TELEBISTAK NAFARROAN EMITITZEARI
BURUZ INDUSTRIA MINISTERIOAK EMANDAKO
DEBEKUAZ

Uxue Barkos andrea,
Nafarroako lehendakaria

Gaia: Euskal Telebistak Nafarroan emititzeari buruz Industria Ministerioak emandako debekuaz

Lehendakari hori:

Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak, 2016ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, honako idazki hau zuei igortzea erabaki du:

Euskaltzaindiak, euskararen akademia den aldetik, bere xede nagusitzat ditu euskara zaintzea, ikertzea eta arautzea, bai eta hizkuntza-eskubideak zaintzea ere, euskararen gaikuntzan lan eginez, gure hizkuntza maila orotan euskaldunen adierazpide izan dadin.

Jakina da helburu horretarako nahitaezkoa dela euskara hedabideetan egotea eta hala nahi duten herritarrei telebista eskaintza ere bermatzea.

Dakizuenetz, Industria Ministerioak Euskal Telebistari agindu dio Nafarroan emititzeari utz diezaiola. Agindu horrek Foru Komunitatean telebista euskaraz hartu nahi duten herritarren hizkuntza-eskubideak urratzen ditu, Nafarroako biztanleei eskaintza hori ukatzearekin batera.

Agindu berri horren aplikazioak, ezbaierik gabe, ondorio txarrak ekarriko dizkie euskararen garapenari eta normalizazioari, eta egoera kaltegarri horren aitzinean Euskaltzaindiak kezka adierazi nahi du.

Horregatik, eta kontuan izanik indarrean dauden legeen arabera Euskaltzaindia dela, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai Nafarroako Foru Komunitatean, hizkuntza aholku-emaile ofiziala, Zuzendaritzak bi erkidegoetako lehendakariei eskatzen dizue zuen esku dagoen gutzia egin dezazuen Euskal Telebistaren emisioak lehenbailehen berreskura daitezen Nafarroan, hala nahi duten biztanleek bermaturik ikus dezaten telebista euskaraz —beren berezko hizkuntza ofizialean— hartzeko eskubidea. Halaber, espero izatekoa da bi erkidegoen artean sinatu berri den lankidetzatza protokoloa lagungarri izanen dela xede hori ahalbidetzeko.

Adeitasunez,

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Bilbon, 2016ko maiatzaren 12an.

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

“UNA HISTORIA DE VASCONIA” PROGRAMAZ

Maite Iturbe andrea,
EiTBko zuzendari nagusia

Gaia: “Una Historia de Vasconia” programaz

Andre agurgarria:

EiTB *Una Historia de Vasconia* izenburua daraman telesaila emititzen ari da. Adierazi denez, telesail honek Euskal Herriaren historiaren zenbait gertaera eta kontakizun ikuspegi kritiko batetik aztertzea du xede nagusizat.

Euskaltzaindiak hor zehar barreiatuako mitoak, aurreiritziak eta uste okerrak zuzentzeko asmoa duten programa guztiak begi onez ikusten ditu, horrek euskal gizartea are informatuago egon dadin ahalbidetzen baitu. Nolanahi ere, euskarari dagozkionez, uste okerrak edota erdi-egiak zuzentzeko asmoz ekoizten diren programak, oinarri sendoak —ez egiaztatu gabeko teoretan edo batzuen iritzietan— kontuan hartuz ekoiztea komeni da baldin eta usteak, erdi-egiak edo aurreiritzi berriak barreiatuko ez badira. Euskaltzain batzuk, bai eta herritar batzuk ere Euskaltzaindira hurreratu dira programa horrek zabaldukoen egiazkotasunaz galdezka. Egia esan, zenbait baieztapen eta azalpen ez dira erabat zuzenak... beste zenbaiten kasuan heldulekuak ahulegiak dira ondorio orokorrik ateratzeko —beraz, zuhertasunez jokatzeko komeni da— eta, gehienez, egin daitezkeen interpretazio edo teorien eremuan laga beharko lirarteke, ikus-entzuleak berariaz ohartaraziz.

Euskaltzaindia, EiTBrekin duen lankidetzaren hitzarmenaren esparruan, prest dago halako edukiak landu nahi dituenean EiTB laguntzeko, egiazkotzat jo daitezkeenak, hots, oinarri sendoak dituzten gertaerak adieraziz eta gainerakoak testuinguru egokian koka daitezkeen lagunduz. Esan gabe doa, teoria zein bestelakoetan iritziak ugariak direla eta halakoetan tentuz jokatzeko komeni dela.

Besterik gabe, lankidetzarako dugun borondatea berretsiz, begirunez

Xabier Kintana,
idazkaria

Bilbon, 2016ko uztailaren 14an.

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

49.a

EUSKALTZAINDIAK ETA EUSKAL KONFEDERAZIOAK ADIERAZPEN BATERATUA (EUSKARAREN EGOERA IPAR EUSKAL HERRIAN)

“Frantziako Estatuko lurraldeetako hizkuntzen egoera kezagarria da, ez baita egiten lege, diru eta langile egokiz hornituriko hizkuntza-politika publiko eraginkorrik.

Euskararen Erakunde Publikoaren sortzearekin batera, hizkuntza-politika publikoa 2006an egituratzen hasi zen Ipar Euskal Herri mailan, herri mugimenduaren lana osatuz. Bizkitartean, orain arte euskararen salbatzeko bideratu baliabideak eta neurriak ahulegi izan dira; ondorioz, euskal hiztunen kopurua eta euskararen erabilera gero eta apalagoak dira, inkesta soziolinguistikoek agerian eman dituzten datuen arabera.

Egoera larri hau iraulezina ez bada ere, baitezpadakoa da hizkuntza-politika berri eta ausarta gaurdanik egiten hastea eta, orobat, transmisioan, erabileran, motibazioan eta corpusean positiboki eragitea, edozein hizkuntza osoki berreskuratzeko prozesuak ezinbestekoak dituen alorretan. Hizkuntza-politika eraginkor hori zutik ezartzeko, nahitaezkoa da erakunde publiko guztiak (herriak, eskualdeak, Euskal Elkargoa, departamendua, Estatua) engaiatzea eta arduraz jokatzeta.

Ipar Euskal Herrian instituzio-aldaketa gertatuko da 2017ko urtarriletik goiti. Hortaz, Euskaltzaindiari eta Euskal Konfederazioari iruditzen zaie garai ezin egokiagoa dela hizkuntza-politika berri hori garatzen hasteko.

Erakunde publiko bakoitzak ardurak bere gain hartu beharko baditu ere, Euskal Elkargoak euskara indarberritzeko hizkuntza-politika horren bultzatzaile nagusia izan beharko du, euskararen eremuan lanean ari diren elkarte eta instituzioekin elkarlanean. Hala, bere eskumeneko alorretan eta gaietan ausart jokatu eta, orobat, beste erakundeak ber gauza egitera animatu beharko ditu.

Horretarako, funtsezkoak dira ondoko puntu hauek:

- Sortzen den mementotik beretik hasita, Elkargoaren estatutuetan euskararen hizkuntza-eskumena jasotzea.
- Korsikan, Bretainian eta Ipar Katalunian egin bezala, Ipar Euskal Herrian ere euskarari nolabaiteko izaera ofiziala aitortzea.
- Baliabide aski paratzea eta hizkuntza-politikarako aurrekontu propioa bideratzea.

Oinarritzko hiru erabaki horiek hartu ondoan, Euskal Elkargoa hizkuntza-politika eraginkorra diseinatzen, lantzen eta garatzen hasten ahalko da, euskararen eremuko gizarte-eragileen iritzietan eta ekarpenetan oinarrituz eta gainerako instituzioekin elkarlan estuan arituz. Euskararen berreskurapena indartzeko asmoz, zenbait alorretan hauteman blokeatze-egoerak gainditu eta aitzinamendu berriak ematea ezinbestekoa da, hala nola irakaskuntza

arruntean, helduen irakaskuntzan, hedabideetan, aisialdian, ikasmaterialetan, alor sozioekonomikoan, bizi publikoan, euskararen erabileran eta hizkuntzaren kalitatean (horren barnean Euskaltzaindiari egin beharreko aitormena egonik).

Ezin dugu ukatu erronka eder bezain gaitza dela hau. Halarik ere, Euskaltzaindia eta Euskal Konfederazioa segur dira erronka hau gainditzeko modukoa dela, eta euskara galzoritik atera eta indarberritze-bidean jauzia egiteko parada dugula”.

Baionako Euskal Erakustokian, 2016ko azaroaren 19an.

Euskera, 2016, 61, 1, 210-211.

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

49.b
DÉCLARATION DE L'ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE
ET D'EUSKAL KONFEDERAZIOA : STOPPER LE DÉCLIN
DE LA LANGUE BASQUE ET RENFORCER SON
PROCESSUS DE REVITALISATION EN PAYS BASQUE
NORD

La situation des langues territoriales en France est très critique, aucune politique linguistique dotée de moyens juridiques, humains et matériels adéquats n'étant mise en œuvre.

En Pays Basque Nord, la politique linguistique publique a véritablement commencé à se structurer en 2006, au lendemain de la création de l'Office public de la langue basque, venant compléter le travail mené par le mouvement associatif. Cependant, les moyens et mesures mis en application jusqu'à présent sont insuffisants, le nombre de locuteurs et l'usage de la langue continuant de diminuer, comme l'indiquent les enquêtes sociolinguistiques.

Cette situation n'est pas irréversible, mais il est indispensable de mettre en œuvre dès à présent une politique linguistique audacieuse et plus volontariste, afin d'agir sur la transmission, l'usage, la motivation et le corpus de la langue basque, piliers indispensables à la réappropriation de toute langue minorisée.

La mise en œuvre de cette politique linguistique audacieuse passe nécessairement par l'implication de toutes les collectivités concernées : communes, Communauté d'Agglomération Pays Basque, Département, Région, Etat.

L'évolution institutionnelle qui s'opérera en janvier 2017 avec la création de la Communauté d'Agglomération Pays Basque constitue un moment on ne peut plus opportun pour commencer à développer cette nouvelle politique linguistique publique.

Si chaque collectivité publique devra prendre ses responsabilités, la Communauté d'Agglomération Pays Basque devra être le véritable chef de file de cette nouvelle politique de revitalisation de la langue basque, en menant un étroit travail de collaboration avec l'ensemble des associations et institutions œuvrant en faveur de la langue basque. Ainsi, en plus d'agir dans ses propres domaines de compétence, elle incitera les autres collectivités publiques à faire de même.

Dans cette perspective, les points suivants sont fondamentaux :

- La Communauté d'Agglomération Pays Basque inscrira dès sa création la compétence linguistique dans ses statuts ;
- A l'instar des institutions de Corse, de Bretagne et de Catalogne Nord, elle accordera une reconnaissance officielle à la langue basque en Pays Basque Nord ;
- Des moyens suffisants et un budget spécifique seront alloués à la politique linguistique.

Ce n'est qu'à la suite de ces trois résolutions que la Communauté d'Agglomération Pays Basque pourra concevoir et développer une politique linguistique plus efficace, s'appuyant sur l'expertise et les contributions des acteurs associatifs et en collaboration étroite avec les autres institutions. Mais en préalable à de nouvelles avancées dans les domaines de l'enseignement, l'enseignement aux adultes, les médias, les loisirs, le matériel pédagogique, la vie socio-économique, la vie publique, l'usage et la qualité de la langue (avec la reconnaissance de l'Académie de la langue basque dans ce dernier domaine), il est indispensable de dépasser les actuelles situations de blocage dans les domaines susdits.

La difficulté du défi est à la hauteur de l'enjeu. Cependant, l'Académie de la langue basque et Euskal Konfederazioa sont convaincus qu'il est possible de le relever, que le déclin de la langue basque n'est pas une fatalité, et que nous avons l'opportunité de la mener sur la voie de la revitalisation.

Au Musée Basque de Bayonne, 19 novembre 2016.

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

50^{108*}

SOLICITUD PARA LA INCLUSIÓN DEL EUSKERA EN EL PREMIO NACIONAL A LA MEJOR TRADUCCIÓN

Sr. D. Iñigo Méndez de Vigo y Montojo,
Ministro de Educación, Cultura y Deporte

Asunto: **Solicitud para la inclusión del euskera en el Premio Nacional a la Mejor Traducción**

Excelentísimo señor:

Le escribo con motivo del acuerdo adoptado por el jurado que otorgó el Premio Nacional a la Mejor Traducción del año 2015 al académico de honor de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia Luis Baraiazarra, decisión que cosechó un amplio consenso entre quienes conformamos dicho jurado. Su traducción ha sido concienzuda, ha necesitado más de cuatro años para ultimarla y ha supuesto poner en manos de aquellas personas que conocemos el euskera una obra capital escrita en la lengua castellana, las obras completas de santa Teresa de Jesús. Esta labor no había sido abordada hasta ahora en su totalidad en lengua vasca, dada su complejidad.

Quiero mostrarle mi aflicción ante la posterior anulación de la decisión del jurado, por no ajustarse a las bases del premio convocado. Primero, por el padre Luis Baraiazarra. Su trabajo y entrega han sido reseñables, en ningún momento ha buscado el lucro personal, al contrario, desde la humildad, ha hecho una aportación incomparable en estilo y plasticidad a la lengua y cultura vascas sin pedir ni buscar nada a cambio. Pocas veces se tiene la oportunidad de premiar traducciones como esta, verdadera obra maestra en su género, que vierte a una lengua como el euskera un clásico de la lengua castellana. Segundo, resulta difícil de entender que se premien las traducciones de obras escritas originalmente en lenguas distintas a las consideradas como españolas y que, sin embargo, no se tengan en cuenta las traducciones de obras realizadas entre estas mismas lenguas.

Es difícil de explicar que se premien obras traducidas escritas originalmente en griego, latín, inglés, italiano u otras lenguas y que queden fuera de todo reconocimiento las traducciones en gallego, catalán o euskera de las obras escritas en castellano por Octavio Paz, Carlos Fuentes, Vargas Llosa, García Márquez, Pablo Neruda, Isabel Allende, Miguel Unamuno, Vicente Aleixandre, Camilo José Cela y otros. O que no se tengan en cuenta las traducciones al castellano, gallego o catalán de las obras escritas por Gabriel Aresti, Bernardo Atxaga, Kirmen Uribe o Unai Elorriaga, escritores con un amplio reconocimiento y que han obtenido el Premio

108 Euskaltzaindiak egindako eskabide hau dela eta, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak oinarriak aldatu zituen eta 2017ko deialdian, alegia, gaztelaniatik euskara, galego eta katalan hizkuntzetara itzulitako lanak, bai eta hizkuntza horietatik gaztelaniara egindako itzulpenak ere kontuan hartu dira.

Como consecuencia de esta solicitud realizada por Euskaltzaindia, el Ministerio de Educación, Cultura y Deporte cambió las bases para la convocatoria del año 2017, según las cuales se incluyen tanto las obras traducidas del castellano al euskera, al gallego y al catalán, como las realizadas de estas tres lenguas al castellano.

Nacional de Literatura por alguna de sus obras escritas en euskera. Ciertamente, resulta difícil de explicar.

Pero más allá de estas apreciaciones, quisiera aprovechar esta circunstancia para incidir en un tema clave: las bases del propio galardón son las que han originado esta situación. Las bases, tal y como están planteadas, impiden reconocer la labor de traducción que se está realizando por parte de numerosas personas de obras escritas en castellano, catalán, euskera y gallego a las respectivas lenguas oficiales. En nuestra opinión, sería aconsejable que esas bases fueran revisadas, para que también se premien las traducciones hechas del español a otras lenguas del Estado, sea el catalán, el gallego o el euskera y viceversa. Creemos que esta opción no restaría envergadura ni prestigio al premio, y ayudaría a descubrir trabajos insospechados y magistrales. No solo eso. Euskaltzaindia entiende que es importante subrayar y practicar la convivencia y el respeto entre lenguas y culturas que coexisten en un mismo territorio y que forman parte de su patrimonio cultural, fomentando el conocimiento mutuo. Nadie puede apreciar ni reconocer lo que desconoce.

Con toda consideración le animo para que aborde la modificación de las bases de los premios nacionales. Contará con nuestra estrecha colaboración y estoy seguro que con la de otras academias históricas también.

Por último, quisiera aprovechar la ocasión para felicitarle por su nombramiento como ministro de Educación, Cultura y Deporte. La labor desde ese ministerio exige mesura y capacidad de llegar a acuerdos amplios y duraderos que abran vías de colaboración entre distintas instituciones. Le deseo sinceramente acierto en su difícil cometido y me pongo a su disposición para lo que estime conveniente, esperando poder saludarle personalmente en un futuro próximo.

Sin otro particular, le saluda atentamente,

*Andres Urrutia,
presidente*

Bilbao, 16 de noviembre de 2016.

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

51.a
2018KO FRANTZIAKO ITZULIAREN SENPERETIK
EZPELETARAKO ETAPAN EUSKARARI DAGOKION
TOKIA EMAN DIEZAIOTEN ESKAERA

à Monsieur Christian Prudhomme,
Directeur de l'ASO Tour de France
4, Cours L'Ile Seguin

92100 Boulogne-Billancourt

Gaia: 2018ko Frantziako Itzuliaren Senperetik Ezpeletarako etapan euskarari dagokion tokia eman diezaioten eskaera

Frantziako Itzulia lehiaketaren zuzendari jauna:

Jakin dugu zuk zuzentzen duzun *Frantziako Itzuliaren* 2018ko edizioan Euskal Herrian etapa bat korrituko dela. Etapa hori uztailaren 28an izanen da, Senperetik abiatu eta Ezpeletan akituko dena.

Ez da lehen aldia Euskal Herriko bideetan gaindi ibiliko dela *Frantziako Itzulia*. Eta Euskal Herriko txirrindulari anitz lehiatu dira lasterketa famatu honetan, hala nola Maye, Lapébie, Queheille, Lejarreta, Indurain eta, gaur egun, Romain Sicard. Bestaldetik, euskaldun jendeak frankotan erakutsi du *Frantziako Itzulia* kar handiz jarraitzen duela, are gehiago Euskal Herrian gaindi iragaten delarik.

Dakizun bezala, onura publikoko erakunde gisa aitortua den Euskaltzaindiak eginbide du euskararen kalitatea eta garapena gizartean zaintzea. Zure kargu horrengatik, jakinarazi nahi dizugu oihartzun handiko etapa horretan euskarak tokia izan behar duela. Hori dela-eta, eskaera honekin jo dugu zuregana.

Alabaina, iruditzen zaigu kirol-egun handi horretan euskara ageri beharko dela etapa guzian, hastapenean nola helmugan, izan dadin euskaldun hizlarien parte-hartzearekin, edota seinaleetan edo eta *Frantziako Itzuliari* buruzko euskarrietan; horietan oro tokia eman beharko zaio euskarari. 2006an, Kanbotik Pauera jokatu zen etapan, halaxe jokatu zenuen eta, oraingo honetan, ez dugu gutiago espero.

Badakigu *Frantziako Itzulia* enpresa handia dela eta aitzinean dituzun desafio guzietan buru emateko indar handia egin behar duzula aintzat hartzen dugu. Indar berezia eskatuko dizu etapa horrek, hala nola hizlari euskaldun onak hautatzea, noiz non nola mintzatuko diren erabakitzea, seinale eta gainerako euskarrietan mezu elebidunak prestatzea eta abar. Ezbairik ez dugu aterabidea atzemateko nahia eta ahala izanen dituzula: gure aldetik, laguntza osoa izanen duzu beharrezkoa izanen duzun ber.

Erran gabe doa gure eskaera zehaztu behar dela eta antolaketa horretan partaide izanen direla etapa horrek hunkitzen dituen hautetsiak, arduradunak eta egiturak, hala nola

Senpereko eta Ezpeletako auzapez jaunak, Euskal Elkargoko lehendakari jauna, Euskararen Erakunde Publikoko lehendakari jauna, Euskal Konfederazioa, gure lurraldean bizikletaren alde jokatzen duen Txirrindulari-Federazioa eta beste.

Badugu uste gure eskaera zure interesekoa izanen den. Anartean, onariezazkidazu lehendakari jauna gure goresmenik hoberenak.

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

*Xarles Videgain,
euskaltzainburuordea*

Baionan, 2018ko urtarrilaren 11n.

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

51.b
**DEMANDE POUR QUE L'ON DONNE À LA LANGUE
BASQUE LA PLACE QUI LUI REVIENT LORS DE L'ÉTAPE
DU TOUR DE FRANCE 2018 ENTRE SAINT-PÉE-SUR-
NIVELLE ET ESPELETTE**

à Monsieur Christian Prudhomme,
Directeur de l'ASO Tour de France
4, Cours L'Ile Seguin
92100 Boulogne-Billancourt

Objet: Demande pour que l'on donne à la langue basque la place qui lui revient lors de l'étape du Tour de France 2018 entre Saint-Pée-sur-Nivelle et Espelette

Monsieur le directeur,

Nous avons appris avec intérêt qu'une étape du *Tour de France* que vous organisez et dirigez chaque été aura lieu en Pays Basque entre Saint-Pée-sur-Nivelle et Espelette le 28 juillet 2018.

Certes, ce n'est pas la première fois que le *Tour de France* emprunte ces routes en domaine basque. Et, parmi bien d'autres, des champions comme Maye, Lapébie, Queheille, Lejarreta, Indurain et plus près de nous Romain Sicard, ont participé à votre prestigieuse compétition. Vous savez aussi combien le public en Pays Basque montre son enthousiasme pour le *Tour de France* en général et plus particulièrement quand il a l'occasion de le voir passer sur nos terres.

Euskaltzaindia, Académie de la langue basque, Etablissement déclaré d'utilité publique, est soucieuse de la qualité de la langue basque et aussi de son développement au sein de la société. C'est la raison pour laquelle nous vous formulons la demande suivante.

Comme cela avait été organisé en 2006 lors de l'étape Cambo-Les Bains / Pau, il nous apparaît important que la langue basque ait toute sa place lors de cette journée sportive au grand retentissement.

Aussi, cette présence de la langue basque devrait être manifeste tant dans l'animation au départ, en cours et à la fin de l'épreuve, grâce au concours d'animateurs/trices ou speakers de langue basque, que dans la signalétique qui devrait être bilingue, ainsi que dans les divers supports concernant l'étape et la course.

Nous savons que le *Tour de France* est une machine aux rouages complexes et que notre demande exigera de la part de tous des efforts particuliers pour une bonne organisation de la journée. Nous pensons aux interventions des speakers, aux informations de type signalétique et autres documents à réaliser. Mais nous ne doutons pas de votre capacité à trouver les solutions les meilleures.

Notre demande est bien entendu à préciser quant aux modalités d'application mais nous sommes à votre disposition pour vous apporter notre aide si elle vous est nécessaire, avec le concours des diverses autorités politiques concernées par l'évènement et de l'ensemble des mouvements culturels en Pays Basque. Nous pensons en particulier aux maires de Saint-Pée-sur-Nivelle et Espelette, au président de l'Agglomération Pays Basque, à l'Office Public de la langue basque, à Euskal Konfederazioa, et aussi aux divers responsables de la Fédération Française de Cyclisme qui font vivre au quotidien cette activité sportive sur notre territoire.

Nous vous remercions par avance de votre réponse et nous vous prions d'accepter, Monsieur le Directeur, nos meilleures salutations.

*Andres Urrutia,
Président de l'Académie de la langue basque*

*Xarles Videgain,
Vice-président de l'Académie de la langue basque*

Bayonne, 11 janvier 2018.

(La Bibliothèque et Les Archives Azkue)

52.a

2018KO ERRUGBI FINALEAN, ESPAINIAKO ITZULIAN ETA MTV EUROPE MUSIC AWARDS-EN EUSKARARI DAGOKION TOKIA EMAN DIEZAIOTEN ESKAERA

Unai Rementeria Maiz jauna,
Bizkaiko Foru Aldundiko ahaldun nagusia

Gaia: 2018ko Errugbi finalean, Espainiako Itzulian eta MTV Europe Music Awards-en euskarari dagokion tokia eman diezaioten eskaera

Bizkaiko ahaldun nagusi prestua:

Dakizun legez, Euskaltzaindia euskal hizkuntzaz arduratzen den instituzio aholku-emaile ofiziala da, Espainian, Errege Akademia denez gero (1976), eta, Frantziako Errepublikan, Onura publikoko erakunde (1995) aitortua. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Autonomia Estatutuak (1979), EAEko 1982ko Euskararen Legeak eta Nafarroako Euskararen Foru Legeak (1986) beren-beregi aitortzen dute Euskaltzaindiaren zeregina —Iker eta Jagon sailetan antolatua—. Inguruabar horretan, euskarari buruzko ikerlanak egitea; euskara askotariko eremuetan erabili ahal izateko hizkuntzaren corpusa eguneratzea; arauak ematea; euskararen gizarte erabilera sustatzeko eta normalizatzeko ekimenak antolatzea eta instituzio publikoei aholkuak ematea, bai eta herritarren hizkuntza-eskubideak zaintzea ere Euskaltzaindiaren egitekoak dira, 573/1976 Dekretuak jasotzen duenaren arabera.

Jada zabaldu denez, beste ekitaldi batzuen artean, 2018ko maiatzaren bigarren asteburuan, Bilbon, Europako errugbiko Challenge eta Champions txapelketetako finalak izango dira; irailaren 12an, Espainiako Itzuliak Bizkaiko lurraldearen eremu zabal bat zeharkatuko du; azaroaren 4an MTV Europe Music Awards ekitaldia antolatu da Bilboko Exhibition Center-en. Horiek horrela, Euskaltzaindiak baikortasunez hartu du halako ekitaldiak Bizkaian egingo direlako albistea, ekonomian eragina izan ez ezik, Euskal Herria eta gure hizkuntza- eta kultura-ondarea nazioartean ezagutzera emateko ere aukera paregabea dela iruditzen baitzaio.

Bizkaiko gizarteak apustu sendoa egin du euskara biziberritzearen alde, etengabea baita elebidunen hazkundea azken hamarkadetan. Azken Inkesta Soziolinguistikoak (2016) jasotzen duenez, bizkaitarren % 48 euskal elebidunak edo elebidun orekatuak dira. Azpimarratzekoa da, gazteen artean bizi dugun errealitatea, 16-24 adin-taldean dauden gazteen hamarretik ia zazpi (% 66,8) euskaldunak baitira, eta errealitate hau are baikorragoa da 16 urtez azpikoaren artean. Beraz, Bizkaian antolatu nahi diren ekitaldi horietan, errealitate hori kontuan hartzea eskatu nahi die Euskaltzaindiak halako ekitaldien atzealdean dauden antolatzaile zein sustatzaileei.

Euskararen Akademiak gogorarazi nahi du Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean euskara hizkuntza ofiziala dela, gaztelaniarekin batera. 1978ko Espainiako Konstituzioak, 1979ko Gernikako Estatutuak eta 1982ko Nafarroako Foru Hobetzeak botere publikoen esku jarri zuten euskararen erabilera normalizatzaile eta garatzaile bideratutako neurriak hartzea, herritarren kultura-ondarearen funtsezko osagai eta berezko hizkuntza baita.

Horiek guztiak kontuan hartuta, indarrean dagoen araubideari men eginez, Euskaltzaindiari garrantzitsua iruditzen zaio, goiburuan aipaturiko ekitaldien garapenean zein sustapenerako egiten diren askotariko ekimenetan, euskarari toki duina eta aproposa ematea —ahozko nahiz idatzizko komunikazioan, seinale eta errotuluetan, webgunean, publizitatean, harreran, aurkezpenetan eta abarretan—, gainerako hizkuntzen parekoa gutxienez, eta bidenabar, euskal hiztunen eskubideak arretaz zaintzea eta gure gizartean ofiziala den euskarari zor zaion tokia ematea.

Esan beharrik ez dago, Euskaltzaindia euskarari dagokion tokia emateko egin beharrekoetan laguntzeko prest dagoela, gure gizartearen, bereziki euskal herritarren onerako izango dela uste osoa baitu.

Euskaltzaindiak egiten duen zentzuzko eskari eta proposamen hau kontuan hartuko den itxaropen osoarekin,

Bilbon, 2018ko urtarrilaren 18an.

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

52. b

2018KO ERRUGBI FINALEAN, ESPAINIAKO ITZULIAN ETA MTV EUROPE MUSIC AWARDS-EN EUSKARARI DAGOKION TOKIA EMAN DIEZAIOTEN ESKAERA

Imanol Pradales jauna,
Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatua

Gaia: 2018ko Errugbi finalean, Espainiako Itzulian eta MTV Europe Music Awards-en euskarari dagokion tokia eman diezaioten eskaera

Foru diputatu prestua:

Dakizun legez, Euskaltzaindia euskal hizkuntzaz arduratzen den instituzio aholku-emaile ofiziala da, Espainian, Errege Akademia denez gero (1976), eta, Frantziako Errepublikan, Onura publikoko erakunde (1995) aitortua. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Autonomia Estatutuak (1979), EAEko 1982ko Euskararen Legeak eta Nafarroako Euskararen Foru Legeak (1986) beren-beregi aitortzen dute Euskaltzaindiaren zeregina —Iker eta Jagon sailetan antolatua—. Inguruabar horretan, euskarari buruzko ikerlanak egitea; euskara askotariko eremuetan erabili ahal izateko hizkuntzaren corpusa eguneratzea; arauak ematea; euskararen gizarte erabilera sustatzeko eta normalizatzeko ekimenak antolatzea eta instituzio publikoei aholkuak ematea, bai eta herritarren hizkuntza-eskubideak zaintzea ere Euskaltzaindiaren egitekoak dira, 573/1976 Dekretuak jasotzen duenaren arabera.

Jada zabaldu denez, beste ekitaldi batzuen artean, 2018ko maiatzaren bigarren asteburuan, Bilbon, Europako errugbiko Challenge eta Champions txapelketetako finalak izango dira; irailaren 12an, Espainiako Itzuliak Bizkaiko lurraldearen eremu zabal bat zeharkatuko du; azaroaren 4an MTV Europe Music Awards ekitaldia antolatu da Bilboko Exhibition Center-en. Horiek horrela, Euskaltzaindiak baikortasunez hartu du halako ekitaldiak Bizkaian egingo direlako albistea, ekonomian eragina izan ez ezik, Euskal Herria eta gure hizkuntza- eta kultura-ondarea nazioartean ezagutzera emateko ere aukera paregabea dela iruditzen baitzaio.

Bizkaiko gizarteak apustu sendoa egin du euskara biziberritzearen alde, etengabea baita elebidunen hazkundera azken hamarkadetan. Azken Inkesta Soziolinguistikoak (2016) jasotzen duenez, bizkaitarren % 48 euskal elebidunak edo elebidun orekatuak dira. Azpimarratzekoa da, gazteen artean bizi dugun errealitatea, 16-24 adin-taldean dauden gazteen hamarretik ia zazpi (% 66,8) euskaldunak baitira, eta errealitate hau are baikorragoa da 16 urtez azpikoaren artean. Beraz, Bizkaian antolatu nahi diren ekitaldi horietan, errealitate hori kontuan hartzea eskatu nahi die Euskaltzaindiak halako ekitaldien atzealdean dauden antolatzaile zein sustatzaileei.

Euskararen Akademiak gogorarazi nahi du Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean euskara hizkuntza ofiziala dela, gaztelaniarekin batera. 1978ko Espainiako Konstituzioak, 1979ko Gernikako Estatutuak eta 1982ko Nafarroako Foru Hobetzeak botere publikoen esku jarri zuten euskararen erabilera normalizatzaile eta garatzaile bideratutako neurriak hartzea, herritarren kultura-ondarearen funtsezko osagai eta berezko hizkuntza baita.

Horiek guztiak kontuan hartuta, indarrean dagoen araubideari men eginez, Euskaltzaindiari garrantzitsua iruditzen zaio, goiburuan aipaturiko ekitaldien garapenean zein sustapenerako egiten diren askotariko ekimenetan, euskarari toki duina eta aproposa ematea —ahozko nahiz idatzizko komunikazioan, seinale eta errotuluetan, webgunean, publizitatean, harreran, aurkezpenetan eta abarretan—, gainerako hizkuntzen parekoa gutxienez, eta bidenabar, euskal hiztunen eskubideak arretaz zaintzea eta gure gizartean ofiziala den euskarari zor zaion tokia ematea.

Esan beharrik ez dago, Euskaltzaindia euskarari dagokion tokia emateko egin beharrekoetan laguntzeko prest dagoela, gure gizartearen, bereziki euskal herritarren onerako izango dela uste osoa baitu.

Euskaltzaindiak egiten duen zentzuzko eskari eta proposamen hau kontuan hartuko den itxaropen osoarekin,

Bilbon, 2018ko urtarrilaren 18an.

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

52. c

2018KO ERRUGBI FINALEAN, ESPAINIAKO ITZULIAN ETA MTV EUROPE MUSIC AWARDS-EN EUSKARARI DAGOKION TOKIA EMAN DIEZAIOTEN ESKAERA

Lorea Bilbao andrea,
Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako foru diputatua

Gaia: 2018ko Errugbi finalean, Espainiako Itzulian eta MTV Europe Music Awards-en euskarari dagokion tokia eman diezaioten eskaera

Foru diputatu prestua:

Dakizun legez, Euskaltzaindia euskal hizkuntzaz arduratzen den instituzio aholku-emaile ofiziala da, Espainian, Errege Akademia denez gero (1976), eta, Frantziako Errepublikan, Onura publikoko erakunde (1995) aitortua. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Autonomia Estatutuak (1979), EAEko 1982ko Euskararen Legeak eta Nafarroako Euskararen Foru Legeak (1986) beren-beregi aitortzen dute Euskaltzaindiaren zeregina —Iker eta Jagon sailetan antolatua—. Inguruabar horretan, euskarari buruzko ikerlanak egitea; euskara askotariko eremuetan erabili ahal izateko hizkuntzaren corpusa eguneratzea; arauak ematea; euskararen gizarte erabilera sustatzeko eta normalizatzeko ekimenak antolatzea eta instituzio publikoei aholkuak ematea, bai eta herritarren hizkuntza-eskubideak zaintzea ere Euskaltzaindiaren egitekoak dira, 573/1976 Dekretuak jasotzen duenaren arabera.

Jada zabaldu denez, beste ekitaldi batzuen artean, 2018ko maiatzaren bigarren asteburuan, Bilbon, Europako errugbiko Challenge eta Champions txapelketetako finalak izango dira; irailaren 12an, Espainiako Itzuliak Bizkaiko lurraldearen eremu zabal bat zeharkatuko du; azaroaren 4an MTV Europe Music Awards ekitaldia antolatu da Bilboko Exhibition Center-en. Horiek horrela, Euskaltzaindiak baikortasunez hartu du halako ekitaldiak Bizkaian egingo direlako albistea, ekonomian eragina izan ez ezik, Euskal Herria eta gure hizkuntza- eta kultura-ondarea nazioartean ezagutzera emateko ere aukera paregabea dela iruditzen baitzaio.

Bizkaiko gizarteak apustu sendoa egin du euskara biziberritzearen alde, etengabea baita elebidunen hazkundera azken hamarkadetan. Azken Inkesta Soziolinguistikoak (2016) jasotzen duenez, bizkaitarren % 48 euskal elebidunak edo elebidun orekatuak dira. Azpimarratzekoa da, gazteen artean bizi dugun errealitatea, 16-24 adin-taldean dauden gazteen hamarretik ia zazpi (% 66,8) euskaldunak baitira, eta errealitate hau are baikorragoa da 16 urtez azpikoen artean. Beraz, Bizkaian antolatu nahi diren ekitaldi horietan, errealitate hori kontuan hartzea eskatu nahi die Euskaltzaindiak halako ekitaldien atzealdean dauden antolatzaile zein sustatzaileei.

Euskararen Akademiak gogorarazi nahi du Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean euskara hizkuntza ofiziala dela, gaztelaniarekin batera. 1978ko Espainiako Konstituzioak, 1979ko Gernikako Estatutuak eta 1982ko Nafarroako Foru Hobetzeak botere publikoen esku jarri zuten euskararen erabilera normalizatzaile eta garatzaile bideratutako neurriak hartzea, herritarren kultura-ondarearen funtsezko osagai eta berezko hizkuntza baita.

Horiek guztiak kontuan hartuta, indarrean dagoen araubideari men eginez, Euskaltzaindiari garrantzitsua iruditzen zaio, goiburuan aipaturiko ekitaldien garapenean zein sustapenerako egiten diren askotariko ekimenetan, euskarari toki duina eta aproposa ematea —ahozko nahiz idatzizko komunikazioan, seinale eta errotuluetan, webgunean, publizitatean, harreran, aurkezpenetan eta abarretan—, gainerako hizkuntzen parekoa gutxienez, eta bidenabar, euskal hiztunen eskubideak arretaz zaintzea eta gure gizartean ofiziala den euskarari zor zaion tokia ematea.

Esan beharrik ez dago, Euskaltzaindia euskarari dagokion tokia emateko egin beharrekoetan laguntzeko prest dagoela, gure gizartearen, bereziki euskal herritarren onerako izango dela uste osoa baitu.

Euskaltzaindiak egiten duen zentzuzko eskari eta proposamen hau kontuan hartuko den itxaropen osoarekin,

Bilbon, 2018ko urtarrilaren 18an.

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

53.a

**2018AN BIZKAIKO HIRIBURUAN IZANGO DEN
EUROPAKO ERRUGBIKO CHALLENGE ETA CHAMPIONS
TXAPELKETETAKO FINALEAN, EUSKARARI DAGOKION
TOKIA EMAN DIEZAIOTEN ESKAERA**

Juan Mari Aburto Rike jauna,
Bilboko alkatea

Gaia: 2018an Bizkaiko hiriburuan izango den Europako errugbiko Challenge eta Champions txapelketetako finalean, euskarari dagokion tokia eman diezaioten eskaera

Alkate estimatua:

Dakizun legez, Euskaltzaindia euskal hizkuntzaz arduratzen den instituzio aholku-emaile ofiziala da, Espainian, Errege Akademia denez gero (1976), eta, Frantziako Errepublikan, Onura publikoko erakunde (1995) aitortua. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Autonomia Estatutuak (1979), EAeko 1982ko Euskararen Legeak eta Nafarroako Euskararen Foru Legeak (1986) beren-beregi aitortzen dute Euskaltzaindiaren zeregina —Iker eta Jagon sailetan antolatua—. Inguruabar horretan, euskarari buruzko ikerlanak egitea; euskara askotariko eremuetan erabili ahal izateko hizkuntzaren corpusa eguneratzea; arauak ematea; euskararen gizarte erabilera sustatzeko eta normalizatzeko ekimenak antolatzea eta instituzio publikoei aholkuak ematea, bai eta herritarren hizkuntza-eskubideak zaintzea ere Euskaltzaindiaren egitekoak dira, 573/1976 Dekretuak jasotzen duenaren arabera.

Jada zabaldu denez, 2018ko maiatzaren bigarren asteburuan, Bilbon, Europako errugbiko Challenge eta Champions txapelketetako finalak izango dira. Horiek horrela, Euskaltzaindiak baikortasunez hartu du halako ekitaldia Bizkaiko hiriburuan egingo delako albiste, ekonomian eragina izan ez ezik, Euskal Herriaren izatea nazioartean ezagutzera emateko ere aukera paregabea dela iruditzen baitzaio.

Bizkaiko gizarteak, horren barruan Bilbokoak, apustu sendoa egin du euskara biziberritzearen alde, etengabea baita elebidunen hazkundea azken hamarkadetan. Azken Inkesta Soziolinguistikoak (2016) jasotzen duenez, bizkaitarren % 48 euskal elebidunak edo elebidun orekatuak dira. Azpimarratzekoa da, gazteen artean bizi dugun errealitatea, adin-taldean dauden gazteen hamarretik ia zazpi (% 66,8) euskaldunak baitira, eta errealitate hau are baikorragoa da 16 urtez azpikoaren artean. Beraz, Bizkaian antolatu nahi den ekitaldi horretan, errealitate hori kontuan hartzea eskatu nahi die Euskaltzaindiak ekitaldi horren atzealdean dauden antolatzaileei zein sustatzaileei.

Euskararen Akademiak gogorarazi nahi du Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean euskara hizkuntza ofiziala dela, gaztelaniarekin batera. 1978ko Espainiako Konstituzioak, 1979ko Gernikako Estatutuak eta 1982ko Nafarroako Foru Hobetzeak botere publikoen esku jarri zuten euskararen erabilera normalizatzera eta garatzera bideratutako neurriak hartzea, herritarren kultura-ondarearen funtsezko osagai eta berezko hizkuntza baita. Horiek guztiak kontuan hartuta, indarrean dagoen araubideari men eginez, Euskaltzaindiari

garrantzitsua iruditzen zaio, goiburuan aipaturiko ekitaldiaren garapenean zein sustapenerako egiten diren askotariko ekimenetan, euskarari toki duina eta aproposa ematea —ahozko nahiz idatzizko komunikazioan, seinale eta errotuluetan, webgunean, publizitatean, harreran, aurkezpenetan eta abarretan—, gainerako hizkuntzen parekoa gutxienez, eta bidenabar, euskal hiztunen eskubideak arretaz zaintzea eta gure gizartean ofiziala den euskarari zor zaion tokia ematea.

Esan beharrik ez dago, Euskaltzaindia, bereak diren egitekoei eutsiz, euskarari dagokion tokia emateko egin beharrekoetan laguntzeko prest dagoela, gure gizartearen, bereziki euskal herritarren onerako izango dela uste osoa baitu.

Euskaltzaindiak egiten duen zentzuzko eskari eta proposamen hau kontuan hartuko den itxaropen osoarekin,

Bilbon, 2018ko urtarrilaren 18an.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

53.b

2018KO ESPAINIAKO ITZULIAK GETXOKO UDALERRIAN IZANGO DUEN JARDUNALDIAN, EUSKARAK DAGOKION TOKIA IZAN DEZAN ESKAERA

Imanol Landa jauna,
Getxoko alkatea

Gaia: 2018ko Espainiako Itzuliak Getxoko udalerrian izango duen jardunaldian, euskarak dagokion tokia izan dezan eskaera

Alkate agurgarria:

Dakizun legez, Euskaltzaindia euskal hizkuntzaz arduratzen den instituzio aholku-emaile ofiziala da, Espainian, Errege Akademia denez gero (1976), eta, Frantziako Errepublikan, Onura publikoko erakunde (1995) aitortua. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Autonomia Estatutuak (1979), EAEko 1982ko Euskararen Legeak eta Nafarroako Euskararen Foru Legeak (1986) beren-beregi aitortzen dute Euskaltzaindiaren zeregina —Iker eta Jagon sailetan antolatua—. Inguruabar horretan, euskarari buruzko ikerlanak egitea; euskara askotariko eremuetan erabili ahal izateko hizkuntzaren corpusa eguneratzea; arauak ematea; euskararen gizarte erabilera sustatzeko eta normalizatzeko ekimenak antolatzea eta instituzio publikoei aholkuak ematea, bai eta herritarren hizkuntza-eskubideak zaintzea ere Euskaltzaindiaren egitekoak dira, 573/1976 Dekretuak jasotzen duenaren arabera.

Jada zabaldu denez, 2018ko irailaren 12an Espainiako Itzuliak Bizkaiko lurraldearen eremu zabal bat zeharkatuko du. Horiek horrela, Euskaltzaindiak baikortasunez hartu du halako ekitaldia Bizkaian egingo delako albistea, ekonomian eragina izan ez ezik, Euskal Herria eta gure hizkuntza- eta kultura-ondarea nazioartean ezagutzera emateko ere aukera paregabea dela iruditzen baitzaio.

Bizkaiko gizarteak, horren barruan Getxokoak, apustu sendoa egin du euskara biziberritzearen alde, etengabea baita elebidunen hazkundea azken hamarkadetan. Azken Inkesta Soziolinguistikoak (2016) jasotzen duenez, bizkaitarren % 48 euskal elebidunak edo elebidun orekatuak dira. Azpimarratzekoa da, gazteen artean bizi dugun errealitatea, 16-24 adin-taldean dauden gazteen hamarretik ia zazpi (% 66,8) euskaldunak baitira, eta errealitate hau are baikorragoa da 16 urtez azpikoen artean. Beraz, Bizkaian antolatu nahi den ekitaldi horretan, errealitate hori kontuan hartzea eskatu nahi die Euskaltzaindiak halako ekitaldi baten atzealdean dauden antolatzaile zein sustatzaileei.

Euskararen Akademiak gogorarazi nahi du Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean euskara hizkuntza ofiziala dela, gaztelaniarekin batera. 1978ko Espainiako Konstituzioak, 1979ko Gernikako Estatutuak eta 1982ko Nafarroako Foru Hobetzeak botere publikoen esku jarri zuten euskararen erabilera normalizatzera eta garatzera bideratutako neurriak hartzea, herritarren kultura-ondarearen funtsezko osagai eta berezko hizkuntza baita. Horiek guztiak kontuan hartuta, indarrean dagoen araubideari men eginez, Euskaltzaindiari garrantzitsua iruditzen zaio, goiburuan aipaturiko ekitaldiaren garapenean zein sustapenerako

egiten diren askotariko ekimenetan, euskarari toki duina eta aproposa ematea —ahozko nahiz idatzizko komunikazioan, seinale eta errotuluetan, webgunean, publizitatean, harreran, aurkezpenetan eta abarretan—, gainerako hizkuntzen parekoa gutxienez, eta bidenabar, euskal hiztunen eskubideak arretaz zaintzea eta gure gizartean ofiziala den euskarari zor zaion tokia ematea.

Esan beharrik ez dago, Euskaltzaindia, bereak diren egitekoei eutsiz, euskarari dagokion tokia emateko egin beharrekoetan laguntzeko prest dagoela, gure gizartearen, bereziki euskal herritarren onerako izango dela uste osoa baitu.

Euskaltzaindiak egiten duen zentzuzko eskari eta proposamen hau kontuan hartuko den itxaropen osoarekin,

Bilbon, 2018ko urtarrilaren 18an.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

53.c

2018KO MTV EUROPE MUSIC AWARDS EKITALDIAN EUSKARAK DAGOKION TOKIA IZAN DEZAN ESKAERA

Amaia del Campo Berasategui andrea,
Barakaldoko alkatea

Gaia: 2018ko MTV Europe Music Awards ekitaldian euskarak dagokion tokia izan dezan eskaera

Alkate agurgarria:

Dakizun legez, Euskaltzaindia euskal hizkuntzaz arduratzen den instituzio aholku-emaile ofiziala da, Espainian, Errege Akademia denez gero (1976), eta, Frantziako Errepublikan, Onura publikoko erakunde (1995) aitortua. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Autonomia Estatutuak (1979), EAEko 1982ko Euskararen Legeak eta Nafarroako Euskararen Foru Legeak (1986) beren-beregi aitortzen dute Euskaltzaindiaren zeregina —Iker eta Jagon sailetan antolatua—. Inguruabar horretan, euskarari buruzko ikerlanak egitea; euskara askotariko eremuetan erabili ahal izateko hizkuntzaren corpusa eguneratzea; arauak ematea; euskararen gizarte erabilera sustatzeko eta normalizatzeko ekimenak antolatzea eta instituzio publikoei aholkuak ematea, bai eta herritarren hizkuntza-eskubideak zaintzea ere Euskaltzaindiaren egitekoak dira, 573/1976 Dekretuak jasotzen duenaren arabera.

Jada zabaldu denez, azaroaren 4an MTV Europe Music Awards ekitaldia antolatu da Barakaldon dagoen Bilboko Exhibition Center-en. Horiek horrela, Euskaltzaindiak baikortasunez hartu du halako ekitaldia Bizkaian egingo delako albistea, ekonomian eragina izan ez ezik, Euskal Herria eta gure hizkuntza- eta kultura-ondarea nazioartean ezagutzera emateko ere aukera paregabea dela iruditzen baitzaio.

Bizkaiko gizarteak, horren barruan Barakaldokoak, apustu sendoa egin du euskara biziberritzearen alde, etengabea baita elebidunen hazkundea azken hamarkadetan. Azken Inkesta Soziolinguistikoak (2016) jasotzen duenez, bizkaitarren % 48 euskal elebidunak edo elebidun orekatuak dira. Azpimarratzekoa da, gazteen artean bizi dugun errealitatea, 16-24 adin-taldean dauden gazteen hamarretik ia zazpi (% 66,8) euskaldunak baitira, eta errealitate hau are baikorragoa da 16 urtez azpikoen artean. Beraz, Bizkaian antolatu nahi den ekitaldi horretan, errealitate hori kontuan hartzea eskatu nahi die Euskaltzaindiak ekitaldi horren atzealdean dauden antolatzaile zein sustatzaileei.

Euskararen Akademiak gogorarazi nahi du Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean euskara hizkuntza ofiziala dela, gaztelaniarekin batera. 1978ko Espainiako Konstituzioak, 1979ko Gernikako Estatutuak eta 1982ko Nafarroako Foru Hobetzeak botere publikoen esku jarri zuten euskararen erabilera normalizatzera eta garatzera bideratutako neurriak hartzea, herritarren kultura-ondarearen funtsezko osagai eta berezko hizkuntza baita. Horiek guztiak kontuan hartuta, indarrean dagoen araubideari men eginez, Euskaltzaindiari garrantzitsua iruditzen zaio, goiburuan aipaturiko ekitaldiaren garapenean zein sustapenerako egiten diren askotariko ekimenetan, euskarari toki duina eta aproposa ematea —ahozko nahiz idatzizko komunikazioan, seinale eta errotuluetan, webgunean, publizitatean, harreran, aurkezpenetan eta abarretan—, gainerako hizkuntzen parekoa gutxienez, eta bidenabar, euskal hiztunen eskubideak arretaz zaintzea eta gure gizartean ofiziala den euskarari zor zaion tokia ematea.

Esan beharrik ez dago, Euskaltzaindia, bereak diren egitekoei eutsiz, euskarari dagokion tokia emateko egin beharrekoetan laguntzeko prest dagoela, gure gizartearen, bereziki euskal herritarren onerako izango dela uste osoa baitu.

Euskaltzaindiak egiten duen zentzuzko eskari eta proposamen hau kontuan hartuko den itxaropen osoarekin,

Bilbon, 2018ko urtarrilaren 18an.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

54.a

EUSKARAK GENERO GRAMATIKALIK EZ DUENEZ GERO, ERREGISTRO ZIBILETAN PERTSONAK IZENDATZEAN INDARREAN DAGOEN LEGEAK SORTZEN DITUEN OZTOPOAK GAINDITZEKO NEURRIAK BIDERA DITZAN

Rafael Catalá Polo jauna,
Justizia ministroa

Gaia: Euskarak genero gramatikalik ez duenez gero, Erregistro Zibiletan pertsonak izendatzean indarrean dagoen legeak sortzen dituen oztopoak gainditzeko neurriak bidera ditzan

Ministro jauna:

Zuri zuzentzen natzaizu euskaltzainburua naizen aldetik. Instituzio aholku-emaile ofiziala da Euskaltzaindia euskarari dagozkion gaietan, aitortza hori baitu, bai Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuan, bai Nafarroako Foru Komunitatearenean.

Gutun honen bidez, zuzentzen dudan instituzioaren kezka agertu nahi dizut, zaila baita zenbait kasutan Erregistro Zibilaren idazpenetan pertsonen euskal izendegia erabiltzea. Eta hori gertatzen da euskaraz pertsona izen guztiei ezin zaielako genero maskulinoa edo femeninoa atxiki, era eskusiboan.

Batez ere, jatorriz euskal lexiko arrunteko hitzak diren pertsona izenez ari gara, hala nola Amets edo Lur, edo jatorria toponimo batean duten pertsona izenez, hala nola Aralar (Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mendilerro baten izena) edo Baztan (Nafarroako ibar baten izena). Izan ere, euskarak bere-bereak dituen ezaugarrietako bat da genero gramatikalik ez izatea. Hortaz, era horretako pertsona izenak ez dira, berez, ez maskulinoak ez femeninoak.

Antza denez, ezaugarri horrek uztartze nekeza du sexu nahasketa eragin dezaketan izenak erregistratzeko indarrean dagoen lege debekuarekin, edo bederen zenbait erregistro zibiletan arauaz egiten den interpretazio murriztailearekin.

Ez dira gutxi Euskaltzaindiaren Onomastika zerbitzura jotzen duten gurasoak beren seme-ari edo alabari jarri nahi dioten izenaren genero maskulinoa edo femeninoa egiaztatzea eskatuz. Baieztapen hori duen egiaztagiria aurkeztea eskatu ohi zaie sarritan erregistro zibiletan, izena onartu ahal izateko. Gutun honetan adierazitako arrazoiengatik, ezin eman dezakegu halako irizpenik euskararen barne logika aldatu gabe.

Horrengatik guztiagatik, eskatzen dizut Justizia Ministerioak dagozkion aginduak eman ditzala erregistro zibiletan, indarrean dauden lege-arauak malguago aplikatu daitezkeen.

Abagune hau baliatzen dut Euskaltzaindiaren lankidetzara eskaintzeko, arazo hau elkarrekin aztertzeko eta konponbide on bat lortzeko bidea bilatzeko.

Bilbon, 2018ko urtarrilaren 22an.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

54.b
**DADO QUE LA LENGUA VASCA CARECE DE GÉNERO
GRAMATICAL, EMITA LAS INSTRUCCIONES
PERTINENTES A LOS REGISTROS CIVILES A FIN DE
PROCURAR UNA APLICACIÓN MÁS FLEXIBLE DE LA
NORMATIVA VIGENTE PARA LA IMPOSICIÓN DE LOS
NOMBRES DE PERSONA**

Sr. D. Rafael Catalá Polo,
Ministro de Justicia

Asunto: Dado que la lengua vasca carece de género gramatical, emita las instrucciones pertinentes a los Registros Civiles a fin de procurar una aplicación más flexible de la normativa vigente para la imposición de los nombres de persona

Excelentísimo señor ministro:

Me dirijo a Vd. en calidad de presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca, institución consultiva oficial en materia de euskera así reconocida en los estatutos de autonomía, tanto de la Comunidad Autónoma del País Vasco como de la Comunidad Foral de Navarra.

El motivo de esta carta es trasladarle la preocupación de la institución que presido por la dificultad que existe en algunos casos para aplicar el nomenclátor vasco de nombres de persona en los asientos del Registro Civil, debido a que en la lengua vasca no es posible adscribir a todos los nombres de persona género masculino o femenino, de manera exclusiva.

Es sobre todo el caso de aquellos nombres de persona que en origen son vocablos del léxico común vasco, tales como Amets ('sueño') o Lur ('tierra'), o que originariamente son topónimos, como Aralar (nombre de una sierra montañosa de Gipuzkoa y Navarra), o Baztan (nombre de un valle navarro). Ese hecho obedece a las características propias de una lengua como la vasca, que carece de género gramatical. Por tanto, nombres de persona como los citados no son propiamente ni masculinos ni femeninos.

Esa característica parece tener un encaje complicado con la obligatoriedad legal en vigor de que el nombre a registrar no induzca a error en cuanto al sexo, o al menos con la interpretación restrictiva que de la norma se hace en algunos registros civiles.

No son pocos los padres y madres que se dirigen al Servicio de Onomástica de esta real academia para solicitar certificación del género masculino o femenino del nombre que desean poner a sus hijos e hijas, documento probatorio que con frecuencia se les pide presentar en los registros civiles para admitir el asiento del nombre. Por las razones que le expongo en este escrito, no es factible realizar ese dictamen sin alterar la lógica propia de la lengua vasca.

Por todo ello, le solicito que el Ministerio de Justicia emita las instrucciones pertinentes a los registros civiles, a fin de procurar una aplicación más flexible de la normativa vigente.

Aprovecho la ocasión para ofrecerle la colaboración de la Real Academia de la Lengua Vasca en el estudio conjunto de este problema y en la búsqueda de las vías más adecuadas para conseguir una solución satisfactoria.

Bilbao, 22 de enero de 2018.

Andres Urrutia,
presidente de Euskaltzaindia

(Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa)

55.a
EUSKALTZAINDIAREN AGERRALDIA NAFARROAKO
PARLAMENTUAK EUSKARARI BURUZKO FORU LEGE
BERRI BAT EGITEKO SORTU DUEN BATZORDE
BEREZIAN

Nafarroako Parlamentuaren egoitzan, 2018ko irailaren 12an

Parlamentari jaun-andreak, agur:

Gaian sartu aitzinetik, agerraldi honetan ordezkatzeko dugun Euskaltzaindiaren izenean, eskerrak eman nahi dizkizuegu Nafarroako Parlamentuan Euskarari buruzko Foru Lege berri bat egiteko sortu duzuen batzorde bereziagatik eta, horretaz gain, Euskaltzaindia batzorde honetan parte hartzeraz gona gonbidatzeagatik.

Atariko gisa

Euskaltzaindia euskararen akademia da, Nafarroako Foru Diputazioaren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien babespean 1918ko urrian sortu eta 1919ko urrian eratu zena. Beraz, 100 urte betetzera doan erakundea da. Eta, horrekin batera, aurten euskara batuaren edo estandarren aldeko erabaki garrantzitsua hartu zeneko 50. urteurrena da. Jadanik jakina den bezala, datorren hilabete hasi eta 2019ko urriaren bitartean, bai mendeurrenaren, bai 50. urteurrenaren ospakizunetarako ere, antolatu den ekitaldi-programa interesgarri baten bezperan gaude.

Akademia sortu eta zenbait urte geroago, frankismoa amaitutakoan, 573/1976 Errege Dekretuaren bidez, Euskaltzaindiari Euskararen Errege Akademia izaera (Real Academia de la Lengua Vasca) aitortu zitzaion. Bere jarduerak akademikoaren eremua Hego Euskal Herriko Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa dira, ondotik bi autonomia-erkidego bilakatu direnak. Bi erkidego horietan, hizkuntzari dagokionez, Euskaltzaindia da instituzio aholku-emaile ofiziala (Euskal Autonomia Erkidegoan, 3/1979 Autonomia Estatutuaren Lege Organikoaren 6.4 artikulua arabera, eta, Nafarroako Foru Komunitatean, Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen 3.3 artikulua arabera). Ipar Euskal Herrian ere Euskaltzaindia izanen da instituzio aholku-emaile ofiziala. Hala onartuko da bihar, irailaren 13an, euskararen aldeko hizkuntza-politikaren eskumena duen Euskal Hirigune Elkargoak Euskaltzaindiarekin sinatuko duen hitzarmenean.

Aipatu dugun 573/1976 Errege Dekretuak, Euskaltzaindiaren zeregin nagusiak bi ataletan banatzen ditu: 1) Iker Saila eta 2) Jagon Saila.

- Iker Sailaren helburua hizkuntza lantzea, ikertzea eta arautzea da, saila osatzen duten hiztegitintza, gramatika, dialektologia, onomastika, literatura... batzordeen eta hainbat egitasmo eta lantalderen bidez, hiztunek erabiltzeko moduko hizkuntza lantzea eta euskararen erabilerari buruzko aholkuak eta arauak ematea [Dekretuaren 1. artikulua a), b), c), d) eta j) atalak].

- Jagon Sailari egokitutako xedeak euskararen estatus sozialaren alorrekoak dira, besteak beste, «hizkuntza-eskubideak zaintzea, euskararen erabilera sustatzea eta hizkuntza denen komunikabide izan dadin lan egitea». [Dekretuaren 1. artikulua e), f), eta g) atalak].

Euskaltzaindiak Nafarroako Foru Komunitatean izandako parte-hartzea

Euskaltzaindia bere sorreratik eta, bereziki, 1976ko Errege Dekretuaz geroztik, arduratsu jokatzeko saiatu da egokitu zitzaizkion eginbeharrak betetzen. Alde batetik, euskara landu, ikertu eta arautzearen ondorioz hizkuntzaren kalitatea bermatzen eta, bestetik, euskararen estatusa babesten, Jagon Sailari egokitutako berariazko arduren bidez (hots, aipatutako «hizkuntza-eskubideak zaintzea, euskararen erabilera sustatzea eta hizkuntza denen komunikabide izan dadin lan egitea»). Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, zeregin horietan erantzukizunez jokatzeko gain, kezka bizia ere agertu izan du. Hala egiaztatzen dute, besteak beste, Akademiak egin dituen adierazpenek. Izan ere, 1976az geroztik plazaratu dituen 54 adierazpenetatik 21 Nafarroari dagozkionak dira.

Horietatik 4 parlamentu honetan onartutako lege edota erabakien ondorioz sortutakoak. Honako hauek, hain zuzen ere:

- 1979an. Ikusirik, *Junta Superior de Educación* zelakoaren bidez, ez zela kudeatu nahi izan nafarrek gogotsu espero zuten elebitasun dekretua eta, horren ondorioz, Foru Komunitatea dekretu horretatik kanpo gelditzen zela, Euskaltzaindiak Nafarroako Foru Parlamentuari eta Foru Aldundiari eskatu zien beren jarrera hainbat lasterren agertu eta nafarren hizkuntzaren alde beharrezkoak ziren neurriak hartzeko.
- 1982an. Ikusirik, Foru Hobetzearen Legearen 9. artikulua euskarari diskriminaziozko tratamendua eman ziola eta, beste inon ez bezala, gure hizkuntzaren lur eremua zatitu egiten zuela eta, ondorioz, ukatu euskara Nafarroa osoaren eta nafar guztien eta bakoitzaren ondasuna dela.
- 1985ean. Nafarroako Euskararen Legearen aurreproiektuaren aitzinean. Ikusirik, gainerako beste erkidegoetako hizkuntza-politiketan ez bezala, Foru Komunitatea hiru eremutan zatitzen zuela eta, horrenbestez, lege proposamen horrek oraindik gehiago estutu eta mugatzen zituela Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua eta Nafarroako Foru Hobetzearen Legearen 9. artikulua jarritako euskararekiko baldintzak, hain zuzen ere, irizpide geografikoa eskubide pertsonalen gainetik jartzen zuelako.
- 1994an. Nafarroako Parlamentuaren aitzinean salatu zuen, Euskarari buruzko 1986ko Foru Legeak gure hizkuntzari irakaskuntzan, administrazioan eta hedabideetan markatzen zizkion eremu mugak zabaldu ahal izateko aukera galdu izana, alderdi politikoen alderdikeriak zirela medio. Aldi berean, gogorarazi zien euskara, nafar guztien ondarea denez gero, iritzi eta ideologia guztien gainetik eta alderdikeria guztietatik kanpo utzi behar zela.

Gainerako 17 adierazpenak ez dira zuzenean parlamentu honi dagozkionak; bai, ordea, hemen onartutako 18/1986 Foru Legearen ondorioz sortu diren egoerei dagozkienak:

- a) Adierazpen horietako hamarren bat sortu dira Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiengatik, batik bat, Euskararen Legearen aplikazio edota garapen gisa ezarri izan dituen neurri estu eta murriztaileengatik. Laburbilduz, honako hiru multzo hauetan sailkatzen ahal dira:
 - 2000. urtean Nafarroako Gobernuaren presidenteari egindako eskaera, eraberritutako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzak Foru Komunitateko hizkuntza-legeria bere

edukian eta espirituari bete eta nafar guztien hizkuntza-eskubideak berma zitzala erregutuz, eta, ondotik, 2001. eta 2003. urteetan egindakoak, aditzera emanaz 372/2000 eta 29/2003 foru dekretuek, 1986ko Foru Legea garatu beharrean, murrizteko neurriak ezartzen zituztela.

- 1991., 1997., 1998., 2006. eta 2011. urteetan Nafarroako Gobernuari zuzendutako eskaerak, FMko irratien lizentziak banatzeko deialdietan Euskararen Legearen 27. artikulua dion « euskarak gero eta presentzia handiagoa izan dezan sustatzea » eta horretarako « planak gauzatzeko » kontuan ez hartu izanagatik, eta ondorioz, esleipen guztietan euskarazko irratia baztertu izanagatik; bai eta 2009. urtean egindakoa, Iruñerrian hogeituz euskaraz emititzen ari zen irrati bakarraren antenaren kokapena zela-eta ustezko arazo teknikoak bideratzeko laguntzarik ez emateagatik.
 - Nafarroako Gobernuari igorritakoa, 2012. urteko aurrekontuetan, Euskaltzaindiari % 41,3ko beherakada aplikatu izanagatik.
- b) Beste 6 adierazpen bestelako erakunde batzuei eta Espainiako Gobernuari zuzenduak dira, hartutako zenbait erabakiren ondorioz, hala nola:
- 1986. urtean Estatuko Hauteskunde-batzordeko buruari zuzendutakoa, Nafarroako hauteskunde-paperetan euskara erabat baztertua utzi eta, ondorioz, nafarren hizkuntza-eskubideak urratzeagatik.
 - 1995ean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren aurrean aurkeztutakoa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako 1994/09/19ko epaian, besteak beste, baieztatzen zelako Iruñean ez zela bertan jaiotako euskaldunik.
 - 1997an, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaiagatik adierazitakoa, epai horrek atzera bota zituelako irakaskuntzaren eta administrazioaren arloetarako Barañaingo Udalak euskaraz jakitea beharrezkotzat joz egin zituen zenbait lanpostu deialdi.
 - 2001. urtean Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoretzari zuzendua, euskarazko irakaskuntza planak indartzeko eskatuz.
 - Espainiako Gobernuari bidalitakoak. Batetik, 2010. urtean “Televisión sin Fronteras / Mugarik gabeko Telebista” herri-ekimenaren eskaera Espainiako Parlamentuan bideratu eta onartua izan zedin. Bestetik, 2016an igorritakoa, Industria Ministerioak emandako agindua bertan behera uzteko eskatuz; izan ere, agindu horrek Nafarroan Euskal Telebista ikustea galarazten zuen eta, horren ondorioz, nafar anitzen hizkuntza-eskubideak ukatzen, alegia, telebista Foru Komunitateko berezko bi hizkuntza ofizialetako batean ikusi nahi zuten nafarren eskubideak.
- c) Aipatzekoa da azkenik, 2014-2015 ikasturte berrirako matrikulazio kanpaina ofiziala zela eta, Nafarroako gurasoei zuzendutakoa, beren seme-alabak nafar guztiena den hizkuntza eta kulturatik abiatuz, mundu zabalera begira hezi zitzaten eta, horretarako, euskarazko D ereduari matrikulatzea animatuz.

Azpitarratzekoa da Euskaltzaindiak egin dituen adierazpen guztietan argi eta garbi utzi nahi izan duela:

- Bere egitekoa Nafarroa osoaren eta nafar guztien eta bakoitzaren ondarea den euskara zaintzea eta defendatzea dela, eta egin behar horretara mugatzen dela.

- Dagokion helburu hori lortu ahal izateko, beti aritu izan dela elkarlanean Nafarroako instituzioekin, aldian aldiko gobernuarekin alegia, baina jakinik eta argi utziz Euskaltzaindiaren egitekoa interes politiko eta ideologikoetatik kanpo eta gainetik dagoela, hain zuzen ere, politika Akademiari ez dagokion esparrua delako.
- Euskaltzaindiaren ustez, euskarak interes politikoen gainetik egon behar duenez gero, politikariei behin eta berriz eskatu izan diela euskara alderdi bakoitzaren ideologia eta komenentziaren gainetik jartzeko eta, jarduera politikoan norberaren interesak zilegi baldin badira ere, euskara alderdien arteko liskarretatik kanpo uzteko.
- Eta, azkenik, Akademiak behin eta berriz adierazi nahi izan duela lankidetzan aritzeko eskaintza eta hori izan dela bere jarrera; izan ere, xedea, euskararen beraren defentsa da eta euskara Nafarroako Foru Komunitateko gizartearen lokarri sendoa izatea.

Lankidetzaren horren lekuko dira, besteak beste, Euskaltzaindiak, 1989az geroztik, bere jarduera eremuko bost administrazio publikoekin, hots, Nafarroako Gobernuarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiekin sinatu dituen hitzarmen bateratuak, eta Nafarroako Gobernuarekin 2002az geroztik indarrean dagoen alde biko hitzarmena, hizkuntza-politikaren antolaketa eta garapenerako duen Euskarabidearen bitartez. Lankidetzaren beste bi lekuko esanguratsu ditugu, orobat, 1997az geroztik Iruñeko Udalarekin urtero sinatzen duen hitzarmena, eta foru parlamentu honekin ere lehenengo aldiz 2015eko urtarrilaren 21ean sinatu eta 2018ko martxoaren 14an berriua izan dena.

Interesaturik jakin dugu, 2023ko edizioaren aurkezpen ofizialean, Frantziako Tourrak euskal lurak zeharkatuko dituela aurtengo udan. Izan ere, antolatzaileek Bilbo aukeratu dute abiapuntu uztailaren 1ean eta lehen hiru etapak Euskal Herrian izango dira. Hirugarrena, uztailaren 3an, Amorebieta (Bizkaia) eta Baiona (Lapurdi) artean iraganen da.

Horren kari, jakinarazten dizuegu Euskaltzaindiak gutun bat igorri diola Christian Prudhomme Frantziako Tourreko zuzendari jaunari, euskarak leku osoa ukan dezan Herri huntako jendeek, hain maite duten kirol ekitaldi horren iragaitean.

2018ko uztailean, Senpere eta Ezpeleta arteko etapan gertatu zen bezala, espero dugu gure eskaerak aldeko oihartzuna izatea Frantziako Tourreko antolatzaileen artean, bai eta lurraldeko erakunde eta euskararen beste sustatzaile batzuen artean ere.

Honekin batera doakizu Christian Prudhomme Frantziako Tourreko zuzendariari igorri diogun gutunaren kopia.

Onar ezazu, lehendakari jauna, nire errespetuzko sentimenduen adierazpena.

Andres URRUTIA, euskaltzainburuaren izenean
Battittu COYOS, euskaltzainburuordea

a.3

Jean-René Etchegaray auzapez jaunari
Herriko Etxea
64100 Baiona

Baionan, 2023ko urtarrilaren 31n

Auzapez jauna,

Interesaturik jakin dugu, 2023ko edizioaren aurkezpen ofizialean, Frantziako Tourrak euskal lurak zeharkatuko dituela aurtengo udan. Izan ere, antolatzaileek Bilbo aukeratu dute abiapuntu uztailearen 1ean eta lehen hiru etapak Euskal Herrian izango dira. Hirugarrena, uztailearen 3an, Amorebieta (Bizkaia) eta auzapeza zaren Baiona (Lapurdi) hiriaren artean iraganen da.

Horren kari, jakinarazten dizuegu Euskaltzaindiak gutun bat igorri diola Christian Prudhomme Frantziako Tourreko zuzendari jaunari, euskarak leku osoa ukan dezan Herri huntako jendeek, hain maite duten kirol ekitaldi horren iragaitean.

2018ko uztailean, Senpere eta Ezpeleta arteko etapan gertatu zen bezala, espero dugu gure eskaerak aldeko oihartzuna izatea Frantziako Tourreko antolatzaileen artean, bai eta lurraldeko erakunde eta euskararen beste sustatzaile batzuen artean ere.

Honekin batera doakizu Christian Prudhomme Frantziako Tourreko zuzendariari, igorri diogun gutunaren kopia.

Onar ezazu, Auzapez Jauna, nire errespetuzko sentimenduen adierazpena.

Andres URRUTIA, euskaltzainburuaren izenean
Battitu COYOS, euskaltzainburordea

a.4

Euskal Hirigune Elkargoko lehendakariari
15, Foch etorbidea
6400 BAIONA

Baionan, 2023ko urtarrilaren 31n

Lehendakari jauna,

Interesaturik jakin dugu, 2023ko edizioaren aurkezpen ofizialean, Frantziako Tourrak euskal lurralde zeharkatuko dituela aurtengo udan. Izan ere, antolatzaileek Bilbo aukeratu dute abiapuntu uztailaren 1ean eta lehen hiru etapak Euskal Herrian izango dira. Hirugarrena, uztailaren 3an, Amorebieta (Bizkaia) eta Baiona (Lapurdi) artean iraganen da.

Horren kari, jakinarazten dizuegu Euskaltzaindiak gutun bat igorri diola Christian Prudhomme Frantziako Tourreko zuzendari jaunari, euskarak leku osoa ukan dezan Herri huntako jendeek, hain maite duten kirol ekitaldi horren iragaitean.

2018ko uztailean, Senpere eta Ezpeleta arteko etapan gertatu zen bezala, espero dugu gure eskaerak aldeko oihartzuna izatea Frantziako Tourreko antolatzaileen artean, bai eta lurraldeko erakunde eta euskararen beste sustatzaile batzuen artean ere.

Honekin batera doakizu Christian Prudhomme Frantziako Tourreko zuzendariari, igorri diogun gutunaren kopia.

Onar ezazu, Lehendakari Jauna, nire errespetuzko sentimenduen adierazpena.

Andres URRUTIA, euskaltzainburuaren izenean
Battitu COYOS, euskaltzainburordea

a.5

Bingen Zupiria Gorostidi
Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua
EUSKO JAURLARITZA
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Bilbo, 2023ko otsailaren 15a

Bingen agurgarria,

Zeuk ondo baino hobeto adierazi duzunez, 2023ko Tour delakoa Bilbotik abiatu eta Euskal Herriko errepideetatik zehar igaroko dela-eta, egundoko ahalegina egingo da, irteera aurreko 100 egunean egin ere, euskal jendeak txirrindularitzaren inguruan daukan zaletasuna eta jaidura erakutsi eta zaletasun horretaz goza dezan.

Eta «ongi eTOURri» leloak ederki darakutsanez, zalantza izpirik ez daukagu gure berezko hizkuntza ere gogotik aintzat hartu duzuela nazioarteko gertakuntza ospetsu horretan leku nabarmena izan dezan; orobat, jakinarazi nahi dizugu euskarak agerpen duina izan dezala eskatu diela Euskaltzaindiak zuzenean Tourraren antolatzaileei eta Ipar Euskal Herriko herri-administrazioei.

Horren haritik, zintzoki adierazi nahi dizut Euskararen Akademia bidelagun izango duzuela euskara agertzeko ahalegin horretan eta, hartara, zure esanetara gauzkazu egin dezakegun guztian laguntzeko, aurtengo Tourraren Grand Départ Pays Basque 2023 delako hori Euskararen Irteera Handi ere bilaka dadin.

Jaso ezazu besarkada handi bat.

Adeitasunez,

Andres Urrutia Badiola
euskaltzainburua

64.b
DEMANDE POUR QUE LA LANGUE BASQUE AIT TOUTE
SA PLACE LORS DES TROIS PREMIÈRES ÉTAPES DU
TOUR DE FRANCE 2023 QUI VONT SILLONNER LE PAYS
BASQUE

Récepteurs:

b.1

Monsieur Christian Prudhomme
Directeur de l'ASO Tour de France
40, Quai du Point du Jour
92100 Boulogne-Billancourt

Bayonne, le 11 janvier 2023

Monsieur le Directeur,

Nous avons appris avec intérêt que trois étapes du Tour de France que vous organisez et dirigez chaque été auront lieu en Pays Basque, entre Bilbao, Vitoria-Gasteiz, Saint-Sébastien, Amorebieta et Bayonne, les 1, 2, et 3 juillet 2023.

Ce n'est pas la première fois que le Tour de France emprunte des routes en domaine basque et vous savez aussi combien le public basque montre son enthousiasme pour le Tour de France en général et plus particulièrement quand il a l'occasion de le voir passer sur nos terres.

Euskaltzaindia, l'Académie de la langue basque, établissement déclaré d'utilité publique, est soucieuse de la qualité de la langue basque et aussi de son développement au sein de la société. C'est la raison pour laquelle nous vous formulons la demande suivante.

Comme cela avait été organisé en 2018 lors de l'étape Saint-Pée-sur-Nivelle et Espelette, il nous apparaît important que la langue basque ait toute sa place lors de ce rendez-vous sportif au grand retentissement.

Aussi, cette présence de la langue basque devrait être manifeste tant dans l'animation au départ, pendant la course et à la fin de l'épreuve, grâce au concours d'animateurs/trices ou speakers de langue basque, que dans la signalétique qui devrait être bilingue, ainsi que dans les divers supports concernant les trois étapes de la course.

Nous savons que le Tour de France est une machine aux rouages complexes et que notre demande exigera de la part de tous des efforts particuliers pour une bonne organisation de la journée. Nous pensons aux interventions des speakers, aux informations de type signalétique et autres documents à réaliser. Mais nous ne doutons pas de votre capacité à trouver les solutions les meilleures.

Notre demande est bien entendu à préciser quant aux modalités d'application mais nous sommes à votre disposition pour vous apporter notre aide si elle vous est nécessaire, avec le concours des diverses autorités politiques concernées par l'évènement et de l'ensemble des mouvements culturels en Pays Basque. Nous pensons en particulier aux municipalités qui se trouvent sur le parcours de la course, au Président de la Communauté Autonome Basque, au Président de l'Agglomération Pays Basque, à l'Office Public de la langue basque, à l'association Euskal Konfederazioa, et aussi aux divers responsables de la Fédération Française de Cyclisme qui font vivre au quotidien cette activité sportive sur notre territoire.

Comme cela s'est produit en 2018, nous espérons que notre requête attirera votre attention. Nous vous remercions par avance de votre réponse et nous vous prions d'accepter, Monsieur le Directeur, nos meilleures salutations.

Pour Andres URRUTIA, Président de l'Académie de la langue basque,
Jean-Baptiste COYOS, Vice-président de l'Académie de la langue basque

b.2

à Monsieur le président
de l'Office public de la langue basque
2, allée del Platanes
64100 Bayonne

Bayonne, le 31 janvier 2023

Mosieur le pésident,

Nous avons appris avec intérêt, lors de la présentation du tracé de l'édition 2023, que le Tour de France allait traverser les terres basques cet été. En effet, les organisateurs de la Grande Boucle ont décidé de démarrer la course de Bilbao, la principale ville de la Communauté Autonome Basque le 1er juillet prochain, pour ensuite rejoindre Vitoria-Gasteiz, Saint-Sébastien, Amorebieta et enfin Bayonne lors des trois étapes des 1, 2 et 3 juillet.

À cette occasion, nous vous informons que l'Académie de la langue basque, Euskaltzaindia, a adressé un courrier à Monsieur Christian Prudhomme, directeur de l'ASO Tour de France afin de s'assurer que la langue basque ait, cette année encore, toute sa place lors du passage de cet événement sportif si cher à nos concitoyen.ne.s.

Comme cela avait été le cas en juillet 2018, à l'occasion de l'étape entre Saint-Pée-sur-Nivelle et Espelette, nous espérons que notre sollicitation rencontrera un écho favorable auprès des organisateurs du Tour de France, des institutions et des associations travaillant en faveur de la langue basque, afin que ce grand rendez-vous sportif de l'été soit une fois de plus une grande fête pour les participants de la grande boucle et leur fervent public qui viendra les applaudir au bord des routes du Pays Basque.

Vous trouverez ci-joint une copie du courrier adressé à M. Christian Prudhomme, directeur de la manifestation sportive.

Veillez agréer, Monsieur le président, l'expression de mes sentiments respectueux

Pour Andres URRUTIA, Président de l'Académie de la langue basque,
Jean-Baptiste COYOS, Vice-président de l'Académie de la langue basque

b.3

Monsieur le président de la Communauté
d'agglomération Pays Basque
15, avenue Maréchal Foch
64100 BAYONNE

Bayonne, le 31 janvier 2023

Monsieur le Président,

Nous avons appris avec intérêt, lors de la présentation officielle du tracé de l'édition 2023, que le Tour de France allait traverser les terres basques cet été. En effet, les organisateurs de la Grande Boucle ont décidé de démarrer la course de Bilbao, la principale ville de la Communauté Autonome Basque le 1er juillet prochain, pour ensuite rejoindre Vitoria-Gasteiz, Saint-Sébastien, Amorebieta et enfin Bayonne lors des trois étapes des 1, 2 et 3 juillet.

À cette occasion, nous vous informons que l'Académie de la langue basque, Euskaltzaindia, a adressé un courrier à Monsieur Christian Prudhomme, Directeur de l'ASO Tour de France afin de s'assurer que la langue basque ait, cette année encore, toute sa place lors du passage de cet événement sportif si cher à nos concitoyens.

Comme cela avait été le cas en juillet 2018, à l'occasion de l'étape entre Saint-Pée-sur-Nivelle et Espelette, nous espérons que notre sollicitation rencontrera un écho favorable auprès des organisateurs du Tour de France, des institutions et des associations travaillant en faveur de la langue basque, afin que ce grand rendez-vous sportif de l'été soit une fois de plus une grande fête pour les participants de la grande boucle et leur fervent public qui viendra les applaudir au bord des routes du Pays Basque.

Vous trouverez ci-joint une copie du courrier adressé à M. Christian Prudhomme, directeur de la manifestation sportive.

Veillez agréer, Monsieur le Président, l'expression de mes sentiments respectueux.

Pour Andres URRUTIA, Président de l'Académie de la langue basque,
Jean-Baptiste COYOS, Vice-président de l'Académie de la langue basque

b.4

M. Jean-René Etchegaray, Maire de Bayonne
Hôtel de Ville
64100 Bayonne

Bayonne, le 31 janvier 2023

Objet : Le Tour de France 2023 et la langue basque

Monsieur le Maire,

Nous avons appris avec intérêt, lors de la présentation officielle du tracé de l'édition 2023, que le Tour de France allait traverser les terres basques cet été. En effet, les organisateurs de la Grande Boucle ont décidé de démarrer la course de Bilbao, la principale ville de la Communauté Autonome Basque le 1er juillet prochain, pour ensuite rejoindre Vitoria-Gasteiz, Saint-Sébastien, Amorebieta et enfin Bayonne, la ville que vous administrez, lors des trois étapes des 1, 2 et 3 juillet.

À cette occasion, nous vous informons que l'Académie de la langue basque, Euskaltzaindia, a adressé un courrier à Monsieur Christian Prudhomme, Directeur de l'ASO Tour de France afin de s'assurer que la langue basque ait, cette année encore, toute sa place lors du passage de cet événement sportif si cher à nos concitoyennes.

Comme cela avait été le cas en juillet 2018, à l'occasion de l'étape entre Saint-Pée-sur-Nivelle et Espelette, nous espérons que notre sollicitation rencontrera un écho favorable auprès des organisateurs du Tour de France, des institutions et associations travaillant en faveur de la langue basque afin que ce grand rendez-vous sportif de l'été soit une fois de plus une grande fête pour les participants de la grande boucle et leur fervent public qui viendra les applaudir au bord des routes du Pays Basque.

Vous trouverez ci-joint une copie du courrier adressé à M. Christian Prudhomme, directeur de la manifestation sportive.

Veillez agréer, Monsieur le Maire, l'expression de mes sentiments respectueux.

Pour Andres URRUTIA, Président de l'Académie de la langue basque,
Jean-Baptiste COYOS, Vice-président de l'Académie de la langue basque

BARNEKO MEDIKU EGOILIARREK AZTERKETAK EUSKARAZ ERE EGIN AHAL IZATEA

Dakizun bezala, Estatuan urtero-urtero egiten dira Osasun Prestakuntza Espezializaturako sarbide-probak. Azterketa edo proba horiek gainditzea ezinbestekoa da Osasun-hezkuntza espezializatua eskuratzeko. Izan ere, graduatuok proba horietan lortzen dituzten emaitzek erabat baldintzatzen dute beren espezialitatearen hautaketa eta, beraz, beren etorkizuna.

2022. urtean, EAEn, 800 pertsona inguruk egin zituzten azterketa horiek, eta Nafarroan 594k. Gehienak medikuntzari loturiko azterketak izaten dira (BAME edo MIR). Proben deialdia eta prozedura guztia Ministerio de Sanidad, Consumo y Servicios Sociales deritzon ministerioaren Dirección General de Ordenación Profesional deituriko zuzendaritzaren ardurapean dago.

Une honetan, proba horiek guztiak gaztelaniaz egiten dira. Ondorioz, gradua euskaraz ikasten duten ikasleek desabantaila dute proba egitean, euskarazko terminologiarekin ohituta daudelako. Azterketa ohikoa ez den beste hizkuntza batean denbora gutxian egin behar dutenez, emaitza onak lortzeko errendimendua murriztu egin daiteke. Gainera, medikuntza eta erizaintza fakultatean egin diren iritzi-inkesta batzuen arabera, hainbat ikaslek medikuntza gradua gaztelaniaz ikastea erabakitzen dute, BAME-MIR azterketa gaztelaniaz egiten delako.

Horiek horrela, eskutitz honen bidez, zera eskatu nahi dizugu: zure eskuduntzen barruan eta toki egokian, proba hauek euskaraz egiteko aukera azter dezazun eta, hala erabakiz gero, dagokion erakundearen aurrean probak euskaraz ere egiteko eska dezazun.

Kontuan izan gradua euskaraz egin duten eta Osasun Prestakuntza Espezializaturako sarbide-probak egiten dituztenek gure etorkizuneko profesionalak izango direla, eta osasun-arloan euskaraz lan egingo duten profesionalak nahi baditugu, ezinbestekoa dela ikasketen ibilbide osoa euskaraz egiteko aukera izatea.

Gure eskaria aintzat hartuko duzulakoan, jaso ezazu agur bero bat.

Andres Urrutia Badiola
euskaltzainburua

Joseba G. Pineda Ortiz
Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko dekanoa

Gutunak eta hartzaileak:

Denis Itxaso
Gobernuaren ordezkaria EAEn
Gobernuaren Ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoan
Frai Frantzisko p. 17
01007 Vitoria-Gasteiz

Denis agurgarria,

Honi erantsita jaso duzun gutunean, kezka agertu nahi dizugu EUSKALTZAINDItik eta EUKAL HERRIKO UNIBERTSITATEko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatetik, medikuntza-ikasketen ondoko BAME (Mir) delako (eta horren kideko) azterketa gaztelania hutsez egin behar delako.

Inguruabar horretan, agertutako kezka Espainiako Gobernuaren Osasun eta Kontsumo Ministerioari helarazi eta bide horren ildoko urratsak egin daitezela ahalegintzeko eskatzen dizugu.

Jaso ezazu, bidenabar, agur bero bat.

Andres Urrutia Badiola
euskaltzainburua

Joseba G. Pineda Ortiz
Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko dekanoa

Bakartxo Tejeria
Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Eusko Legebiltzarra
Becerro de Bengoa
01005 Vitoria-Gasteiz

Bakartxo agurgarria,

Honi erantsita jaso duzun gutunean, kezka agertu nahi dizugu EUSKALTZAINDItik eta EUKAL HERRIKO UNIBERTSITATEko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatetik, medikuntza-ikasketen ondoko BAME (Mir) delako (eta horren kideko) azterketa gaztelania hutsez egin behar delako.

Inguruabar horretan, agertutako kezka Espainiako Gobernuaren Osasun eta Kontsumo Ministerioari helarazi eta bide horren ildoko urratsak egin daitezela ahalegintzeko eskatzen dizugu.

Jaso ezazu, bidenabar, agur bero bat.

Andres Urrutia Badiola
euskaltzainburua

Joseba G. Pineda Ortiz
Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko dekanoa

Bingen Zupiria
Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua
Eusko Jaurlaritza
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
Donostia/San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Bingen agurgarria,

Honi erantsita jaso duzun gutunean, kezka agertu nahi dizugu EUSKALTZAINDItik eta EUKAL HERRIKO UNIBERTSITATEko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatetik, medikuntza-ikasketen ondoko BAME (Mir) delako (eta horren kideko) azterketa gaztelania hutsez egin behar delako.

Inguruabar horretan, agertutako kezka Espainiako Gobernuaren Osasun eta Kontsumo Ministerioari helarazi eta bide horren ildoko urratsak egin daitezela ahalegintzeko eskatzen dizugu.

Jaso ezazu, bidenabar, agur bero bat.

Andres Urrutia Badiola
euskaltzainburua

Joseba G. Pineda Ortiz
Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko dekanoa

Jokin Bildarratz
Hezkuntza sailburua
Eusko Jaurlaritzza
Hezkuntza Saila
Donostia/San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Jokin agurgarria,

Honi erantsita jaso duzun gutunean, kezka agertu nahi dizugu EUSKALTZAINDItik eta EUKAL HERRIKO UNIBERTSITATEko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatetik, medikuntza-ikasketen ondoko BAME (Mir) delako (eta horren kideko) azterketa gaztelania hutsez egin behar delako.

Inguruabar horretan, agertutako kezka Espainiako Gobernuaren Osasun eta Kontsumo Ministerioari helarazi eta bide horren ildoko urratsak egin daitezela ahalegintzeko eskatzen dizugu.

Jaso ezazu, bidenabar, agur bero bat.

Andres Urrutia Badiola
euskaltzainburua

Joseba G. Pineda Ortiz
Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko dekanoa

Gotzone Sagardui
Osasun sailburua
Eusko Jaurlaritza
Osasun Saila
Donostia/San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Gotzone agurgarria,

Honi erantsita jaso duzun gutunean, kezka agertu nahi dizugu EUSKALTZAINDItik eta EUKAL HERRIKO UNIBERTSITATEko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatek, medikuntza-ikasketen ondoko BAME (Mir) delako (eta horren kideko) azterketa gaztelania hutsez egin behar delako.

Inguruabar horretan, agertutako kezka Espainiako Gobernuaren Osasun eta Kontsumo Ministerioari helarazi eta bide horren ildoko urratsak egin daitezela ahalegintzeko eskatzen dizugu.

Jaso ezazu, bidenabar, agur bero bat.

Andres Urrutia Badiola
euskaltzainburua

Joseba G. Pineda Ortiz
Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko dekanoa

2022KO APIRILAREN 13AN, EUSKO LEGEBILTZARREAN IZAPIDETU DEN KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILEEN ESTATUTUAREN LEGE- PROIEKTUAREN EZTABAIDARAKO EKARPENA

1. TESTUINGURUA. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideen garrantzia

Espainiako Konstituzioak eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuak argiro aldarrikatu dute gaztelania eta euskararen ofizialkidetasuna. Zehatzago esanda, Autonomia Estatutuak 6. artikuluan adierazten du euskara berezko hizkuntza ofiziala dela Euskal Herrian, eta pertsona guztiek dutela bi hizkuntza ofizialak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunek bi hizkuntzen ezagutza eta erabilera ziurtatzeko behar diren neurriak eta bitartekoak ezarri eta arautu behar dituztela ezartzen du. Horrenbestez, ez zegoen bi hizkuntza ofizialen berdintasun osoko estatus materialik, eta horregatik, erabateko berdintasuna lortzea ahalbidetuko zuten baldintzak sortu behar ziren, alegia, euskararen erabilera normalizatu behar zen, eta horixe zen Euskararen Erabilera Arauzkotzeko 10/1982 Legearen jomuga.

Lege horrek, Autonomia Estatutuan xedatutakoari helduta, hizkuntza arloko herritarren eskubideak nahiz herri-botereen betebeharrak aipatzen ditu, eta horrela, gure hizkuntzaeskubideen giltzarri bihurtu da, euskara Euskal Herriko herritar guztien elementu integratzaile gisa aitortuz eta euskal herritarren hizkuntza-eskubideak gure ordenamendu juridikoan barneratzeko agindua emanez. Bide horretatik, Legeak, batetik, babes instituzionala eman zion euskarari, eta bestetik, bidea ireki zion gizartearen funtsezko esparruetan hizkuntza-politikak garatzeari. Esparru horietako bat arlo sozioekonomikoa da, ezbairik gabe. Izan ere, euskararen normalizazio-prozesuan eremu sozioekonomikoak berebiziko garrantzia du, pertsonen egunerokoa ardazten duelako, kontsumitzaile, langile zein herritar gisa. Are gehiago, esan daiteke produktuaren edo zerbitzuaren parte dela hizkuntza, ahoz edo idatziz komunikatzen duen orok inpaktu zuzena eragiten duelako jasotzailearengan.

Arauketari dagokionez, bi testu nagusiren bidez arautu dira kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak: batetik, 6/2003 Legea, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuarena, 2012an aldatu zena, eta orain, izapidetza honen bitartez berriztatzen ari dena; eta bestetik, 123/2008 Dekretua, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa, 204/2010 Dekretuak aldatua. Arauketa horren arabera, EAEko herritarrek eskubidea dute ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eta enpresa edo establezimenduekin dituzten harremanetan nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko. Arauketaz landara, beste zenbait ekimen ere jorratu dira, kontsumitzaileen esparruan ere euskararen erabilera areagotzeko eta euskara zerbitzu- zein lan-hizkuntza bihur dadin, besteak beste: LanHitz Programa; Bikain eta Bai Euskarari Ziurtagiriak; Euskara Sustatzeko Ekintza Plana; azkenengoetarikoa, Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana 2020-2023... 2

Euskararen Erabilera Arauzkotzeko 10/1982 Legeak 40 urte betetzen dituenan hausnarketa eginez, eta hizkuntza-eskubideen aldeko ahalegin esanguratsu eta etengabe horri esker, esan daiteke azken 25 urteetan etengabe egin duela gora euskararen ezagutzak (+10 puntu euskaldunak, +11 euskaldun hartzaileak), erabilerak (+5 puntu) eta aldeko jarrerak (+10 puntu), Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko 2020-2023 Planak aipatu bezala. Hala ere,

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko 123/2008 Dekretuaren betetze-maila neurtzeko ikerketa egin zen 2014an, eta horren arabera, dekretua onetsi zenetik 6 urte igaro ostean, horren menpeko erakunde eta enpresen %42ak ezagutu ere ez du egiten, eta ezagutzen dutenen artean %22k baino ez du betetzen. Errealitate hori aintzat hartuta, Planak 2023rako helmuga bezala finkatzen du Dekretua betetzen duen enpresa kopurua % 20ko igotzea.

Betetze-maila eskas horren arrazoi nagusietako bat izan daiteke enpresa eta eragileen borondate hutsean oinarritzen dela. Kontuan izan behar da, 6/2002 Legea zein 123/2008 Dekretua aldatzean, ezabatu egin zela hizkuntza-eskubideei muzin egiten dieten enpresei zehapenak jartzeko aukera. Horrenbestez, kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko enpresa-betebeharren zerrenda xehea eta kontuzkoa izan arren, ez badago ez-betetzearen ondoriozko zigorrik, alferrekoak lirateke aurrez inbertitutako ahalegin eta baliabide guztiak.

Ildo horri ekinez, gure proposamena izango litzateke 2003ko Legeak, 2012an aldatu aurretik, jasotzen zuen jatorrizko testua berreskuratzea, hizkuntza-eskubideak gainerakoekin parean jarri eta arau-hausteei dagozkien ondorioak ezarrita, bestelako lege-testu batzuek egin duten bezala. Ulerbidez, Dekretua egiteko oinarritzat hartutako ereduak, Katalunia eta Quebecekoak argi zehaztu dute hizkuntza-eskubideen urratzeak izango dituen ondorioak, eta elkarlanerako deia egiten die euskal erakundeei bide horretan aurrera egiteko.

2. EKARPENA

Zehatzago esanda, honako hau da gure ekarpena:

Lege-proiektuak II. kapituluan arautzen ditu arau-hausteak, 134-141 artikuluetan, azken horretan hauxe xedatuz:

“Aurreko artikuluetan tipifikatutako arau-hausteez gainera, honako hauek ere joko dira kontsumo-arloko arau-haustetzat:

14. Lege honetan edo kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsari buruzko gainerako xedapenetan ezarritako beste edozein baldintza, betebehar edo debeku ez betetzea, **legearen III. tituluko VII. kapituluan araututako hizkuntza-eskubideei buruzkoak izan ezik**”.

Gure proposamena izango litzateke 14. paragrafoko salbuespen hori ezabatzea, hizkuntza eskubideak besteekin parekatuz, alegia, hauxe xedatzea:

“Aurreko artikuluetan tipifikatutako arau-hausteez gainera, honako hauek ere joko dira kontsumo-arloko arau-haustetzat:

14. Lege honetan edo kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsari buruzko gainerako xedapenetan ezarritako beste edozein baldintza, betebehar edo debeku ez betetzea”.

3. EKARPENAREN ZERGATIA

Testua orain dagoen bezala utziz gero, batetik, aditzera ematen da hizkuntza-eskubideak ez direla lege-proiektuan bermatu nahi diren beste eskubideen parekoak; eta bestetik,

enpresa jabeen mezu arriskutsua ematen zaie, alegia, legean hizkuntzari buruz zehaztutako betekizunak ez betetzeak ez dakarrela inolako ondorioz.

Kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak benetan bermatu nahi badira, eta Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko 2020-2023 Plana ezarritako helmuga erdietsi nahi bada (Dekretua betetzen duen enpresa-kopurua % 20an igotzea), planteamendu hori guztiz bidegabea da, baita atzerapausoa ere, orain arte egindako ibilbideari eta ahaleginei dagokienez. Aitzitik, hizkuntza eskubideen arloko arauketa babestu, indartu eta blindatu behar da, are gehiago epaileek gure hizkuntza-politika xedatzea saihestu nahi badugu, azken epaiak ikusita.

Amaitzeko, hizkuntza-eskubideen aitortza eta errespetua egikaritu aldera eta progresibitate printzipioa oinarri izanik, ezinbestekoa da eskubideok gainerako eskubideen zehapen berak izatea, salbuespena kenduta.

Gutunak eta hartzaileak:

Iñigo Urkullu Renteria
Euskadiko Lehendakaria

Bilbon, 2023ko martxoaren 10ean

Lehendakari estimatua:

2022ko apirilaren 13an, Eusko Legebiltzarrean izapidetu den Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuaren lege-proiektua dela eta, non, besteak beste, herritarren hizkuntza eskubideak hizpide hartu diren, Euskaltzaindiak eztabaidarako ekarpena egin nahi du, Gernikako Estatutuaren arabera, hizkuntza kontuetarako erakunde aholku-emaile ofiziala den neurrian.

Herritarren hizkuntza-eskubideak jagotea garrantzi handiko kontua da, hizkuntzaren erabilera normalizatzeko eta areagotzeko, besteak beste, eremu sozioekonomikoan. Hori horrela, gaztelaniaz mintzatzen diren herritarren hizkuntza-eskubideak normaltasunez eta ohikotasunez errespetatzen diren bitartean, ez da berdina gertatzen ari zerbitzuak eta arreta euskaraz jaso nahi duten herritarren kasuan. Estatutua idatzita dagoen eran, egoera hori betikotu dadin errazten du eta herri erakundeak, hizkuntza eskubideak betearaztearen erantzule direnak, arauak betearazteko eta herritarren eskubideak jagoteko heldulekurik gabe uzten ditu.

Gure iritzia da pertsuasioa eta sustapena direla eremu honetan lehenetsi beharreko bideak, baina antzeman daitekeenez, horiek ez dira aski, Euskararen Legea onartu eta berrogei urte pasatxo igaro direnean eta eremu sozioekonomikoan, bereziki, ahalmen handiena duten enpresa, zerbitzu, merkataritza-gune handi eta antzekoetan, herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzen ez direnean.

Honi eransten dizut, beraz, Euskaltzaindiaren ekarpena, gogoeta egiteko eta ekintzarako baliagarria den neurrian, kontuan hartzeko modukoa izan daitekeena.

Besterik gabe, begirunez agurtzen zaitu,

Andres Urrutia
euskaltzainburua

Bakartxo Tejeria Otermin
Eusko Legebiltzarreko lehendakaria

Bilbon, 2023ko martxoaren 10ean

Legebiltzarreko lehendakari andrea:

2022ko apirilaren 13an, Eusko Legebiltzarrean izapidetu den Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuaren lege-proiektua dela eta, non, besteak beste, herritarren hizkuntza eskubideak hizpide hartu diren, Euskaltzaindiak eztabaidarako ekarpena egin nahi du, Gernikako Estatutuaren arabera, hizkuntza kontuetarako erakunde aholku-emaile ofiziala den neurrian.

Herritarren hizkuntza-eskubideak jagotea garrantzi handiko kontua da, hizkuntzaren erabilera normalizatzeko eta areagotzeko, besteak beste, eremu sozioekonomikoan. Hori horrela, gaztelaniaz mintzatzen diren herritarren hizkuntza-eskubideak normaltasunez eta ohikotasunez errespetatzen diren bitartean, ez da berdina gertatzen ari zerbitzuak eta arreta euskaraz jaso nahi duten herritarren kasuan. Estatutua idatzita dagoen eran, egoera hori betikotu dadin errazten du eta herri erakundeak, hizkuntza eskubideak betearaztearen erantzule direnak, arauak betearazteko eta herritarren eskubideak jagoteko heldulekurik gabe uzten ditu.

Gure iritzia da pertsuasioa eta sustapena direla eremu honetan lehenetsi beharreko bideak, baina antzeman daitekeenez, horiek ez dira aski, Euskararen Legea onartu eta berrogei urte pasatxo igaro direnean eta eremu sozioekonomikoan, bereziki, ahalmen handiena duten enpresa, zerbitzu, merkataritza-gune handi eta antzekoetan, herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzen ez direnean.

Honi eransten dizut, beraz, Euskaltzaindiaren ekarpena eta arren eskatzen dizut Eusko Legebiltzarreko taldeen artean bana dadin, beraien esku dagoelako, hein handi batean, neurriak hartzea herritar guztien eskubideak berdintasunez eta normaltasunez bidera daitezen.

Besterik gabe, begirunez agurtzen zaitu,

Andres Urrutia
euskaltzainburua

BATASUNAREN BIDEAN: EUSKARA BATUARI GORAZARREA

Donostia, 2023ko martxoaren 24a

Arratsalde on denoi!

Ikastolen Elkarteak eta Euskaltzaindiak euskara batuari gorazarre egin nahi izan diote gaur, Errenteria eta Donostia modu ikusgarrian lotu dituen giza kate erraldoiaren bidez. Kate horrek jarraitutasuna eta transmisioa irudikatu nahi izan ditu. Jarraitutasuna, euskara batua hezurmamitzeko, askotariko pertsonen, elkarte eta erakundeek urte askotan egin dituzten ahaleginen segida irudikatzeko. Transmisioa, iraunarazteko, garatzeko eta biziberritzeko, gure hizkuntzak belaunez belaun transmiti dadin behar-beharrezkoa duelako.

Hori horrela, Ikastolek eta Euskaltzaindiak euskara batuaren sorreran eta garapenean parte hartu zutenak ere omendu nahi izan dituzte Batasunaren bidean ekimenarekin. Hamabost lagun oroitu ditu ekimenak, aldi, lanbide, jatorri eta ibilbide desberdinetakoak. Beste 15 ere izan zitezkeen, euskara batua gaur bada, askoz ere pertsona gehiagori esker delako, besteren artean, herritar anonimo andanari esker.

Izan ere, euskararen batasuna herriaren borondatearen isla da. Herri honek beti izan du, sendoago edo apalago, bizirauteko grina. Belaunaldiz belaunaldi, guztion artean lortu dugu euskarari eustea eta bizitza modernorako prestatzea, eta hamarkada gutxi batzuetan ehundu dugu, gainera; beste hizkuntza hegemoniko askok, aldiz, mendeak behar izan dituzte horretarako.

Protagonista ugari izan ditu euskararen batasunak, batzuk ezagunak, beste batzuk ez hainbeste... baina guztion ekarpena izan da ezinbestekoa, batasuna zerbait izan bada herri honek hezurmamitu duen langintza kolektiboa izan baita, lurralde eta askotariko elkarte, erakunde eta pertsonak barruratu dituenak.

Batasuna herri honek auzolanean egin duen egitasmorik handiena eta, duen eraginagatik, eraldatzaileena izan da, besteak beste, euskara eguneratzeko, biziberritzeko eta hiztun kopurua hazteko zimentarri nagusia bilakatu delako. Horregatik, hamaseigarren bat ere omendu nahi izan dute Ikastolen Elkarteak eta Euskaltzaindiak, hain zuzen, gu geu, euskaldun guztiok, euskaraz mintzatuz, entzunez, irakurriz, idatziz, ikasiz, abestuz, jolastuz, egunetik egunera euskara biziberritzen dugulako.

Euskararen batasunak aldi desberdinak bizi izan ditu; gaur egun ere bide horretan sakontzen dihardugu euskara noranahikoagoa bilakatzen ari garen neurrian. Ezagutza hazi da... hazten ari da euskal lurralde guztietan. Toki batzuetan apalago, besteetan sendoago... segitu behar dugu euskara dakitenen kopurua gehitzen. Hala berean, jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa egin behar dugu euskararen erabilera emendatzeko, bizitzaren arlo guztietan, lurralde guztietan, ezagutza hedatzearekin batera, erabilera delako euskara biziberritzeko heldulekurik sendoena eta beharrezkoena. Erabiltzen ez dena kamusten, ahazten eta galtzen delako!

Izango da eredu bateratua eta tokian tokikoa kontrajartzen saiatzen dena, hori ez da auzia, euskararen biziraupena baizik. Tokian tokikoak eta eredu bateratuak elkar osatzen eta indartzen dute hizkuntza, egokitasunez erabiltzen ditugun neurrian. Are gehiago, kontuan har

dezagun euskararen biziberritzea euskarak presentzia urria daukan herri eta hiri handietan ere gertatzen ari dela. Hori horrela, ezinbestekoa da eremu horietan eredu bateratua hedatzea eta sustatzea euskararen biziberritzeari bultzada emateko.

Denok eskuak lotuta euskararen alde jardun izan dugu gaur, auzolanean eta gogo betez, miraria da Euskal Herrian, denon artean, erdietsi duguna. Idazleek, itzultzaileek, hedabideek, ikastolek, eskolek, euskaltegiek, argitaletxeek, irakasleek, legelariak, zientzialariek... egin dutena, egin duguna.

Euskara guztiona eta guztiontzat da, eta, guztion egitekoa da gure aurrekoek gure esku utzitakoari geroa ziurtatzea. Euskarak badu oraina eta etorkizuna, elkarrekin, auzolanean, gogotsu, adoretu, irribarretsu, batasun giroan jardunez gero. Ekin eta jarrai!

68.a
UNIBERTSITATEKO IRAKASLEEN LANPOSTUAK
ATXIKITZEKO XEDEZ, JAKINTZA-EREMUAK EZARTZEN
DITUEN ERREGE DEKRETU PROIEKTUA (EDP)

Pedro Sánchez Pérez-Castejón jaun txit gorena
Espainiako Gobernuko presidentea

Bilbo, 2023ko maiatzaren 4a

Espainiako Gobernuko presidente txit agurgarria:

Honako gutun hau idatzi dizut Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindiaren kezka agertzeko, euskal hizkuntzari doakionez, Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofiziala denez gero, aztergai darabilzuen Unibertsitateko irakasleen lanpostuak atxikitzeke xedez, jakintza-eremuak ezartzen dituen Errege Dekretu Proiektua dela eta.

EDP horretan, 2. artikuluan, hain zuzen, ondoko epigrafeak baino ez dira jasotzen: xxxvii. Hizkuntza modernoak eta beren literaturak eta xxxviii. Filologia hispanikoa, klasikoak eta antzinako mundukoak. Hortaz, EDP delako horretan jasotako proposamenaren argitan, gure iritziz, Euskal Filologia jakintza-arloaren esparrua Filologia hispanikoaren edo, bestela, Hizkuntza modernoaren mende geratuko litzateke. Mendekotasun horrek, baina, ez dauka inolako justifikaziorik eta ulertezina da, ez baitu onartzen behar bezala ezarritako eta eraz bereizitako errealitate zientifiko eta akademikoa. Bestalde, ez da ahaztu behar humanitate-ikasketetako oinarrizko ikasgaia dela euskara hizkuntza ofiziala den lurraldeetan. Hortaz, Akademia honen aburuz, Euskal Filologiari aitorten zientifikoa eta ikusgarritasuna eman behar zaizkio nazioan eta nazioartean, Filologia hispanikoari, Filologia klasikoari eta estatuko gainerako hizkuntzei aitortzen zaien modu berean.

Esandako guztiagatik, Euskal Filologia EDP delakoaren 2. artikulua dakarren zerrendan, berriazko jakintza-arlotzat txertatzeko eskaera egin nahi dizu Akademia honek.

Gure iritzia kontuan hartuko duzulako esperantzaz, adeitasunez agurtzen zaitu.

Andres Urrutia Badiola
euskaltzainburua

68.b
PROYECTO DE REAL DECRETO (PRD) POR EL QUE SE ESTABLECEN LOS ÁMBITOS DE CONOCIMIENTO A EFECTOS DE LA ADSCRIPCIÓN DE LOS PUESTOS DE TRABAJO DEL PROFESORADO UNIVERSITARIO

Excmo. Sr. D. Pedro Sánchez Pérez-Castejón
presidente del Gobierno de España

Bilbao, 4 de mayo de 2023ko

Excelentísimo señor presidente del Gobierno:

Le escribo esta carta para mostrar la preocupación de esta Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia, institución consultiva oficial en lo que respecta a la lengua vasca, con motivo del Proyecto de Real Decreto por el que se establecen los ámbitos de conocimiento a efectos de adscripción de los puestos de trabajo del profesorado universitario.

En dicho PRD, en el art. 2 únicamente se recogen los epígrafes xxxvii. Lenguas modernas y sus literaturas y xxxviii. Filologías hispánica, clásicas y del mundo antiguo. A la luz de la propuesta recogida en el PDR, entendemos que el ámbito Filología vasca quedaría supeditado al de Filología hispánica o al de Lenguas modernas. Dicha supeditación resulta injustificada e incomprensible, en tanto en cuanto no reconoce una realidad científica y académica bien establecida y diferenciada. No debe olvidarse, además, que se trata de una materia básica de los estudios humanísticos de las zonas en que la lengua vasca es lengua oficial. Esta Academia entiende que a la Filología vasca se le debe otorgar el reconocimiento científico y la visibilidad que le corresponden en el espacio nacional e internacional, al igual que se reconoce la especificidad a la Filología hispánica, a la Filología clásica y a las correspondientes restantes lenguas del Estado.

Es por ello que esta Academia le solicita la inclusión de la Filología vasca como ámbito específico en el listado de ámbitos de conocimiento propuesto en el art. 2 del PRD.

Esperando que tenga en cuenta nuestra opinión, le saluda afectuosamente.

Andres Urrutia Badiola
presidente de la Real Academia
de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia

69.a
EUSKO JAURLARITZAKO LEHENDAKARIAK
PROPOSATUTAKO MAKROESKUALDE ATLANTIKOA
ERATZEKO PROPOSAMENA HIZTUN-ELKARTE
TXIKIAGOTUAK INDARTZEKO AUKERA IZAN
DAITEKEELA USTE DU EUSKALTZAINDIAK

Iñigo Urkullu Renteria
Eusko Jaularitzako lehendakaria

Bilbon, 2023ko maiatzaren 11n

Haren babesean, Arku Atlantikoan diren hiztun-elkarte txikiagotuak ezagutarazteko, beraien arteko harremanak sendotzeko, hizkuntza eta kulturen inguruabarrean, egitasmoak partekatzeke, ikerketa indartzeko eta ezagutzaren transferentzian lankidetzan jarduteko aukera balia dadila galdegin du.

Joan den martxoan, Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak, Kantabriako, Asturiasko Printzerriko eta Galiziako presidenteeekin batera, Makroeskualde Atlantikoa eratzeko eginiko proposamena begi onez eta aukera gisa ikusten du Euskaltzaindiak. Mugikortasunaren, energia trantsizioaren eta bestelako gaien eremuan ez ezik, Arku Atlantikoan bizi diren hiztun-elkarte txikiagotuak ikusarazteko eta biziberritzeko ere bai.

Ez da ahaztu behar eremu horretan, besteak beste, galizieraz, asturieraz, euskaraz, okzitazieraz edo bretoieraz hitz egiten duten milaka pertsona bizi direla eta hiztun-elkarte horiek hainbat errealitate dituztela, ezagutzaren, biziberritzearen eta aitortzaren ikusmoldeetik. Gainera, badira hiztun-elkarte batzuk bizirik dirautenak estatu batean baino gehiagotan. Euskaltzaindia sortu zenetik, oso kontuan hartu du Akademiak euskara mugaz gaindiko hizkuntza dela eta euskararen lurralde guztietan lan egin behar dela hiztunen kopurua hazteko zein erabilera indartzeko; horren haritik, hiztun-elkarte guztiei dagokie gutxieneko aitortza biziberritzeko aukerak izan ditzaten.

Horiek horrela, Euskaltzaindiak I. Urkullu Lehendakariari eskatuko dio hizkuntza eta kultura txikiak (ere) kontuan har daitezen Makroeskualde Atlantikoaren zereginak finkatzen direnean. Era berean, Euskaltzaindia prest dago, Makroeskualde horren altzoan, sare bat antolatzeke **Real Academia Galega, Academia de la Llingua Asturiana, Lo Congrès permanent de la lenga occitana, Ofis Publik ar Brezhoneg** eta bestelako elkarte nahiz erakundeekin, hiztun-elkarte txikiak Europako erakundeetan ikusarazteko, haien arteko lankidetzan indartzeko, egitasmoak partekatzeke, bai eta pilotutako ezagutza transferitzeko ere, bereziki, teknologia berriak erabiliz.

Euskaltzaindiaren Zuzendaritza

69.b

EN OPINIÓN DE EUSKALTZAINDIA, LA PROPUESTA DE CONSTITUCIÓN DE UNA MACRORREGIÓN ATLÁNTICA A INICIATIVA DEL LEHENDAKARI DEL GOBIERNO VASCO PUEDE SER UNA OPORTUNIDAD PARA FORTALECER LAS COMUNIDADES LINGÜÍSTICAS MINORIZADAS

Iñigo Urkullu Renteria
Presidente del Gobierno Vasco

Bilbao, 11 de mayo de 2023

Atendiendo a la misma, pide que se aproveche la ocasión para dar a conocer las comunidades lingüísticas que habitan en el Arco Atlántico, fortalecer sus relaciones, compartir proyectos en clave lingüística y cultural, reforzar la investigación y posibilitar la transferencia del conocimiento.

Euskaltzaindia ve con buenos ojos y considera como una oportunidad la propuesta de constitución de la Macrorregión Atlántica realizada el pasado mes de marzo por el Lehendakari Iñigo Urkullu, junto a los presidentes de Cantabria, Principado de Asturias y Galicia. Para la Academia, la propuesta no genera una oportunidad solamente en el ámbito de la movilidad y la transición energética, sino también en la visibilización y revitalización de las comunidades lingüísticas minorizadas que conviven en el Arco Atlántico.

No debemos olvidar que en dicha zona viven miles de hablantes de, entre otras lenguas, gallego, asturiano, euskera, occitano o bretón, y que esas comunidades lingüísticas viven realidades diferentes, desde la perspectiva del conocimiento, el reconocimiento y la revitalización de la lengua propia. Además, existen comunidades lingüísticas que perviven en más de un estado. Desde la creación de Euskaltzaindia, la Academia ha tenido muy en cuenta que el euskera es una lengua transfronteriza y que es necesario trabajar en todos los territorios del euskera, tanto para aumentar el número de hablantes como para reforzar su prestigio y uso social; en ese sentido, todas las comunidades lingüísticas necesitan un mínimo reconocimiento para que dispongan de oportunidades para su normalización.

Por lo antedicho, Euskaltzaindia solicitará al Lehendakari I. Urkullu que (también) se tengan en cuenta todas las lenguas y culturas minorizadas del Arco Atlántico a la hora de establecer las funciones de la Macrorregión Atlántica. Asimismo, Euskaltzaindia está dispuesta a organizarse en red junto a la **Real Academia Galega, la Academia de la Llingua Asturiana, Lo Congrès permanent de la lenga occitana, Ofis Publik ar Brezhoneg** y otras asociaciones y entidades afines para dar visibilidad a las comunidades lingüísticas minoritarias y/o minorizadas en las instituciones europeas, reforzar la colaboración entre las mismas, compartir proyectos, así como transferir el conocimiento acumulado, principalmente, mediante el uso de las nuevas tecnologías.

Junta de Gobierno de Euskaltzaindia